Urnietako irakaskuntzaren historia laburra

Breve historia de la enseñanza en Urnieta

Aitziber **S**alinas **E**losegi
Juan **A**guirre

44

colección
Lankidetzan
bilduma

Urnietako irakaskuntzaren historia laburra:

Pedro Viteri Aranaren mendeurrenean

Breve historia de la enseñanza en Urnieta:

en el centenario de Pedro Viteri Arana

Aitziber **S**alinas **E**losegi
Juan **A**guirre

Azalaren argazkia / Fotografía portada: “Urnietako mutilen eskola Miguel Frago Frago maisu zela (1935)”. Indalecio Ojanguren. *Álbum gráfico descriptivo del País Vascongado.*

Salinas Elosegi, Aitziber

Urnietako irakaskuntzaren historia laburra: Pedro Viteri Aranaren mendeurrenean = Breve historia de la enseñanza en Urnieta: en el centenario de Pedro Viteri Arana / Aitziber Salinas Elosegi, Juan Aguirre. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007.

225 or. : ir. ; 24 cm. – (Lankidetzan ; 44)

ISBN: 978-84-8419-142-1

I. Salinas Elosegi, Aitziber II. Aguirre, Juan III. Serie IV-V. Tit.

Eusko Ikaskuntzak eta Urnietako Udalak bere eskerrona adierazi nahi dizkiete ale honetan parte hartu duten autore guztiei, eta ohi duten gisa guzti hauen erizpideak errespetatzen dituzte, honek ez duelarik esan nahi bereziki horiekin bat daudenik.

Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos y el Ayuntamiento de Urnieta muestran su agradecimiento a los autores que han colaborado en este volumen y de acuerdo con su tradición, respetan todos sus criterios y opiniones, sin que ello signifique que asuman en particular cualquiera de ellos.

ISBN: 978-84-8419-142-1
L.G.: BI-3920-07
Fotokonposaketa: Ikur, S.A.
Inprimaketa: Baster, S.L.L.

Urnietako irakaskuntzaren historia laburra:
Pedro Viteri Aranaren mendeurrenean

Breve historia de la enseñanza en Urnieta:
en el centenario de Pedro Viteri Arana

Laburpena / Resumen / Résumé 11

Urnietako irakaskuntzaren historia laburra:
Pedro Viteri Aranaren mendeurrenean

Agurra: Mertxe Zapiain Intxausti 17
Hitzaurrea: Paulí Dávila 19
Aurkezpena 21
Urnieta 23
Urnietako hezkuntzari buruzko lehen berriak 25

Viteri eta Azkorte 33
- Pedro Viteriren ekarpena hezkuntzaren alde 33
- Eskola Nazionaletako maisu-maistrak 35
- Azkorte-Egape Ikastola 38
- Azkorte eskoletako eraikinaren etorkizuna. Kultur erabilera posibleak . 49

Urnietako beste ikastetxe batzuk 51
- Lasarteko eskolak 51
- Oriako eskolak 53
- Pagoagako ikastetxe partikularra 57
- Goiburuko Landa eskola 60
- Lasarteko Landaberri Ikastola 64

Urnietako eskola bizitzari buruzko xehetasun batzuk 67
- Eskola errolda. Horniduren bilakaera 67
- Ekonomia 72
- Hizkuntza 74
- Errepublika eta gerraostea 78

Oroituz 85
- Irakasleak 86
- Ikasketak 88
- Eskola 88
  - Gelak 89
  - Eskola materiala 90
  - Kalefakzioa 90
  - Ikasi eta jolastu 91
  - Kantuak eta errezoak 91
- Janzkera 92
- Asistentzia 93

Euskara 94

Ikastetxe pribatuak 97
Maria Sortzez Garbiaren Misiolari Oblatuak 97
Probidentziako Ahizpak 99
Presentación de María ikastetxea 99
San Jose Langilea Salestar Eskola 101

Bibliografia 103

Breve historia de la enseñanza en Urnieta:

en el centenario de Pedro Viteri Arana

Saluda: Mertxe Zapiain Intxausti 109
Prólogo: Paulí Dávila 111
Presentación 113
Urnieta 115
Primeras noticias sobre la educación en Urnieta 117

De Viteri a Azkorte 125
Pedro Viteri y su obra educativa 125
Maestros y maestras de las Escuelas Nacionales 127
Azkorte-Egape Ikastola 130
El futuro del edificio de las Escuelas Azkorte. Posibles usos culturales 141

Otras escuelas de Urnieta 143
Escuelas en Lasarte 143
Escuelas en Oria 145
Escuela Particular de Pagoaga 150
Escuela Rural de Goiburu 152
Landaberri Ikastola de Lasarte 157

Aspectos de la vida escolar en Urnieta 159
Censo escolar. Evolución de las dotaciones 159
Economía 164
Lengua 166
República y posguerra 170

Recuerdos 177
Maestros y maestras 178
Estudios 180
Escuela 180
Aulas 181
Material escolar 182
Calefacción 182
Aprender y jugar 183
Cantos y rezos 184
Vestimenta 184
Asistencia 185
Euskera 186

Centros privados de enseñanza 189
Misioneros Oblatos de María Inmaculada 189
Hermanas de la Providencia 191
Colegio de la Presentación de María 191
Escuela Salesiana de San José Obrero 193

Bibliografía 195

Dokumentuak / Documentos 197
Argazki kredituak / Créditos fotográficos 223
Bibliographic Section 225

Urnietan (Gipuzkoa), biztanleria handiko herria ez izan arren, oso aukera joria eta anitza izan dute lehen hezkuntzako ikastetxeetan: ekimen pribatuz ekarritako maisuak XVII. mendetik aurrera, udal ikastetxeak, eskola nazionalak, langile eta nekazarientzako eskola partikularrak, herri eskolak, ikastolak (hirurogeiko hamarkadatik aurrera, hasieran pribatuak eta gero publikoak), ikastetxe erlijiosoak, nobiziotegiak, apaiztegia eta lanbide eskola. Pedro Viteri ongilearen ehungarren urteurrena ospatzeko prestatu dugun azterlan honetan, aipatutako ikastetxe guztiek jorratutako bidea ekarriko dugu gogora, urratsez urrats.

Giltza-Hitzak: Irakaskuntza. Urnieta. Ikastetxeak. Historia. XX. mendea. Gipuzkoa.

Pese a su modesta densidad demográfica, Urnieta (Gipuzkoa) ha contado con un catálogo casi completo de centros de primera enseñanza: maestros por fundación privada desde el siglo XVII, escuelas municipales, escuelas nacionales, escuelas particulares obreras y campesinas, escuelas rurales, ikastolas de iniciativa privada desde los años sesenta y más tarde públicas, colegios religiosos, además de noviciado, seminario y escuela profesional. Esta investigación, preparada con motivo del centenario del benefactor Pedro Viteri, hace un recorrido a la historia de todos estos centros de enseñanza.

Palabras Clave: Enseñanza. Urnieta. Escuelas. Historia. Siglo XX. Gipuzkoa.

Malgré ses modestes densité démographiques, Urnieta (Gipuzkoa) a compté sur un catalogue presque complet de centres de premier enseignement : des maîtres de fondation privée depuis le XVII^{ème} siècle, des écoles municipales, des écoles nationales, des écoles privées ouvrières et paysannes, des écoles rurales, des ikastolas d'initiative privée depuis les années soixante et plus tard publiques, des collèges religieux, en plus d'un noviciat, d'un séminaire et d'une école professionnelle. Cette étude, préparée à l'occasion du centenaire du bienfaiteur Pedro Viteri, examine l'histoire de tous ces centres d'enseignement.

Mots Clés: Enseignement. Urnieta. Ecoles. Histoire. XX^{ème} siècle. Gipuzkoa.

Urnietako irakaskuntzaren historia laburra:

Pedro Viteri Aranaren mendeurrenean

Aitziber **S**alinas **E**losegi
Juan **A**guirre

Urnietako irakaskuntzaren historia laburra:
Pedro Viteri Aranaren mendeurrenean

Agurra: Mertxe Zapiain Intxausti 17
Hitzaurrea: Paulí Dávila 19
Aurkezpena 21
Urnieta 23
Urnietako hezkuntzari buruzko lehen berriak 25

Viteri eta Azkorte 33
- Pedro Viteriren ekarpena hezkuntzaren alde 33
- Eskola Nazionaletako maisu-maistrak 35
- Azkorte-Egape Ikastola 38
- Azkorte eskoletako eraikinaren etorkizuna. Kultur erabilera posibleak . 49

Urnietako beste ikastetxe batzuk 51
- Lasarteko eskolak 51
- Oriako eskolak 53
- Pagoagako ikastetxe partikularra 57
- Goiburuko Landa eskola 60
- Lasarteko Landaberri Ikastola 64

Urnietako eskola bizitzari buruzko xehetasun batzuk 67
- Eskola errolda. Horniduren bilakaera 67
- Ekonomia 72
- Hizkuntza 74
- Errepublika eta gerraostea 78

Orokuz 85
- Irakasleak 86
- Ikasketak 88
- Eskola 88
  - Gelak 89
  - Eskola materiala 90
  - Kalefakzioa 90
  - Ikasi eta jolastu 91
  - Kantuak eta errezoak 91
- Janzkera 92
- Asistentzia 93
- Euskara 94

Ikastetxe pribatuak 97
- Maria Sortzez Garbiaren Misiolari Oblatuak 97
- Probidentziako Ahizpak 99
- Presentación de María ikastetxea 99
- San Jose Langilea Salestar Eskola 101

Bibliografia 103

AGURRA

Urnietako irakaskuntzaren historia laburra (Pedro Viteri Aranaren mendeurrenean) deritzon lana Urnietako Udalak eta Eusko Ikaskuntzak elkarlanean proposatutako ikerketa historiko baten emaitza da, alegia, Udalak erakunde horrekin sinatuta duen hitzarmenaren baitan gauzatutako ikerketa baten ondorioa.

Proiektu honen xedea Urnietako eskola publikoak eta bide batez irakaskuntza beraren nondik norakoa urnietarrei jakinaraztea izan da. Ikerketa hasi zutenean eta hainbat lekukorekin elkarrizketatu zirenean, eskola horretatik igarotako hainbatek ez omen zekien Pedro Viteri Arana jaunak eskola eraikitzeko dirua jarri zuenik; honela, Urnietari buruz beste datu esanguratsu bat jakin dugu.

Bestalde, 100 urte hauetan Azkorte kaleko eraikuntza horrek belaunaldiz belaunaldi izan duen historiaz zertzelada batzuk jakiteko aukera paregabea izango dugu liburu hau eskuartean edukitzean.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet liburu honen egileei, Aitziber Salinas eta Juan Aguirre hain zuzen ere, proiektu honetan parte hartzeagatik eta nola ez, beren lekukotasuna eskeini duten guzti horiei, lanari egiazkotasuna ematen diolako.

Mertxe Zapiain Intxausti
Kultur Zinegotzia
Urnietako Udala

HITZAURREA

Azkeneko hiru hamarkada hauetan hezkuntzaren historiari buruz Euskal Herrian argitaratutako bibliografiari arretaz begiratu dion irakurle oro ohartuko zen tarte horretan izan den aldaketaz. Duela hogeita hamar urte, esku bateko hatzak aski genituen, kasik, horri buruzko liburuak zenbatzeko; gaur egun, aldiz, badira liburuak, artikulu zientifikoak, biltzarretako aktak, doktoretza ikastaroak, doktore tesiak..., baita gaiari buruzko unibertsitateko ikasgaiak ere, baliabide dokumental eta bibliografiko ugarirekin. Alderdi kuantitatibotik ez ezik, kualitatibotik ere igartzen da berrikuntza nabarmenik hezkuntzaren egoeran. Orain, badaukagu behar adina baliabide eta jakintza Euskal Herriko hezkuntzaren historia eraikitzeko. Zenbait hezkuntza prozesu sar genitzake historia horretan (alfabetatzea eta eskolatzea, kasu), edo beste zenbait fenomeno garrantzitsu (euskara hezkuntza sisteman, irakasleen trebakuntza, eskolako testuak, haurren egoera, lanbide heziketa, ikastolak, hezkuntzan diharduten ordena eta kongregazio erlijiosoen lana...).

Aitortu beharrean gaude, hala ere, badela hutsunerik hezkuntzako zenbait arlotan, probintzia batzuetan, garai jakinen batean..., baina, oro har, hezkuntzaren historiaren ardatz nagusiak argi ikusten dira. Hezkuntzak Euskal Herrian egin duen bidearen laburpen egokia egiten ari gara, baita fenomeno bereziak eta tokian tokikoak azaltzeko oinarriak jartzen ere. Hezkuntzaren Historia Euskal Herrian gaiari buruz Eusko Ikaskuntzak orain gutxi antolatutako jardunaldietan, horri buruzko ikuspegien lagin zabala erakutsi zen. Egoera aztertzeko eta herritarrei memoria historiko horren berri azaltzeko abiapuntu egokiak dira, seguruenik, jardunaldi horietako edukiak.

Aipatutako historia horrentzako ekarpen bikaina da esku artean dugun lan hau, gaiari tresna zientifikoekin ekiteko aukera ematen baitigu. Horrez gain, Gipuzkoako herri batean irakaskuntzak historian zehar izan dituen gorabeherak ere erakusten dizkigu. Lanaren garrantzia areagotu egiten du ikusteak monografia gutxik jorratu dutela hezkuntza tokiko ikuspegitik. Oro har, badirudi hezkuntzako historialariek ez dutela gustuko tokiko ikuspegitik aritzea; deseroso samar sentitzen dira, nonbait, gaiari hain hurbiletik ekitean. Izan ere, zaila da, batzuetan, historia orokorraren gai nagusiei ekitea tokiko behatokitik. Historialari askoren trebezia erakusteko desafio aproposa, zinez!

Dena den, tokian tokiko historiaren alde egin beharra daukagu, izan ere, ez baitago historia geografia eremu baten arabera ez banatzeko arrazoirik. Bestalde, kontuan izan behar dugu azken hamarkadotan 'historiaren amaiera', diziplina zientifiko gisa, delako horren diskurtsoekin batera sortu dela tokiko historia.

Amaitu da, bada, historia mota bat, diskurtsoa eraikitzeko subjektua, kontzientzia, denbora, espazioa, gertakariak, agiriak... baliatzen zituena alegia. Horren ordez, kontakizuna dugu nagusi gaur egun. Egungo historialarietako batzuek, postmodernismoaren eraginez, zatikatuta azaltzen dute ikergaia, eta kontakizunari garrantzia ematen. Mikrohistoria dugu horren adibide esanguratsuena, eta hortxe du kokalekurik egokiena mikrohistoriak.

Gizarteko eragileak, prozesu ekonomikoak, administrazioaren politikak... behatzeko aukera ematen digun mikrokosmosa dugu tokiko historia, eremu txiki batean bateratzen baitira guztiak.

Erraz kontrolatzeko modukoak dira faktore horiek guztiak, eta komunitate jakin bateko interesen dinamika aztertzeko lagungarri. Hezkuntzari dagokionez, azpimarratzekoa da Pedro Viterik eskolak sustatzeko egindako lana eta haren jarduera filantropikoa, baita Bruneten eta eskualdeko beste zenbait eragile ekonomikorena ere. Baina, batez ere, beste zer bat dugu deigarri: eskolako deituren egoera kaotikoa. Urnieta ez da salbuespena, egoera historiko baten adibide baizik. Bertan, elkarren ondoan egoten ziren udal eskolak, patronatu eskolak, eskola pribatuak, partikularrak, nazionalak, publikoak, graduatuak, landa eskolak... Zer zela eta horrelako nahaspila? Bada, hezkuntzako legediak horretarako aukera ematen zuelako. Eskola mota horietako bakoitzak bere ezaugarri bereziak zituen, tokian tokiko gizartearen premien araberakoak.

Irakaskuntzaren testuingurua ere oso kontuan hartu beharrekoa da egoera ongi ulertzeko, eta horrela egin dugu monografia honetan; hots, eskola, alfabetizazioa, eskolako asistentzia, neska-mutikoen adina, lan merkaturako sarrera, euskararen egoera... nahitaez hartu behar dira aintzat. Horrek guztiak du garrantzia, izan ere, baita herritarren premietara egokitutako irakaskuntza eskaintzeko tokiko eta probintziako agintarien kezkak ere. Herriko historia jorratu behar da, nahitaez, gai horiek guztiak ongi aztertzeko, hura baitute adierazpide. Historia mota horri esker, bestalde, Urnietan irakaskuntza sustatu izan duten zenbait pertsonaiaren gaineko oroitzapena ere berreskuratuko dugu. Badu garrantzia eginkizun horrek, sarritan berreskuratu behar izaten baitu historialariak erdi ahaztuta egon arren funtsezkoak izan diren pertsonaien memoria, batez ere hezkuntzaren alorrekoena.

Honenbestez, bihoazkie nire zorionik beroenak lan honen egileei, Euskal Herriko hezkuntzaren historiari egin dioten ekarpenagatik eta horretarako hautatu duten ikuspegiagatik. Gero eta beharrezkoagoa dugu ikuspegi hori herrien memoria historikoari eta herritarren hezkuntzarenari eusteko.

Paulí Dávila
Euskal Herriko Unibertsitatea
Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila

AURKEZPENA

Azterlan honen abiapuntua hiru alderditan oinarritutako ikerketa izan da: agirietan, bibliografietan eta landa lanetan, alegia.

Lehen alderdiari dagokionez, Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoko, Gipuzkoako Artxibo Probintzialeko, Hernaniko eta Urnietako Udal Artxiboetako eta Urnietako Parrokiako Artxiboko agiriez baliatu gara gure lana egiteko.

Urnietako Udal Artxiboan, datu historiko asko aurkitu ditugu, batik bat Udalaren eta Lehen Hezkuntzako Udal Batzordearen aktetan, eta hirigintza espedienteeetan. Beraz, lanean zehar Urnietako irakaskuntzari buruz aipatzen diren datu guztiak, bestelako oharrak adierazita dauzkatenak izan ezik, fondo horretakoak dira.

Aztertutako liburuen zerrenda bukaerako bibliografian dator.

Elkarrizketei dagokienez, Antonio Izagirre (1920an jaioa), Kontxi Zaldua (1924), Ramon Etxaniz (1928), Maritxu Rekondo (1928), Maritxu Miner (1935), Juanito Arruarte (1941), Izaskun Miner (1947), Mikel Izagirre (1949), Maripi Sarasola (1949), Joseba Lizeaga (1959) eta Sabina Arruarte izan dira gure solaskide eta informazio emaileak.

Azkenik, hamaika laguni eman behar dizkiogu eskerrak gure lana mamitzen laguntzeagatik. Aipa ditzagun, bada: Jon Unanue eta Manuel Larramendi Kultur Bazkuna zein Iñistorra Euskara Elkarteko gainerako kideak, Eulali Aranburu Urkizu eta Ana Sáenz de Urturi (andereñoak), Antxon Aguirre Sorondo, Sebastián Kerejeta eta Luis Lerchundi (ikertzaileak), Iñaki Aranzadi (parrokoa), Marijo Henriques (artxibozaina), Pablo Fernández eta Ernesto del Blanco Ormazabal (oblatuak) aitak, Anselmo Unanue (herritarra), eta lagundu diguten gainerako guztiak.

URNIETA

Urnietak lau haran zituen bere baitan: Lategi, Goiburu, Ergoien eta Otzaran. Nafarroako Antso erregeak XII. mendean Donostiari Forua eman zionean, lau haranek osatutako jurisdikzioa, besteak beste, hiribildu berriari atxikita geratu zen.

Ez dakigu zehatz-mehatz Urnieta noiz bihurtu zen Udal independente, baina XIV. mendearen bukaerarako bere ordezkaria bidaltzen zuen Gipuzkoako Batzar Nagusien lehen bileretara. Beraz, ordezkari propioa izateak ordurako gune independentea zela uzten du agerian.

Halako batean (ez dakigu zehazki noiz), egoera aldatu egin zen, ordea, ziur aski biztanleen artean sortutako desadostasunen ondorioz. Udala hiru eremutan zatitu zen, eta eremu berriak Donostia, Hernani eta Aiztondoko alkatetza nagusiaren (Asteasu, Astigarraga, Larraul eta Sorabilla ere hartzen zituen) jurisdikziopean geratu ziren, hurrenez hurren.

Horrela jarraitu zuten, zatituta, 1614ra arte. Urte hartan, bat egitea eta hiribildua sortzea erabaki zuten. Urte luzeak eman zituzten jurisdikzioetatik bereiz-

Urnietako ikuspegirik zaharrena (1901).

teko izapideak egiten, eta azkenean, 1660an, Batzar Nagusiek *su* (Demografia dentsitatearen araberako boto kopurua) guztiak –ordura arte Aiztondo, Hernani eta Donostiaren artean banatuta egondakoak– aitortu zizkioten Urnietari.

Berriz elkartu eta udalerri ofizial bihurtu ondoren, 295 biztanle ziur eta dudazko 22 zituela egiaztatu zuen Urnietak[1]. Izan ere, garai hartan, kaparetasun ziurtagiria eta gutxieneko ondare egiaztatua zeuzkaten eta adin nagusikoak ziren gizonezkoak hartzen zituzten "biztanletzat". Beraz, "biztanle" horietako gehienak familia buruak zirela eta etxe bakoitzean batez beste bost lagun inguru biziko zirela kontuan hartuta, XVII. mendean Urnietak 1.300-1.500 bat biztanle izango zituen. Biztanle kopuru horren arabera, bistakoa da eskola sortzeko adina haur bazeudela herrian. Halaxe hasi zen sortzen irakaskuntzaren historia gure Udalean.

1. Amuategui, Teresa. *Urnieta.* Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia. 1976. 37. or.

URNIETAKO HEZKUNTZARI BURUZKO LEHEN BERRIAK

1573an, Gipuzkoako Batzar Nagusiek erabaki garrantzitsua hartu zuten Hernaniko bileran: aurrerantzean, toki guztietako alkateek irakurtzen eta idazten jakin beharko zuten. Agindu hori eta errealitatea ez zetozen bat, inondik inora, lurraldeko herri askotan ez baitzegoen alkate izateko derrigorrezko baldintzak betetzen zituen biztanlerik: baliabide ekonomiko jakin batzuen jabe izatea eta alfabetatuta egotea. Handik mende batera, 1682an, Batzar Nagusiek dekretu bera onartu zuten berriz, aurreko aldian nonbait ez zutelako helbururik lortu. Gipuzkoako herrietan lehen letren eskolak ireki zituztenean aldatu zen egoera.

XVII. mendetik aurrera, haurrentzako gelak irekitzeari ekin zioten Gipuzkoan, hasieran biztanle pribatuen dohaintzei esker (XVIII. mendearen bukaeran), eta denboraren poderioz, Udalen kontura. Hernanik aurrera hartu zuen hizpide dugun alorrean, 1599an maisua zuten eta[2]. Geroago, besteak beste, Orion (1605etik)[3], Legazpin (1614)[4] eta Legorretan (1625)[5] ere maisuak hartu zituzten.

Urnietako Viteri eskolak 1914an.

2. Aguirre Sorondo, Antxon. *Hernani y los hernaniarras: retazos de siglos*. Kutxa Fundazioa. Donostia. 1998.

3. Aguirre Sorondo, Antxon. *Los siglos de Orio*. Prentsan.

4. Aguirre, Juan. *Legazpi, burdinezko bihotza*. Legazpiko Udala eta Eusko Ikaskuntza. Legazpi, 2005.

5. Aguirre Sorondo, Antxon. *Legorreta: la vida en un meandro*. Udala. 2004.

Hasieran, parrokiako apaizek ematen zituzten eskolak. Lehenbizi doktrina irakasteari ekin zioten, baina geroago erlijioaz bestelako ikasgaiei eman zieten sarbidea. Urnietan ere, apaiz batek eman zituen eskola sortzeko lehen urratsak, eta berririk zaharrenak maisu apaiz batez mintzo zaizkigu.

1675eko abuztuaren 5ean Sebastián de Eguzquiza[6] eskribau andoaindarraren aurrean egindako testamentuan, bere azken nahia adierazi zuen Nicolás de Azconobieta parrokoak. Haurrentzako eskola sortzea nahi zuenez, Miranda izeneko etxearen erdia maisuaren bizilekutzat erabiltzeko utzi zuen (dokumentu guztietan ortografia eguneratu eta zuzendu egin dugu, hobetu irakurtzeko eta ulertzeko):

> Yten digo y declaro que, por cuanto en esta dicha Villa de Urnieta, de mucho tiempo a esta parte no ha habido ni hay escuela, erudición, ni enseñanza de la Doctrina Cristiana que se da a los muchachos así en leer, escribir y contar, y por la mucha intención y voluntad que tengo de que en esta dicha Villa haya escuela y que enseñen la doctrina Cristiana, leer, escribir y contar a los muchachos, para que ellos se apliquen a la virtud y sus padres y dueños se animen a ello, es mi voluntad que la otra mitad de la casa de Miranda, comenzando desde la sala que está a pie tierra de sobre la bodega de la dicha casa hasta el tejado, según lo que está cerrado y atajado, con sus aposentos, cocina y demás repartimientos que están hechos en la dicha mitad de casa, juntamente con su parte de huerta... para que en la dicha mitad de casa, que es la que cae hacia la parte de Idiazabal... sea para la habitación de maestre escuela que la dicha Villa pusiere[7].

Hiruzpalau hilabetetan azken nahian adierazitakoa betetzen ez bazuten, maisuarentzat utzitako eraikina bere oinordekoek jasoko zutela gaineratu zuen testamentuan "mitad de la casa de Miranda, con su huerta y el lugar para 4 pipas de sidra". Parrokoa hil eta gero, ordea, 1679ko azken egunetan, oinordekoek eta Urnietako Udalak beste erabaki bat hartu zuten, ados jarrita: Miranda etxearen erdia oinordekoen esku geratzea, eta beste bat eraikitzea eskola eta maisuaren etxea bertan kokatzeko[8]. Azkenik, Valenteguía etxea erosi zuten. Francisco de Egoabil eta bere emazte María Beltrán de Abásolorena zen, eta hiribilduaren plazan zegoen. Parrokoaren oinordekoek etxe berria eraikitzeko materialak erosita zeuzkatenez, horiekin beste bat egitea "fabricase otra con 8 ó 9 tiendas para la feria" pentsatu zuten: urteko azokarako eraikina, 8 edo 9 dendaz osatua. 1680ko azaroan, Valenteguía etxearen eta herentziaren balioa finkatu zuten: lehenengoari 847 dukat eta kobrezko 7 errealekoa; bigarrenari, aldiz, 994 dukatekoa. Balioztapenarekin ados ez zeuden biztanle batzuek Iruñeko gotzaindegira jo eta errekurtsoa aurkeztu zuten[9]. Desadostasunek luzaroan iraun zuten, 1688ko otsailaren 8ko bilera berezian udalbatzak botere bereziak eman baitziz-

6. Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa. III. sek., 1.231. leg., 33. fol.

7. Urnietako Parrokia Artxiboa. "Documentos de actualidad". 2. leg.

8. Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa. III. sek., 1.230. leg, 450. fol.

9. Idem.

kien abokatuei, auzian udalaren alde jardun zezaten. Azkenik, martxoaren 1ean, behin betiko kontratua sinatu zuten Egoabil-Beltrán de Abásolo senar-emazteekin[10].

Litekeena da, beraz, Urnietako lehen eskola eta maisuaren etxea Valenteguía etxean, plazan kokatua, izatea, eta beharbada 1688 edo 1689 aldera irekiko zuten.

Aurkitu dugun Urnietako maisu kontraturik zaharrena 1695eko urtarrilaren 3koa da. Ordura arte haurren maisu izandakoa, Matheo de Lavayen, hil egin zenez, Bautista Barcaíztegui apaiza "clérigo de epístola", Urnietan jaioa eta bertako biztanlea, kontratatu zuten sei urterako, ikasleei idazketa, doktrina eta gaztelania "escritura, doctrina y lengua castellana" irakasteko.

60 erreal ordaintzen zizkioten urteko: erdia urtarrilaren 6an, Epifania eguneran, eta beste erdia irailaren 5ean. Ikasleen familiei bidezko kopururen bat "alguna cantidad justa" kobratzeko baimena ere ematen zioten, soldata osatzeko. Valenteguía etxeko gela bat utzi zioten, musu truk, ez baitzuen inolako errentarik ordaindu behar. Dokumentuan zehazten denez, etxea zuela gutxi berreraiki zuten, eta bertako beste gela batean ematen zituzten eskolak. Lur eremu bat ere utzi zioten maisu berriari, baratzea ezartzeko[11].

1705ean, Mathías de Castañeda maisu errenteriarra kontratatu zuten. Bautista de Barcaízteguiren soldata erdia (30 dukat) finkatu zioten, eta horrekin bizitzerik ez zuenez, udal erlojulari izendatu zuten, ordura arte ofizio horretan ibilitakoak, Ramos de Icuzak, kargua utzi egin zuelako. Horixe bera egin zuten beste hainbat udaletan ere: Legazpian, adibidez, erlojua zaintzea maisuaren zeregina zen[12].

1706ko otsailaren 3an, Kontzejuak eta Mathías de Castañedak beste kontratu bat sinatu zuten. Honako hauek ziren baldintzak[13]:

1. Beste lau urtez, kontratuko datatik aurrera, eskolak ematen jarraitzea.

2. Haurrei irakurtzen, idazten eta zenbatzen irakastea. Eginkizun bakoitzaren truke, zenbateko jakin batzuk kobratuko zizkien gurasoei: irakurtzen irakasteagatik kobrezko erreal bat urteko, idazten irakasteagatik bi, eta zenbatzen irakasteagatik lau. Gurasoek eskudirutan edo aleen bidez ordaintzeko aukera izango zuten.

3. Hurrengo hiru urteetan parrokiako erlojua zaintzea, eta beharrezkoa zenean giltza ematea eta koipeztatzea. Konponketa txikiak maisuak ordainduko zituen, eta handiak Kontzejuak.

---

10. Idem.

11. Idem. III. sek., 2.630. leg., 3. fol.

12. Aguirre, Juan. *Op.cit.*

13. Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa. III. sek., 2632. leg., 21. fol.

4. Eskola eta maisuaren bizitokia Valenteguía etxea izango zen, eta ondoko lur batzuez ere baliatu ahal izango zuen.

5. Zortziko 40 erreal ordainduko zizkioten urteko: 30 eskolak emateagatik eta 10 erlojua zaintzeagatik.

Asmoak asmo, Mathíasen egoera ez zen nonbait gehiegi hobetu, kontratua bukatu baino lehen utzi baitzuen lana. Orduan, bi izangai aurkeztu ziren maisu lanposturako: Pedro de Miner hernaniarra eta Esteban de Mutiozabal usurbildarra. Udalak Andoaingo maisuari, Diego de Atorrasagastiri, aukeraketa egiteko eskatu zion. Eta bi izangaien ezaugarriak aztertu ondoren, Mutiozabal iruditu zitzaion egokiena. 1709ko maiatzaren 5ean, hiru urterako kontratua egin zioten, aurreko maisuaren baldintza berberetan, baina beste betebehar bat gehituz: bi mutikori Ostegun eta Ostiral Santuko prozesio nagusietako kantak irakastea. Hona hemen jatorrizko testua:

> Que los días de las procesiones generales, del día de Viernes Santo y la noche del Jueves Santo haya de salir en ellas con los muchachos que eligiere de su escuela vestidos por sus padres y deudos en la forma que se estila, enseñándoles las canciones que causen devoción.

Maisu usurbildarrak urte asko eman zituen Urnietan. 1716ko azaroaren 11n, beste zortzi urterako kontratua sinatu zuen, eskersari eta guzti: 36 erreal eta zilarrezko bi maisu lanarengatik, eta kobrezko 8 dukat erlojua zaintzeagatik. Zenbateko horiek urtero jaso zituen[14].

Urnietako mutilen eskola Miguel Frago Frago maisu zela (1935).

14. Idem. III. sek., 2645. leg., 228. fol.

1731n, udaletxe berria eraikitzeko lanak bukatu[15] eta, gure herrietan ohikoa zen bezala, bertara eraman zuten eskola. Orduan, Agustín de Icuza maisu zirujaua joan zen bizitzera Valenteguía etxera. 1734an, 17 errealeko errenta ordaintzen zuen urteko. Valenteguía etxearen historia 1837an bukatu zen betiko, Lehen Karlistaldiko borrokaldietan hiribilduak jasandako sutean erre baitzen[16].

Urnietako udaletxe berri dotoreko areto bereizi batean, eskolako gela zegoen. Oso osagai gutxi zituen: suontzia "un brasero o caja de tabla enladrillada para lumbre", hiru eserleku luze idazten ikasten ari zirenentzat eta beste hiru irakurtzen ikasten ari zirenentzat. Irakurtzen eta idazten ikasten ari zirenak bereizita esertzeko ohitura oso errotuta zegoen antzinako eskoletan, ikasleak multzoka kokatzen baitziren, ikasgaien arabera: *leyentes* (irakurketa), *escribientes* (idazketa) eta *contadores* (zenbaketa) deitzen zieten. Mathías de Castañedari 1706an egindako kontratuan ongi ikusten da hori guztia, gurasoek ikasgaien arabera zenbat ordainduko zuten zehazten baita: kobrezko erreal bat urteko irakurtzen ikasteagatik, bi idazten ikasteagatik eta lau zenbatzen ikasteagatik.

Bestalde, eskolako ordutegiari buruzko lehen berria 1793koa da. Ikasleek 6 ordu ematen zituzten egunero gelan: goizeko 8:00etatik 11:00etara eta arratsaldeko 1:00etatik 4:00etara. Eguzkiaren argia aprobetxatzeko eta haurrak, baita urrutien bizi zirenak ere, eguerdian baserrietara itzuli ahal izateko ezarri zuten ordutegi hura. Jaiegunetan maisuarekin elkartu eta meza nagusira joaten ziren denak batera, bezperak eta errosarioa errezatzera[17].

Miguel de Iriarteren kontratua 1735eko otsailaren 25ean sinatu zuten. Bertan berariaz zehazten denez, udaletxe berriko goiko solairuko etxebitza-logela, ganbara, zalditegiko plaza bat eta erretore etxearen ondoko baratzea erabili zitzakeen maisu berriak. Miguel de Iriartek lau urterako kontratua sinatu zuen. Kobrezko 60 dukateko soldata ordaintzen zioten urteko, eta beste 12 dukat, horiek ere urteko, erlojua zaintzeagatik[18]. 1745ean beste bederatzi urtez luzatu zioten kontratua, baina ezaugarri berria erantsi zuten: ordura arte ez bezala, gurasoengandik ezingo zuen inolako kopururik jaso zuzenean[19].

Urnietako udaletxeak bi sute larri jasan zituen: bata Independentzia Gerretan zehar (1811ko urtarrilaren 17an) eta bestea Lehen Karlistaldian (1837ko irailaren 8an). Bi gertakari horietan, berreraikitze lanak bukatu arte eskolaren egoitza beste eraikin batean finkatu zutela pentsa daiteke.

Hirurteko Liberalean (1820-1823), Espainian titulazioak eskatzen hasi ziren irakaskuntzan aritzeko, baina eskakizun hori ez zen lege bihurtu beste mende bat pasatxo igaro arte. Joseph Joaquín de Vicuña urnietarra 1801eko abendua-

15. Idem. III. sek., 2636. leg., 53. fol.

16. Amuategui, Teresa. *Op.cit.* 68. or.

17. Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa. III. sek., 2675. leg., 133. fol.

18. Idem. III. sek., 2637. leg., 14. fol.

19. Idem. III. sek., 2654. leg., 203. fol.

ren 30ean jabetu zen karguaz. Tituludun maisua zen, San Casiano izeneko akademian ikasia "maestro aprobado por la academia de San Casiano". Madrileko San Casiano Ermandadeak maisu izangaien gaitasuna neurtzen zuen XVII. mendetik, eta 1780an Ikastetxe Akademiko bihurtu zen[20]. Vicuñari lau urterako kontratua egin zioten lehenbizi, eta kobrezko 200 dukateko soldata finkatu zioten urteko, maisuen soldatak arautzen zituzten Errege Aginduekin bat "de acuerdo a la Real Orden del 25 de abril de 1798 y la del 20 de diciembre de 1798 expedidas por el Supremo Consejo de Castilla"[21]. 1807ko urtarrilaren batean, beste bederatzi urterako luzatu zioten kontratua, baldintza berberetan, baina epea bukatu aurretik utzi zion lanari[22].

1813ko urriaren 1ean, José Arrue urnietarrak Lehen Letretako Maisu titulua eskatu zion Foru Aldundiari. Horretarako, bataio agiriaz gain (1788ko otsailaren 17an jaio zenez, 25 urte zituen artean), hiru testigantza aurkeztu zituen, ohitura oneko gizon zintzoa eta elizkoia zela eta maisua izateko gainerako gaitasunak zituela egiaztatzeko "que es sujeto de buena vida y costumbres, frecuente en los Santos Sacramentos y de notoria abtitud y demás cualidades apetecidas para el Magisterio de primeras letras". Adar guztiei buruzko azterketa teoriko eta praktikoak egin zizkion "teórica y prácticamente en todos los ramos" Joaquín Jusdek, Tolosako maisu titularrak. Guztiak gainditu ondoren, 1813ko azaroaren 28an, maisu izateko gaitasuna aitortu zion aztertzaileak[23]. José de Arrue bere jaioterriko maisua izan zen 1813tik[24] 1840ra arte[25]. Bi luzapen kontratuek gaur egunera arte iraun dute: lehenengoa 1818ko abuztuaren 13koa da[26], eta bigarrena 1836ko uztailaren 26koa[27].

Bitartean, Habanara bizitzera joandako Urnietako seme batek, José Martín Vidaorrek, ondasun batzuk bere jaioterriko udalari uztea erabaki zuen, zenbait premia asetzeko. Testamentuan premia horiek zehazten ditu, eta besteak beste, irakaskuntza aipatzen du[28]:

> (...) trescientos pesos fuertes o sea 6.000 r. para el hospital de pobres; 100 pesos para el médico-cirujano; 200 pesos para costear un maestro de primeras letras; 100 pesos para dotar anualmente a la doncella más pobre a juicio del Alcalde y del Párroco, debiendo ser distinta cada año; 200 pesos como donativo a los patronos y los 200 pesos restantes para cubrir con parte de

20. Ruiz Berrio, Julio. *Colegios y escuelas de Madrid en el Antiguo Régimen*. Cuadernos de Historia Moderna. Eranskinak. 2004. III 113-135. Madrilgo Unibertsitate Konplutentse. Lineako baliabidea.

21. Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa. III. sek., 2679. leg., 136. fol.

22. Idem. III. sek., 2682. leg., 17. fol.

23. Gipuzkoako Probintzia Artxiboa. JD.IM.4/6/18.

24. Murugarren, Luis. *Urnieta.* Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia. 1974. 142. or.

25. Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa. III. sek., 2704. leg., 219. fol.

26. Idem. III. sek., 2688. leg., 214. fol.

27. Idem. III. sek., 2702. leg., 119. fol.

28. Amuategui, Teresa. *Op.cit.* 133. or.

> ellos los gastos de traslación del dinero desde La Habana a Urnieta y el dinero sobrante para distribuirlo entre los pobres naturales y vecinos de Urnieta. Las limosnas a los pobres no habrán de bajar de dos pesos ni pasar de cinco. El cirujano y el maestro han de curar y enseñar sin interés alguno a los pobres naturales y vecinos de Urnieta. La asignación de la dote a favor de la doncella más menesterosa deberá de hacerse todos los años el día de San José patrono del señor Vidaor, después de celebrada la misa mayor en la iglesia de Urnieta y el señor Párroco, en aquel acto, deberá exhortar a la agraciada a que encomiende el alma de su bienhechor.

José Martín Vidaor 1845ean hil zen Kubako hiriburuan.

José Antonio Zabalori maisu laguntzaile lanpostua eman zioten 1847an. Hurrengo urtean titulu ofiziala lortu zuen, eta 1863an Urnietako maisu titular izendatu zuten. Aurretik, Probintziako Batzar eta Aldundietako idazkariak, Martín Urreiztietak, maisu izangaiaren idazkera dotorea, zehatza eta paregabea goraipatu zuen txosten batean, Zabalok Ama Birjina Sortzez Garbiaren definizio dogmatikoaren buldari buruzko euskarazko itzulpenaz egin zuen kopia oinarri hartuta "traducción en lengua Bascongada de la Bula de la definición dogmática de la Purísima Concepción de la Virgen María"[29]. Luis Murugarreni esker beste xehetasun bat ezagutu dugu: Hiribilduko Parrokiaren Artxiboan gordeta dagoen Urnietako hilobi zaharren zerrenda baten kopian, Zabalo maisua "el buen pendolista Zabalo, maestro de escuela" agertzen dela[30]. Izan ere, garai hartan, kaligrafia dotoreak heziketa ona ematen zuen aditzera.

Gela unitarioa zen, hau da, sei eta hamalau urte bitarteko haurrak elkarrekin zeuden, ikasgela berean eta maisu berarekin. Oso neska gutxi joaten ziren eskolara, emakumeen hezkuntza oro har ez baitzen beharrezkotzat hartzen. Urnietan, nesken eskolari buruzko lehen aipamenak XIX. mendearen erdialdekoak dira. Neska-mutilek bereizita ikasten zuten. Horra zer zioen Pascual Madozek Urnietako irakaskuntzari buruz 1849an argitaratutako Hiztegi (*Diccionario*) ospetsuan[31]:

> Hay una escuela de niños concurrida por unos 50 y dotada con 4.000 rs. y de niñas, a que asiste igual número de discípulas, pero la maestra no tiene asignación fija.

Ikusten denez, nesken gelaren hornidura ez zegoen ziurtatuta. Baina hurrengo hamarkadan egoera aldatu egin zen nonbait, 1862ko maiatzean irakasle plaza jabetzan eman baitzioten Narcisa de Aldasorori. Maistra berriak, Oinarrizko Lehen Hezkuntzako titulua zuela, bi urte zeramatzan bertan behin-behineko kontratuarekin[32].

---

29. Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa. III. sek., 3216. leg., 4. fol.

30. Murugarren, Luis. *Op.cit.* 128. or.

31. Madoz, Pascual. *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesione*s. Madril. 1849. Reedición Biblioteca Santa Ana. Almendralejo. 1992. T. XV. 228. or.

32. Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa. III. sek., 3216. leg., 5. fol.

Maisu-maistra tituludunak ekinean hasi ondoren, irakaskuntzaren kalitatea eta ofizioak gizartean zuen ospea areagotu egin ziren, ezbairik gabe, baina soldatekin ez zenez halakorik gertatu, irakasleek enplegu anitzetan jarraitu behar izan zuten aurrera egiteko. XIX. menderako, jadanik ez zegoen maisu bizargin eta odol ateratzailerik (Legazpian 1636)[33], baina Gipuzkoako irakasle asko eta asko erlojuzain edo sakristau aritzen ziren aldi berean, Berrobiko sakristauak 1884an idatzitako gutunean agerian geratzen denez:

> El que suscribo a VV.SS. atenta y respetuosamente expongo: que en pueblos pequeños, o sea, en pueblos que son, poco más o menos idénticos en vecindario a este de Berrobi, se agrega generalmente el cargo de sacristán a los demás cargos que ejerza el Maestro del pueblo, arreglando y señalando una remuneración módica, una remuneración regular, es decir un auxilio, un alivio (...) para llevar la sujeción que imponga el referido cargo de Sacristán (...)[34].

Ez dakigu Urnietan halakorik gertatzen zen, baina argi dago maisuek, mendez mende, hezkuntzaz bestelako zereginetan aritu behar izan zutela soldata osatu eta aurrera egiteko.

33. Lasa, José Ignacio. *Legazpia.* Donostiako Aurrezki Kutxa. 1970. 93. or.

34. Garmendia Larrañaga, Juan. *Seroras y Sacristanes (etnografía e historia)*. Tolosa, 2007.

VITERI ETA AZKORTE

Pedro Viteriren ekarpena hezkuntzaren alde

1905eko urtarrilaren 4tik 5erako gauean, Urnietako udaletxea zeharo kiskali zen ustekabeko sute baten ondorioz. Lau horma baino ez ziren zutik geratu[35]. 1811ko eta 1837ko suteen ondoren, udaletxea konpondu arte beste toki batera eraman zuten eskola, baina 1905ean, dena zeharo suntsituta zegoenez, ez zegoen ikasgela konpontzerik. Eskola berriak behar zituzten, baina Udalak ez zuen dirurik.

Orduan, misiolari oblatuek komentuko lokal bat utzi zioten Udalari aldi baterako, mutikoek ikasten jarraitu zezaten. Bestalde, Oztatuberri etxea alokatu zuen Udalak, nesken eskola eta maistraren etxebizitza bertan kokatzeko. Idiazabal kalean zegoen, eta Udalak 80 pezeta ordaintzen zituen hilero. Egokitzapen lantxo batzuk ere egin behar izan zituzten, eraikina moldatzeko.

Eskola berriak eraikitzeko premiak eraginda, Pedro Viteri Aranarengana jotzea erabaki zuten. Pedro Viteri Arana Arrasaten jaio zen, 1833ko uztailaren 18an. Aita arabarra zuen eta ama gipuzkoarra. Pedrori eta bere anaia José Bernabéri hezkuntza ezin hobea eman zieten, lehenbizi Baionako Lizeora eta ondoren Ingalaterrara bidaliz. Aita hil ondoren (1847), semeen esku geratu ziren negozioak, eta inbertsio bikainak egin zituzten Madrilen, Londresen eta, bereziki, Parisen. Hain zuzen, azken hiriburu horretara joan zen bizitzera Pedro, 1874an.

Pedro Viteri Arana.

Viteritar anaiek, elkar hartuta, ondasunak jaioterriari uztea erabaki zuten, gizarte probetxuko zereginetarako erabili zitzaten. José Bernabé hil zenean, Miarritzen bizitzea erabaki zuen Pedrok, eta handik Gipuzkoako errealitatearekin harremanetan jarri zen berriz. 1893an, Esteban de Garibay historialariaren Arrasateko jaiotetxea berreraikitzeko lanak ordaindu zituen. Udal Epaitegia ezarri zuten eraikin berrian. Arrasaten eskolak eraikitzeko dirua utzi zuen azken nahietan,

35. Amuategui, Teresa. *Op.cit.* 87. or.

baina azkenean bizirik zegoela ordaindu zituen lanak. 1902an, Pedro Viteri eskolak inauguratu eta fundazioa ere sortu zuen hauek diruz hornitzeko.

Hurrengo urteetan Gipuzkoako udaletan eskolak eraikitzeko dirua ematen jarraitu zuen gure ongileak. 1905erako, Pedro Viterik berebiziko itzala zuen haur hezkuntzaren filantropo handia izateagatik. Urnietarrek bazekiten norengana jo laguntza bila, kinka larri hartan.

1906ko abuztuaren 17an, Pedro de Viteri Urnietara etorri zen Juan José Aguinaga arkitektoarekin batera. Egoera udal arduradunekin aztertu ondoren, herriari laguntzea erabaki zuen. Hurrengo hilabeteetan eskolak eraikitzeko lursaiak erosi zituzten:

> (...) un terreno sembradío de extensión superficial de cuatrocientos veinti cuatro metros cuadrados y setenta y siete centíemtros, propiedad de doña María Garmendia, confinante por Oriente con camino carretil por mediodía con terrenos de d. Agustín Michelena y don Laureano Belaunzaran, por Oeste con el de don José Trecu y por Norte con el de doña Gregoria Arizmendi.

Lanei ekin aurretik zenbait lur erauzketa egin behar zirenez, bizilagun batzuek beren burua eskaini zuten, eta ahaleginen truke, bakoitzak ateratako lurra eraman zuen "mediante compensación de su trabajo con la tierra que cada uno de ellos extraiga".

Urnietako eskolarekin batera, Hernanikoa ere eraiki zuten Viterik emandako diruarekin, eta biak batera inauguratzea erabaki zuten: 1907ko azaroaren 17an, hain zuzen. Egun hartan autoa alokatu eta goizean Miarritzera abiatu ziren bi udaletako alkateak, On Pedro Viteriren bila. Arratsaldean bueltan eraman zuten berriz. Bi eskoletan protokolozko ekitaldiak egin ondoren, eskerroneko bazkaria egin zuten Hernanin, eta urnietarren izenean alkate lehendakariak, Laureano Belaunzaran Berridik, lehen alkateordeak eta idazkariak hartu zuten parte. Dohaintza eskriturak ere egun horretan sinatzeko asmoa zuten arren, atzeratu egin zen azkenean, eta abenduaren 2an sinatu zituzten (ikusi transkripzioa *Dokumentuak* atalean).

Pedro Viterik 20.000 pta eman zituen Urnietako eskolak eraikitzeko, baina aipatzekoa da beste udal batzuetan askoz ere kopuru handiagoak jaso zituztela: Arrasaten 200.000 pezeta, eta Hondarribian eta Irunen 80.000 baino gehiago (bakoitzak). Halako dirutza handiak eman ondoren, 1906rako ongilearen zorroa oso murriztuta zegoen. Pedro Viterik 774.600 pezeta gastatu zituen guztira, hamar eskola eraikiarazteko Gipuzkoako beste horrenbeste udaletan: Arrasaten, Hondarribian, Errenterian, Pasai Antxon, Pasai Donibanen, Irunen, Donostian, Aretxabaletan, Hernanin, eta azkenik Urnietan. Izan ere, gure herriko eskola izan zen euskal ongile ohoretsu handiak "meritísimo patricio bascongado" hil aurretik eginarazi zuen azken lana[36].

---

36. Ferraz y Turmo, Vicente. *Biografía del merítisimo patricio bascongado Excmo. Sr. Don Pedro de Viteri y Arana, protector de la enseñanza*. Donostia. 1908.

Pedro de Viteri 1908ko maiatzaren 22an hil zen. Berria ezagutu bezain laster, pertsonaia handi horren ohorezko plaka ezartzea erabaki zuen Urnietako Udalak.

Dirudienez, Pedro Viterirekin egindako gestioetan eta eskola berria eraikitzeko lanetan zuzenean parte hartu zutenen artean, José Alvaro Otaegui Larrea nabarmendu zen. Zegaman jaioa 1859an, Juana Julita Zabala Loinaz urnietarrarekin ezkondu zen 1887an. Udal eskolako maisua, musikako irakaslea, parrokiako organista eta udal zergen administratzailea izan zen. 44 urtetan irakaskuntzan egindako lan paregabea eskertzeko "memorables servicios prestados como encargado de la enseñanza durante 44 años", 1928ko uztailaren 19an Urnietako seme izendatzea erabaki zuen udalbatzak. Alvaro Otaegui 1935eko ekainaren 27an hil zen.

1934ko azaroan, eskola nazionaletan haur gehiegi zegoela eta "En razon de que actualmente el excesivo número de niños y niñas que acuden a las escuelas nacionales viene creando un verdadero conflicto", bi eskola unitario sortzeko eskaria egin zuen Udalak. Horren truke, beharrezko lokalak uzteko eta material pedagogikoa eta maisuen soldatak ordaintzeko konpromisoa hartu zuen. 1936 urte hasieran, eskaria onartu eta bi gelentzat behar ziren zabaltze lanak egingo zirela jakinarazi zien Ministerioak.

Bitartean, 1935eko ekainean, J. de Irizar arkitektoak Eskola Nazionalak eraberritzeko proiektua idatzi zuen, Udalak eskatuta. Aurrekontua 40.555,44 pezetakoa zen, eta Errepublikako gobernuak zati bat ordaintzeko asmoa zuen. 1935eko irailaren 1ean, lehiaketarako deialdia egin eta lizitazioak aztertu ondoren, Ángel Azurmendi hernaniarrari eman zizkioten lanak, 37.505 pezetaren truke.

Gerra Zibilaren ondorioz lanak bertan behera geratu ziren, ordea. 1938ko abuztuan, arkitektoarekin harremanetan jarri zen alkatea, aurrera egiteko prest zegoen jakiteko. Hala egin zuten hurrengo urteetan, lanak erabat burutu arte.

Eskola Nazionaletako maisu-maistrak

Urnietako Eskola Unitario Nazionaletara edo Viteri Eskoletara (izen hori ezartzea zen fundatzailearen nahia, baina herritarrek *Nazionalak* edo *Azkortekoak* deitu zieten beti) Urnietako herriguneko haurrak, Lategi eta Ergoien haranetakoak eta Oztarango eremu batekoak joaten ziren. Lau gela zeuden: bi neskenak eta beste bi mutilenak. Lehen adierazi bezala, eskola unitarioak ziren, alegia, gela berean maila eta adin guztietako haurrak egoten ziren.

Mutilen 1. eskola

1935-36 ikasturteko maisu titularra Miguel Frago Frago zen, eta 39 haur zituen gelan. Gerra hasi zenean alde egin zuen maisuak, eta 1937ko urtarrilaren 19an María Navarro Cabari eman zioten behin-behineko postua. Gironakoa, San Bernabé de Tena herrikoa, zen maistra berria.

1937ko abenduaren 1ean, Arturo del Barrio Rodríguez bitarteko maisu izendatu zuten. 3.000 pezeta ordaintzen zizkioten urteko. 1939ko irailaren 30ean lanpostua utzi zuen, eta Pedro Ibarrola Sáenz hartu zuten haren ordez, behin-behineko kontratua eginez.

1943ko urriaren 2an, Mutilen 1. Eskola Nazionaleko bitarteko maisu postua Víctor Martínez de Albéniz y Ruiz de Gaunari eman eta 5.000 pta-ko soldata ezarri zioten urteko. 1944ko urtarrilean Félix Rosas Ruiz jabetu zen plaza horretaz, eta abenduaren 1etik aurrera José Luis Ibáñez Alonsoren esku geratu zen.

1945eko martxotik abuztura bitartean, Ricardo Ayet López aritu zen maisu. Urteko 6.000 pezetako soldata finkatu zioten, eta kopuru bera jaso zuen abuztutik aurrera Antonio Oyarbide Arrondo bitarteko maisuak ere.

1947ko azaroan, Félix Rosas Ruizek maisu postua hartu zuen berriz. Hogei mutiko zeuden matrikulatuta: hamabost egunero joaten ziren eskolara, baina beste bostak inoiz ere ez. 1952an maisu berberak jarraitzen zuen ekinean, etxebizitza Urnietako udaletxean zuela.

Mutilen 2. eskola

1935-36 ikasturtean, Eusebio Zorzano Falces zen bitarteko maisua, eta 37 mutikori ematen zizkien eskolak. Gerran frontera joan zenez, 1937ko urtarrilaren 29an, behin-behineko kontratua egin zioten Maria Deó Medáni. Uña-Aránekoa (Lleida) zen maistra berria.

1938ko urtarrilaren 22an, María Luisa Echániz Martínez hasi zen eskolak ematen, hura ere plaza finkorik gabe. 4.000 pta-ko soldata ezarri zioten urteko. Martxoaren 11n beste bitarteko maisu bat, Zenón Santamaría Sanmartí, hasi zen bigarren gelan, diru gutxiagoren truke (3.000 pta). Zenónek ekainaren 13an lanpostua utzi eta Antonio Miserachs Coca hasi zen haren ordez, eta beranduago, azaroaren 8tik aurrera, Eusebio Zorzano Faces.

1940ko irailaren 30ean, Emiliano Machinandiarena Urnietako bigarren mutilen eskolako bitarteko maisu izendatu zuten, urteko 4.000 pezetako soldata finkatu ondoren. Baina Hernialden plaza lortu eta 1940ko azken egunean Urnietako lanpostua utzi zuen. Orduan, Domingo Loinaz Otaño izendatu zuten maisu, soldata berarekin. Baina handik hilabete gutxira, bidali egin zuten, sarritan berandu iristen zelako eta beste hainbatetan ez zelako lanera joaten. Loinaz Otañok kanpoan bizi zela adierazi zuen bere portaera zuritzeko. Crescencia Larrad Mendozak ordezkatu zuen, baina maistra berriak ere lanari utzi zion irailaren 30ean, eta Manuel Múgica Alberdi hartu zuten orduan.

1945eko urtarrilaren 15ean, José Luis Ibáñez Alonsok mutilen 2. eskolako maisu izateari utzi zion, behin-behineko kontratua zuela (ikusten denez, agirietan, 1. mutilen gelako maisutzat ere azaltzen da 1944ko abenduaren 1etik aurrera. Beraz, beharbada jatorrizko erregistroetan errataren bat egongo da).

1945eko otsailaren 1ean, Ricardo Bayet López jabetu zen lanpostuaz, eta azaroaren 30ean Manuel Múgica Alberdik utzi egin zuen, bi hilabetez bitarteko irakasle izan ondoren.

Ordura arte lehen gelako behin-behineko maisu izandakoa, Antonio Oyarbide Arrondo, 2. gelako irakasle titular izendatu zuten 1946ko irailaren 25ean.

1946ko urriaren 2an, Jacinto Viedma Martínez hasi zen maisu. Urnietan etxebizitzarik ez zuenez, Altzora joan zen bizitzera, eta Lehen Hezkuntzako Ikuskaritzak joan-etorrien gastuak ordaintzera behartu zuen Udala. Urnietako Udala ez zegoen ados erabakiarekin, eta arrazoi hauek eman zituen: Viedmak inoiz ez zuela Urnietan bizitzeko asmorik izan, emaztea Altzoko maistra zelako, eta bikotea bertan bizi zelako. Beste proposamen bat ere egin zuten: eskolan hain haur gutxi zebiltzanez, bi gelak bateratzea dirua aurreratzeko. Ikuskaritzak ez zuen proposamena onartu, eta maisuari laguntzera behartu zuen Udala.

1947ko azaroan, 16 haur zeuden matrikulatuta, eta gehienak maiz joaten ziren eskolara.

1952an, Jacinto Viedma Martínezek jarraitzen zuen maisu. Urte hartan, Urnietako Eskola Nazionaletako irakasle guztiei 1.500 pezeta ematen zizkieten urtero, etxeko alokairua ordaintzen laguntzeko. Oriako eskoletako irakasleek, aldiz, 900 pezeta jasotzen zituzten urteko. Ildo horretan Félix Rosas zen salbuespen bakarra, lehen aipatu dugun bezala, udaletxean bizi baitzen.

Pepita Camposen nesken ikasle taldea plazan 1930an.

Nesken 1. eskola

1920ko maiatzaren 6tik aurrera, Francisca Pérez Álvarez izan zen eskolako maistra. 1936-1937 ikasturtean, 42 ikasle zituen. 1952an ere ekinean jarraitzen zuen oraindik.

Nesken 2. eskola

1936ko apirilaren 15ean, jabetzako lanpostua eman zioten Dolores Soro Fríasi. Ikasturte hartan, 46 neskato matrikulatu ziren maistra berriaren gelan.

María Nieves Aramburu Isasa bitarteko irakasle izendatu zuten 1944ko abenduaren 1ean. 5.000 pezetako soldata ezarri zioten urteko. Baina hilabete horren bukaeran, María Rosario Arzamendi Otaeguik ordeztu zuen. Denboraren poderioz, María Rosariok Campijoko (Araba) eskola mistoan irakasle titular plaza lortu eta utzi egin zuen Urnietakoa. 1946ko urriaren 2an, Serapia F. Gorrochategui Apalategui izendatu zuten maistra, eta 1952an eskolak ematen jarraitzen zuen.

Azkorte-Egape Ikastola

Ikastolen mugimenduaren sorrera[37]

Euskara irakaskuntzan txertatzeko desioa errotuta zegoen Euskal Herriko gizartean XVIII. menderako, baina XIX. mende bukaerara arte saioak ez ziren gau-

Maripi Sarasola eta Arantxa Etxeberria Egape ikastolako lehen ikasle taldearekin (1969).

37. Auñamendi entziklopedia. Boza: “ikastola”.

zatu. Agustin Iturriaga hernaniarrak lan ugari idatzi zituen euskarak irakaskuntzan eragiten zion kezkaren inguruan, Iztuetari eginiko gutunetan irakur daitekeen bezala: «Orain dala saspi urte humechoaquin dempora iragotcen nubenean esagutu nuben cer eraqueria andia eguiten zan emengo escoletan erderas gaztiai iracurtcen eracustearequin, izanic milla bider errasago eusqueraz icastea eta eracustea». Hori zela eta, 1830ean Arrasaten bildurik zeuden Batzar Nagusiei igorritako salaketa batean Gipuzkoako irakaskuntzaren egoera saminki deskribatu zuen Iturriagak. Euskara irakasteko beharraz ohartarazi nahi izan zituen batzarkideak. Kezka horrek bultzatu zuen lehen lanak egitera. Izan ere, 1841ean *Arte de aprender la lengua castellana para el uso de las escuelas de las primeras letras de Guipúzcoa* 85 orrialdeko lana agertarazi zuen eta, 1842an, *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa*.

Urte batzuk beranduago, 1896-1897 ikasturtean, Resurrección Mª de Azkuek, Bilbon, Colegio Ikastetxea sortu zuen, mutilek euskara ikasi eta garatu zezaten lehen hezkuntza zentroa. 1899ra arte bakarrik iraun zuen ekimenak, baina Azkuek irakaskuntza euskalduntzeko ekimenean tinko jarraitu zuen. 1905 eta 1914an, Azkuek ekindako bideari jarraituz, euskara ikasgai gisa eskaintzen zuten bi ikastetxe inauguratu zituzten Bilbon.

1914 urte garrantzitsua izan zen ikastolen historian. Urte hartan sortu zuen Miguel de Muñoak Donostian Koruko Andre Mariaren Ikastetxea deitutakoa, eskolaurre zein lehen hezkuntza euskaraz ematen zituzten bertan. Halako arrakasta izan zuen zentroak 1916an gela kopurua handitzeko beharra izan zutela. 1918an, Eusko Ikaskuntzak Oñatin egin zuen Lehenengo Batzarrean, Muñoaren lana goratu zuten partaideek. Luis de Eleizalde, Eduardo de Landeta, Leoncio Urabayen eta Adelina Méndez de Torrek eskaini zuten batzar hartan irakaskuntzaren inguruko mintzaldia, eta beraiek izan ziren egoera linguistikoari aipamen berezia egin ziotenak. Eleizaldek herritarrek euskarazko eskolak sortzeko ideia eman zuen, txekiarrek Matitse Skolska eskoletan egin zutenari jarraituz.

Pixkanaka, ikatola gehiago sortzen joan ziren Euskal Herrian barna: Tolosan (1921), Errenteria (1928), Soraluze (1932), Bergara (1932), Iruñea (1932), Lizarra (1932), Gasteiz (1933), Elizondo (1935)... Hamarkada berean Oñati, Segura, Irura eta Andoainek ere beren ikastola propioa inauguratu zuten. 1932an, Bilbon, Eusko Ikastola Batza sortu zuten EAJren emakumeen sailak eta Eusko Gaztedik «Euskal Eskolaren obra handia garatzeko». Federazio honek Bizkaian lan egin zuen eta 1936ra arte jarraitu zuen. Sustatzen zituen ikastetxeen ezaugarri nagusiak hauek ziren: herrikoia, gizarte maila guztiei irekitakoa, guztiz euskalduna, guztiz kristaua eta korronte pedagogiko berriei zabaldutakoa. 1936an, ikastola Euskal Herrian zabaltzen ari zen erakundea zen jada. Baina Gerra Zibila eta ondorengo diktaduraren etorrerarekin, euskarazko irakaskuntzaren garapena guztiz eten zen. Euskal irakaskuntza, pedagogian aditu eta irakasle ugari erbestera joatera behartuta aurkitu ziren eta asko ez ziren sekula itzuli.

Gerra Zibila bukatuta, ikastolaren mugimenduan zutarri garrantzitsu izan zen Elvira Zipitria, Muñoa ikastolako irakasle izandakoa, Sarako erbesteratzetik Donostiara itzuli eta, 1943an, berak eta guraso talde batek euskarazko irakas-

kuntzari berriro ekitea erabaki zuten, etxe batean ikastola txiki bat antolatuz. Zipitriak Donostiako Alde Zaharreko bere etxean biltzen zituen haurrak. Hain zen txikia eskola eta hain eskasak horretarako zituen baliabideak, ez zuela inongo susmorik eragin klandestinitatean egiten zuen lanak. Inoiz ez ziren hamar baino gehiago izaten eskolak jasotzen zituzten gaztetxoak eta egunean bi orduz biltzen ziren irakaslearen etxean. Ikasgaiak lau alorretan banatzen zituzten: euskara, matematika, erlijioa eta esperientziak. Hizkuntza, kultura herrikoitik zein Orixe edo Lizardi idazleen lanetatik aukeratutako abesti, poesia, ipuin eta abarren bidez lantzen zuen; irakurri eta idazten zein matematika ikasteko txotxak erabiltzen zituen. Erlijio formakuntzari garrantzia handia ematen zion Zipitriak, harreta berezia jartzen zion.

60. hamarkadan gehiago izan ziren Donostian ikastolak zabaldu zituzten andereñoak. Bilbon, 1957an ekin zioten lan berari, Iruñean 1963an eta Gasteizen 1966an. Urte hartan sortu zen baita Urnietako Egape Ikastola. Hain justu Elvira Zipitria izan zen euskarazko ikastetxearentzat Egape izena proposatu zuena, babesa adierazten zuela esaten baitzuen berak.

Alderdi pedagogikoari dagokionez, Elvira Zipitriak ezarritako irizpideak jarraitu zituzten 60. hamarkada ingurura arte. Ordurako, ikastola izugarri handitu zen eta aldaketa garrantzitsuak eragin zituzten antolakuntza, ideologia eta pedagogiari dagokionez. Euskal Herrian industria indartsu zegoen garai hartan eta urbanizazio prozesu garrantzitsua gertatzen ari zen. Gurasoek beren seme-alabentzat irakaskuntza euskalduna nahi zuten eta irakasleek euskararen irakaskuntzarako konpromiso sendoa adierazi zuten, oso lan baldintza txarretan lan egiteko prest baitzeuden. Gipuzkoak izan zuen Euskal Herrian ikastolen mugimendu sendoena eta azkarren sortu zena. Gizartearen egoera ekonomikoa ona zen, ikastetxeak finantzatzeko gastuari aurre egin ziezaieketen herritarrek (obrero kualifikatuak, enplegatuak, merkatari txiki eta ertainak, langile ez kualifikatuak eta nekazari zein arrantzaleak).

Ikasle kopuruaren bilakaera urtez urte

Ikasturtea	Ikasle kopurua					
	Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Bizkaia	Iparraldea	Guztira
1964-65	22	520	—	54	—	596
1969-70	171	5.770	348	1.958	8	8.255
1970-71	334	8.181	765	2.591	14	11.885
1971-72	376	10.673	950	3.157	47	15.203
1972-73	486	13.245	1.377	3.755	101	18.964
1973-74	677	15.272	1.631	4.938	175	22.693
1974-75	1.026	17.971	1.892	5.822	225	26.936
1975-76	1.429	21.325	2.158	8.634	305	33.851
1976-77	1.812	25.314	2.621	10.977	341	41.065
1977-78	2.654	29.652	3.094	13.422	382	49.204
1978-79	3.293	31.423	3.744	14.875	390	53.809
1979-80	4.277	34.733	4.909	16.136	474	60.529
1980-81	5.086	37.145	5.369	17.157	516	65.273
1981-82	5.509	39.128	5.727	19.107	564	69.935

Iturria: *Siadeco, 1964-65etik 1974-75era. Ikastolen Elkarteak: 1975-76tik 1981-82ra.*

Egape Ikastola

Urnietako zenbait gurasoren artean ere, kezka sortu zen 60. hamarkada bukaeran: seme-alaben irakaskuntzaren kalitatea. Gaztetxo horiek euskaraz ikasteko aukera izatea eta hizkuntza honi gizartean merezi zuen tokia emateak bultzatu zituen Egaperen sustatzaileak ikastolaren proiektuari ekitera.

Sabina Arruarte urnietarrak ordurako bazekien inguruan ikastolen mugimendua errotzen ari zela, Hernaniko Urumea ikastola ere sortuta zegoen eta. Nik, garai hortan, lau urteko alaba nuen eta etxean eduki edo mojetara bidali beste irtenbiderik ez nuen. Hainbeste umerekin batere ikasten ez zutela iruditzen zitzaigun, alferrikakoa zela beste ikastetxeetara bidaltzea. Geure kabuz ikastola sortu genezakeela pentsatu nuen orduan, zailtasunak zailtasun, dena alegala baitzen. Hernanira jo nuen eta Batxillergoa zuen norbait behar nuela esan zidaten. Garai hartan inork ez zuen horrelakoetan sartu nahi, legez kanpo ari baikinen», gogoratu du Sabina Arruartek.

Maripi Sarasola garai hartan Arizmendi ahizpen jostundegi akademian aritzen zen, eskola amaituta zuen eta bere amaren ilusioa berak josten ikastea zen. Sabina Arruartek jostundegi hartara jo zuen irakasle bila eta Maria Arizmendik (Maria Kaxetas) bultzatu zuen Maripi lan horretan hastera. «Josten ikastera joaten ginen beragana eta han ezagutu ninduen. Berak ikusi zuen nik balio nezakeela ikastolari ekiteko», kontatu du Sarasolak. Eta asmatu zuen, izan ere, Maripi Sarasolak 1966an ikastola sortu zenetik proiektu berean lanean jarraitzen du, eta lanarekin gozatzen, gainera.

Sabina eta Maripi Lazkaora joan ziren Hiazinto Fernandorena herritarrarekin hitz egitera. Bera lan handia egiten ari zen ikastola munduan, ikastolak sortzen, materiala euskaratzen eta iraskuntza zein pedagogia metodoak eskuratzen. Elvira Zipitriarekin batera, lan handia egin zuen ikastolak herrietara zabaltzen, eta Donostiako andereñoen prestakuntzarako Andereño Eskolan ere parte hartu zuen. Urnietako ikastolak ere bere aholkua jaso zuten.

Ondoren Urumea ikastolan praktikak egiten hasi zen Maripi titulua zuen andereño baten gidaritzapean eta handik Urnietako ikastolan eskolak ematera pasa zen, magisteritza titulua ateratzen ari zela. Berehala sortu zuten eskola batzordea Maria Arizmendi, Xabier Larretxea, Benantxio Laskibar eta Antselmo Unanuek. Eskolaurreko 16 haurtxorekin hasi zen, 16 urte besterik ez zituela. Proiektua finantzatzeko, ikastolaren sustatzaileak etxez etxe hasi ziren diru bila, hamar pezeta eskatzen zizkieten gurasoei hilean. Batzuek ematen zuten eta beste batzuek ez. Tonbola ere jarri zuten dirua ateratzeko.

Ikastolaren sorreran izandako beste babes garrantzitsua parrokiak, eta bereziki Don José Goya orduko apaizak, emandakoa izan zen. «Berak uzten zigun dirua ateratzeko tonbolan *Caritaserako* izena erabiltzen», gogoratu du Sabinak. Elizondo Zinema zenean elizak zituen lokaletan hasi zen Maripi haurrekin. Inspektoreak saihesteko nahikoa lan izaten zuten: «Halakoetan mendira eramaten genituen haurrak». Izan ere, Urnietara iritsi baino lehen inspektorea Andoainera joaten zen eta bertatik Egapera deitzen zuten abisatzeko. Inspektorea Urnietako

Haurrak mendian jolasean (1969).

Egape ikastolara iristen zenerako hutsik egoten zen. Eskolako kartilak lortzea ere ez zen batere lan erraza. Sei urterekin derrigorrezkoa izaten zuten ikastetxeek kartilak ematea, baina ofizialak ziren eta ikastolak ez zuen inolako ofizialtasunik, guztiz klandestinoa zen. Hori dela eta, Eskola Nazionaleko irakaslearekin hitz egin eta berak esan zuen neskei kartilak beteko zizkiela eskola hartara joango balira bezala, baina tren azpira erorita hil egin zen eta batere gabe geratu ziren. Horietan zeudela 1967an parroko berria iritsi zen Urnietara: Jose Ignacio Goya. «Ikaragarri azkarra zen paperak egiten eta hark jarri gintuen legez, Elizaren babesean», gogoratu du Sabinak.

1966 eta 1967an, Euskaltzaindiak, 1965ean Bilboko Resurrección Mª Azkue ikastolak legeztatzea lortu ondoren, Hezkuntza eta Zientzia Ministroari euskararen etorkizunaren inguruko kezka adierazi eta eskoletan hizkuntza sartzeko beharra adierazi zion. 1968an Gobernadore Zibilak «baimenik gabeko zentroetan haur ugari» daudela esan eta bere kontroletik kanpo daudela adierazten duen zirkular bat zabaldu zuen. Are gehiago, zenbait neurri ere hartu zituen ikastolen kalterako: baimenik gabeko zentroak zabaltzeko debekua eta daudenak legeztatzeko beharra. Egoera hori ikusita, guraso elkarteek Elizara jo zuten, honek bere irakaskuntza zentroak legeztatzeko nahikoa gaitasun juridiko baitzuen. Urnietan, don Jose Goyaren babesa izan zuten.

1968ko azaroan Urnietako Lehen Hezkuntzako Juntak inspektorearen bisita zela eta egindako bilerako aktan honakoa jasotzen da:

> Se refiriere a las escuelas privadas o parroquiales. El señor párroco (don José) dice que la ikastola que funcionaba antes se ha suprimido por no ser titulada la señorita que la regentaba y que actualmente están en preparación los locales para los maestros titulados que han de ejercer una vez se arreglen los trámites necesarios.

Baina ordurako bi urte zeramatzaten Maripi Sarasola eta beranduxeago iritsi zen Arantxa Etxeberriak ikastolan, egunero, lanean eta gero eta ume gehiago ziren ikastolara joaten zirenak. «Ilusio handia genuen, itxaropena. Baina zalantza asko sortzen zituzten bitarteko ugari zeuden tartean. Ikastola zertarako? Euskara etxerako bakarrik zen, ikasketak egiteko ez zen ikusten euskara inolaz ere. Gurasoen zalantzarik handiena hori zen, zein prestakuntzarekin aterako ote ziren umeak», gogoratu du Maripik. Ikastolen mugimenduaren hastapenetan etorkizunak kezka eragiten zuen, baina itxaropenak aurrera bultzatu zituen. Gurasoek lokal zaharra txukundu eta bertako gelak handitzeko lanak egin zituzten, izan ere, beraiek izaten ziren lokalak txukundu eta atontzen zituztenak eta kalefakzioaz ere arduratzen ziren.

1968koa urte garrantzitsua izan zen ikastolen mugimenduarentzat. Garapenerako krisia hasi zen, ikastolaren proiektuaren inguruko eztabaida sakonari ekin baitzitzaion. Eztabaida ugari izan ziren eta erabaki asko hartu behar izan ziren, ez bakarrik legeztatzea bermatzeko, baita euskara bateratuaren ingurukoa, ikasleen erlijio hezkuntzaren ingurukoa...

Urnietan gero eta handiagoa egiten hasi zen ikastola, gero eta zerbitzu gehiago eskaintzen zituen. 1973an, ikastolan hasitako lehen ikasleak Andoaingo Larramendi ikastolara joan ziren OHOko 6, 7 eta 8. mailak egitera, Urnietako ikas-

Juxto Egaña ikastolako zuendaria ikasle taldearekin (1975).

tolak ez baitzeukan horretarako baimenik. 1978an 6. maila egiteko aukera izan zuten ikasleek.

1980an, Elizak utzitako lokaletatik Lizardi kaleko eraikin berrira pasa zen ikastola «ikastola berrira». Haur Hezkuntzako ikasleak, aldiz, frontoiko eta Burnibide kaleko aretoetan kokatu zituzten. Ordurako Gipuzkoako Ikastolen Federazioak elizaren babesa alde batera utzi eta erakunde zibil bihurtzeko erabakia hartu zuen. 1989an ikastolako ondarea administrazioaren eskuetara pasa zen eta Galileo 2000 preteknologia gela eta informatika gela sortu zituzten.

Jaialdi, zozketa, erakusketak... denak ziren beharrezkoak hazten ari zen ikastolen hezkuntza sistemari laguntza ekonomikoa emateko, erakunde publikoetatik jasotako laguntzak ez baitziren nahikoa ikastolen etorkizuna bermatzeko. 1977ko urriaren 16an Beasainen, lehenengo Kilometroak festa antolatu zen eta izugarrizko arrakasta izan zuen. 1990ean, Andoaingo Larramendi ikastolarekin batera, urte horretako Kilometroak festa antolatu zuen Egape ikastolak egoera ekonomikoa hobetu ahal izateko eta, bultzada horri esker, 1991an Haur Hezkuntzako eraikina estreinatu zuen Lehen Hezkuntzako eraikinaren ondoan.

1995ean ikastola publiko bihurtu zen. Eztabaida luze eta gogor baten ondorio izan zen, baina erabakia hartuta Urnietako hezkuntza publikoarekin, Azkorte ikastetxearekin, bat egin zuen. Hemendik aurrera bateratzetik sortutako fruituak Egape Ikastola izena hartuko zuen. Bi ikastetxeetako Organu Gorenek ere bat egin zuten.

«Prozesu gogorra izan zen. Publiko eta ez publiko oso justu ateratzen zen, kopurua oso berdinduta zegoen. Ikastetxe pribatu gisa aurrera jarraitzeko zailtasun ekonomikoak zeuden eta beti ematen dizu pena zurea den zerbait ematea. Zure ondarea galtzeko beldurra, ordura arte egindako esfortzu guztia uztea. Ziurtasuna ere ematen zuen. Nahiko gorabehera eta borroka izan ziren. Ekonomikoki beti zaude hobeto eta bitarteko hobeak daude publiko izanda. Baina ez da zurea, nolabait administrazioek zuzentzen dute. Baita irakasleak ere, lehen Juntak aukeratzen zituen irakasleak eta herrikoa izatea lehenensten zen. Zuk bazenekien zein hartzen zenuen, eta sistema publikoarekin ez du zerikusirik, Administrazioak irakaslea bidali egiten dizu. Ez dut esan nahi hobea edo okerragoa denik, baina beti dituzu zure zalantzak, jende berria sartu-ateran ibiltzen da. Eta lehen bazenekien zein zenuen ondoan», gogoratzen du Maripik.

Egape ikastolak bere metodologia propioa mantendu zuen, eta Azkorteko irakasleek egoera berrira moldatu behar izan zuten. Ikastola handiagoa zenez, honen metodoa aplikatu zuten. 1996an, eskola mapa berriarekin batera, Urnietan Bigarren Hezkuntzako ikastetxea sortu zen.

Egape ikastola + Azkorte ikastetxea: Egape Ikastola Publikoa

Lehenengo urtean, 1996an, 1 eta 2. DBH mailatan bakarrik hasi ziren. Guztira, hiru gela. Administrazioak 50.000 pezetako aurrekontua eman zuen eta diru horrekin ekin zitzaion etapa berriari.

«Metodologia geurea (ikastolakoa) jarraitu genuen. Horretan zortea izan genuen, gutxiago zirelako Azkortekoak. Ezkontza guztietan izaten dira halako gorabeherak, baina ondo moldatu gara», uste du Maripik. Izan ere, publifikazioaren alde egitearen faktore garrantzitsua bitarteko ekonomiko hobeak lortzeko aukera zen.

Publifikazioa gurasoen kooperatibaren gehiengo nabariak hartutako erabakiarekin onartu zen eta horretarako zerikusi handia izan zuen garai hartan Eusko Jaurlaritzak egindako eskaintza: ikastetxearen kudeaketa osoa bere gain hartzea eta Urnietan Bigarren Hezkuntzarako ikastetxe publiko bat jartzea, ikasleek aurreko etapan hasitako ikasketak bertan buka zitzaten.

Modu horretan, DBHrako zentro publikoaren lorpena eta antzinako eskolaurre eta OHOko ikastola pribatuaren publifikazio prozesua erabat uztartuta egon ziren eta batak bestearengan eragina izan zuen. Harrezkero, Urnietak Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara doan eskaintza publikoa izan du eta bi ikastetxeak, Egape Ikastola izena erabiliz, nahiz eta legalki burujabeak izan, eskola erakunde eta pedagogia arloetan koordinatuta agertu dira eta gaur egun horretan jarraitzen dute.

Beraz, LOGSEren ezarketa eta EAErako eskola maparen behin betiko onarpenarekin, antzinaiko OHOko herri ikastetxea gaurko DBHkoa bilakatu zen, horretarako legeak eskatutako gutxienezko eta premiazko egokitzapenak eginez: hainbat tailer, bainugelak... Baina laster nabaritu ziren egoera berrira harrapaka egokitutako instalazio zaharkituen gabeziak.

Egape Ikastolak hezkuntza erakunde bezala pluralistatzat du bere burua, beraz, guraso, irakasle eta ikasleen aukera politiko, sozial eta erlijiozko guztien elkarbizitza eta errespetoa indartzeko helburua du. Haurrak gizarteratu ahal izateko besteekiko eta norberekiko errespetoan oinarrituriko balore demokratikoak landuko ditu, besteak beste, solidaritatea, askatasun zentzua eta tolerantzia azpimarratuz.

Ikastolak ikasleen indibidualtasuna kontuan hartuz, hezkuntza integrala bilatzen du, ikasleak dituen gaitasun guztiak garatzen saiatuz. Haurtzaroko menpekotasunetik abiatuz, heldutasun eta autonomiarantz bideratzen laguntzen saiatzen dira, bere erabakiak hartzeko ahalmena emanaz eta erabaki horien erantzule izateko jarrerak bultzatuz. Gainera, ikastola bere ingurunera irekita egongo da, errealitatea arakatzeko eta gaiak aberasteko kalera irtetzea interesgarria deritzonez, eta era berean bere barne ekintzak ezagutzera ematen saiatuko da kultur jardueratan parte hartuz. Eta euskara gure herriaren hizkuntza eta kulturaren ardatz dela jasotzen du ikastetxeak. Hildo horri jarraituz, ekitaldiak antolatzen jarraitu zuen ikastetxeak. 1996ko abenduan Santo Tomaseko feria gimnasioan ospatzen hasi zen ikastola.

1997an DBHko bigarren zikloari ekin zitzaion eta irakasle lizentziatuak iritsi ziren. Urte batzuetan, ikasturte amaierako festa Xoxokan ospatu ondoren, Lizardi kaleko eraikinean antolatzen hasi ziren.

1998an Santo Tomaseko feria Jakutegi plazan egiten hasi ziren aurrenekoz eta ikasturte amaierako jaialdia Aste Kulturala izatera pasa zen. Lehen orientatzailea DBHn lanean hasi zen. 1999an DBHko lehen promozioa atera zen. Arantzubiko eraikina, bi urteko gelakoentzat egokitu zen eta jangela zerbitzua eskaini zen.

2000. urtean, DBHko eraikin berria eskatzen hasi ziren guraso, irakasle eta zuzendaritza taldeko kideak. Udala eta Administrazioa harremanetan hasi ziren, DBHko bigarren zikloko irakasle finkoak iritsi ziren urte berean.

Ikastetxeko jarduera eta ekimen pedagokikoek aurrera jarraitu zuten eta 2001ean, Egape Ikastolako dantza taldea Juanito Sanchisen ardurapean hainbat urtetan egon ondoren, Edu Muruamendiaraz puntako dantzariak berrikuntzak ekarri zituen eta talde berria osatu zuen. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako guraso elkartea sortu zen. Aballarri ikastolako informazio aldizkariari itxura berria eman zitzaion: formato berrian eta koloretan argitaratzen hasi zen hiruhilero. Lehen Hezkuntzako haurrentzat, gitarra eta txalaparta jarduerak eskaini ziren eguerdian.

2002an premia egitasmoa dela eta ordenagailu berriez hornitu zuten BHI. Ikastetxeko web orria sortu zen eta HH eta LH euskararen normalkuntza planean sartu ziren.

Azkorte ikastetxearen irudia 2007ko urrian.

Egungo egoera

Urnietako ikastetxeko irakasle, zuzendaritza talde zein gurasoek etorkizuneko Bigarren Hezkuntzako eraikin berria lortzeko lanean jarraitzen dute 2000. urtean horren beharra antzeman zutenetik. Bigarren Hezkuntzako ikastetxea kokatuta dagoen orubearen jabetza Udalarena da, baina bere gestioa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren esku dago.

Egun, bi erainenek osatzen dute Egape Ikastola ikastetxe publikoaren azpiegitura. Antzinakoena, 1907 urtean Viterik emandako diruarekin eraikitakoa, zaharkituta gelditu da. Nahiz eta, zenbait alditan, ikastetxea ikuskatu duten Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzako teknikoek adierazi honek erabilpen eta bizigarritasunerako gutxieneko baldintzak betetzen dituela, bere akatsak nabariak dira: ate eta leihoak ixteko arazoak, gaizki aprobetxatutako espazioa, banaketa desegokia, berogailu elektrikoen gastu ikaragarria, zaindu gabeko mantenimendua, arkitektura oztopoak, gelen zaharkitzea, funtzionaltasun eza... 688 metro koadroko azalera du, bi solairutan banatuta. Azpiegitura ez da inoiz aldatu. Gaur egun, beheko solairuan, Natur Zientzietako laborategi zaharkitu bat eta bere egoera kaskarragatik erabiltzen ez den gimnasio bat daude. Lehen solairuan Zuzendaritza, Ikasketa burua eta Idazkaritza biltzen dituen bulego partekatu bat dago. Horrez gain, plastika tailerra, erabilera anitzeko aretoa (ikasgela, liburutegia...) eta bi komun daude.

Ondoan duen eraikinak 1.092 metro karratu inguru ditu, 1970. urtekoa da eta aurrekoaren erantsi bezala eraiki zen OHOko ikastetxe bezala erabiltzeko. Etapa hori bukatu eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bilakatu zenean funtzio horretarako presaka egokitutakoa zela nabari zaio hogeita hamazazpi urte beranduago. Lau solairu ditu, bertan, ikasgela arruntak, informatika eta teknologia gelak, sukaldea, jangela, irakasle gela, duela gutxi eraberritutako bulegoak eta komunak daude (hiru solairuetan). Beste eraikinak bezala hesi arkitektoniko nabariak ditu, Hezkuntza Saileko teknikariek maiz egiaztatu bezala. Aipatutako bi eraikinak futbol-kantxa kokatzen den 642 metro karratuko jolas zein jardueretarako gune batekin osatzen dira. Bertako zoluaren egoera ere ez da egokia, hondatuta baitago.

Gaur egungo DBHko ikastetxeak Urnietako gazteak eskolatzen baditu ere, arduradunek diote ez dituela «hasiera batetik beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzen». Lurraldeko Hezkuntza arduradunek badaukate horren berri, sarri adierazi baitie Ikastolako Zuzendaritza taldeak egungo egoera. «Eboluzio bat izan da. Gaur egun, eraikin zahar honek ez ditu eskaintzen eraikin on batek behar dituen zerbitzuak. Ez da funtzionala, antolaketa guztiz desegokia du, gune desproportzionatuak ditu. Gutxienekoak beti ziurtatuta daude, noski, baina eraikin berria behar dugula uste dugu», azaldu du Manu Mariasek, Egape Ikastolako zuzendariak.

Urnietako biztanle kopurua gora egiten ari da eta Udalaren aurreikuspenen arabera, herriaren demografia hazkundea urte gutxitan 8.000 biztanlera irits daiteke. Gainera, jaiotze tasa ere igotzen ari da urteetako geldialdiaren ondoren. Errealitate sozial berriei egokitutako zerbitzu publiko duinen planifikzio eta hornikuntzaren beharra nabari dute zuzendaritza talde zein guraso elkarteak. Etor-

kizunari baikortasunez begiratzeko aukera ematen dute matrikula datuek DBH (113, 2007-2008 ikasturtean) eta Haur zein Lehen Hezkuntzan (426).

Baina kezka ere nabaria da ikastetxeko arduradunen artean. «Ez dakigu zenbat denbora egon beharko dugun hemen, Azkorteko eraikin zaharkituan», adierazi du Manu Mariasek.

2006-2007 ikasturtean, Egape Ikastolak zerbitzu berria jarri zuen abian: goizeko 7.30etik 18.00 bitarte ikasleen zainketa zerbitzua, eskola txikia. Gainera, 2007an liburutegia zabaldu dute eta jolasordu eta zenbait eguerdi eta arratsaldetan irekita egoten da irakasle eta ikasleen eskaerei erantzuteko.

Eta betiko kezkak, euskarak, bere horretan jarraitzen du. «Gure kezka euskara da, betikoa, orain ere erabilerarekin ari gara lanean. Ikasleek euskara ezagutu eta jakitea ziurtatu dugu, baina erabilera sustatu behar dugu. Adin batzuk txarrak izaten dira. Gauza asko egiten ditu ikastolak euskararen alde: liburu eguna, euskara eguna, festak... sustatzeko lanean jarraitzen dugu. Erabilera da orain geratzen den erronka», azpimarratu du Egape Ikastolan lanean jarraitzen duen ikastolako lehen andereñoak, Maripi Sarasolak. Urteek, gainera, publifikazioaren inguruan hasieran zituen beldurrak uxatzeko ere balio izan dute: «Oso irakasle jatorrak iritsi zaizkigu, oso irakasle onak ditugu. Etorri diren berriak ere oso onak dira, esperientzia handikoak».

Etorkizuna: Campusa

Egape Ikastolako gurasoen elkarte zein zuzendaritza batzordeak etorkizunerako eraikin berri baten alde gogor lan egin du. DBHko ikastetxe berria eraikitzeko gai diren erakunde administratiboekin, alegia, Eusko Jaurlaritza eta Udalarekin, harreman estuak izan ditu eskola komunitateak eta bi administrazioetako arduradun politikoek behin eta berriro azaldu dute berau egiteko aukera eta asmo sendoa.

Hasiera batean, Udalak (1998-1999 ikasturtean) Lizardi kaleko Lehen Hezkuntzako eraikinaren ondoan dagoen lur esparrua eskaintzeko aukerarekin jokatu zuen. Horretarako lurraren jabeekin harremanetan jarri zen, baina azkenean ez zien diru eskaintzarik egin. Dirudienez, eragiketa hau gaur egungo DBHko eraikinaren ordubeak duen balioarekin finantzatzeko asmoa zegoen, oraingo erabilpenetik libre Udalaren menpe geratzerakoan. Beranduago Udalbatzak Berrasoetan eskolarako lursail bat xedatzea onartu zuen baina, azkenean, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak ez zuen hau onartu, eraikitzeko gutxieneko baldintzak betetzen ez zituelako, hau guzti Udalak informe tekniko baten bidez argudiatu zuen arren.

Baliozko alternatiba gabezien aurrean, Hezkuntza Delegaritzako arduradunak gaur egungo zentroa zaharberritzeko aukera serioski pentsatzen hasi ziren, edo orube horretan dauden eraikinak bota eta berriak egitea, behar ziren aldaketak eginez. Proposamen hau Udalak atzera bota zuen, gaindiezinezko arazo legalak zeudela aipatuz.

Urnietako etorkizuna zehaztuko duten Arau Subsidiarioek argituko dute baita Egape Ikastolaren etorkizuna. Udalak Eusko Jaurlaritzaren esku orube bat jartzea hitzartu du. Eusko Jaurlaritzako Hekuntza Sailak 2010era arte eraikinak egiteko inbertsioen artean sartu du Urnietako Egape Ikastola, Egape-Lizardi dagoen gunean, hezkuntza campus bat sortzeko helburuari helduz. 2008an Udalak orubea bere izenean erregistratuta izango balu, bi urte beranduago etorkizuneko hezkuntza campusaren proiektua egiten eta lehen urratsak ematen has liteke Egape Ikastola.

Azkorte eskoletako eraikinaren etorkizuna. Kultur erabilera posibleak

Viteri eskola zaharra eta Azkorteko eraikinak hutsik geratuko dira hezkuntza campusa abian jarri bezain pronto. Ia 2.000 metro koadro eraikin Udalaren esku geratuko lirateke, beraz, Egape Ikastola tokiz aldatu ondoren.

Legealdi honetako (2007-2011) Gobernuaren lehentasuna Egape Ikastolaren eraikina eraikuntza prozesuan uztea da eta ez du gehiago lortzerik espero. Beraz, hurrengo gobernu taldearen esku egongo da eraikin zaharraren ustiapena eta orduan erabakiko dute honi eman dakiokeen erabilera.

Mikel Izagirre Urnietako alkatearen arabera, asko dira bertan egokitu daitezkeen lokalak eta kultur erabilera anitz izan ditzake eraikinak. Urnietako udal liburutegia txiki geratzen ari da, artxiboa ez dago baldintza egokietan eta Udalaren esku geratuko den eraikina aproposa litzateke biak uztartu eta ikasteko guneak egokitzeko zein ludoteka zerbitzua ere eskaintzeko.

Edonola ere, agintariek lau urte barru herriak dituen beharrak aztertu eta horiek kontuan hartuta egokitu nahi dute eraikina. Izan ere, aurreko gobernuak proposatu bezala, Mikaela-Enea kultur jardueretarako prestatzen bada, Urnietaren zenbait behar kultural asetuta egongo lirateke Viteri-Azkorteko eraikin zaharra hutsik geratzen denerako.

URNIETAKO BESTE IKASTETXE BATZUK

Lasarteko eskolak

Lasarte-Oriako egungo udalerria 1986an eratu zen, Oria eta Lasarte auzoak Urnieta, Hernani eta Andoaindik, hurrenez hurren, bereizi ondoren.

Lasarte auzoak eskola publikoa izan zuen 1824tik. Hernaniko auzo udaletxean zegoen kokatuta. 1847rako 31 ikasle zituen, neska-mutilak, eta mantentze gastuak (900 erreal inguru) Hernaniko eta Urnietako Udalek ordaintzen zituzten. Gastu horien banaketaren ondorioz hamaika ika-mika sortu ziren bi udalbatzen artean, gero eta larriagoak gainera, eta azkenean, 1861ean, Probintziako korrejidoreak hartu behar izan zuen parte auzia bideratzeko. Aipatutako gorabeherak zirela eta, eskola itxita egon zen hainbat urtez, 1863ra arte[38].

Eskola Nazional zaharren eraikina, egun udaletxea dagoen tokian.

38. Aguirre Sorondo, Antxon. *Oria. Una comunidad de vida, un espacio de trabajo*. Lasarte-Oriako Udala. 2007.

1931ko abenduaren 31n, Lasarteko Eskola Nazionalean (unitarioa zen, Urnietakoa bezalaxe) 7 eta 13 urte bitarteko 27 ikasle zebiltzan: 16 mutil eta 11 neska. Haur txikiak, 3 eta 6 urte bitartekoak, haurtzaindegira joaten ziren. Hernaniri atxikitako Lasarteko barrutian zegoen haurtzaindegia, eta hizpide dugun datan, 16 ikasle (3 urtetik 6ra) zituen.

1932ko uztailaren 22an, Nesken Eskola Nazional Graduatua ireki zuen, nola Hernaniri hala Urnietari atxikita zeuden Lasarteko auzoetako neskentzat. Urte hartan, Lasarte-Hernaniko eskoletan 239 ikasle zituzten: 196 Lasarte-Hernanin bizi ziren, eta 43 Lasarte-Urnietan.

Lasarteko eskolak etengabeko eztabaida iturriak izan ziren Hernaniren eta Urnietaren artean. Bi udalak aurrez aurre zeuden. Izan ere, Urnietako ikasleen gastuak ordaindu behar izatea neurriz kanpokoa iruditzen zitzaien hernaniarrei, eta garestiegia udalaren ekonomiarentzat. Bi udalek Lasarte auzoko irakaskuntza gastuak ordaintzeko sinatutako lankidetza hitzarmena bukatzear zegoela (1932ko amaiera arteko epea zuen), otsailean, akordioa bertan behera uzteko asmoa zuela jakinarazi zuen Hernaniko Udalak "por el actual exceso de asistencia escolar que obligaría a Hernani a la creación de otras graduadas". Hitzarmenaren epea bukatu zenean, Urnietako Udalak Oriako eskoletara eraman zituen bere ikasle lasartearrak. Dena den, aldi baterako konponbidea izan zen, nonbait, 1938an Lasarteko eta Oztaran aldeko 38 haur auzo horretako eskola nazionaletako ikasleak baitziren, Hernaniko jurisdikzioko eremuetan bizi arren.

Gerra Zibila bukatu ondoren, areagotu egin ziren arazoak. 20, 8 eta 2 urtez Urnietako haurrei eskolak doan eman zizkietela eta 1941-42 ikasturtetik aurrera ez zutela horrelakorik egingo jakinarazi zuten Lasarteko hiru maisu nazionalek "dando instrucción gratuitamente durante 20, 8 y 2 años respecticamente a los niños y niñas de Urnieta". Urnietako Udalak, orduan, maisu bakoitzari 500 pezeta ordaintzea erabaki zuen bertako 69 ikasleei eskolak emateagatik, behin betiko konponbideren bat aurkitu arte.

Baina konponbidea ez zen berehalakoan heldu, eta 1944ko uztailean, Urnietako jurisdikzioko haurren irakaskuntzaz gehiago ez arduratzea erabaki zuen berriz Hernaniko Udalak "desligarse de la prestacion de la enseñanza en sus escuelas del barrio de Lasarte, a los niños de la jurisdicción de este territorio, fundada en que resultan deficientes los locales para la actual asistencia".

Gaia ez aurrera ez atzera zegoela, erabaki salomonikoa hartu zuten azkenean: eskola bitan zatitzea, hots, gela berria sortzea, ikasleen erdia urnietarra eta beste erdia hernaniarra izanik. Horra nola jakinarazi zuen erabakia Urnietako alkateak, 1946ko maiatzean:

> Vista la matrícula de la escuela nacional de párvulos del barrio de Lasarte, que es de 89 niños, de los cuales 24 son de familias de ese municipio; la Comisión gestora de este ayuntamiento, considerando que ella es realmente excesiva para que la enseñanza dé el rendimiento debido, estimó de suma conveniencia la creación de un segundo grado, constituido por los niños de Urnieta, y por un número igual de Hernani, el cual pudiera encomendarse, con

> carácter provisional, a doña Ángela Delgado, que ha regentado hasta recientemente la escuela nacional de niños, asignándole un haber de 5.000 pts. a costear a medias entre los dos ayuntamientos.

Handik egun batzuetara, gela berria sortzea onartu zuten bi udalek.

1952an, Hernaniko Udalak Lasarteko eskoletako gastuen % 20 (materiala, berokuntza, etxebizitzen alokairua, garbiketa, etab.) ordaindu zion Hernanikoari. Halaber, 500 pezetako soldata ordaindu zieten urtero hiru irakasleei: Jesús Peñalver (mutilen maisua), Matea Elorza (nesken maistra) eta Fe Fanduli (haurtzaindegikoa).

1960ko udazkenean, eskola multzo berria eraikitzeari ekin zioten Lasarten. Sei gela egin zituzten, eta beste horrenbeste etxebizitza irakasleentzat. Urnietako Udalak eraikuntza lanetarako dirulaguntza ematea erabaki zuen, baina zenbat zegokion argi utzita: auzoko guztizko biztanleriaren seirena baino ez zenez urnietarra, 1/6 ordainduko zuen, eta kito, ezta pezeta bat bera gehiago ere.

1968rako Lasarte auzoan 12 gelaz eta etxebizitzaz osatutako multzoa eraikitzeko asmoa zutenez, urte hartako urrian jendaurreko enkanterako deialdia argitaratu zuten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, proiektua idatzita eta aurrekontuan finkatuta baitzeuden jadanik. Asmoak gorabehera, 1969ko maiatzean, Lasarteko eskolako horniduren egoera larria nabarmendu zuen lurralde ikuskatzaileak:

> para septiembre próximo en Lasarte se presenta un problema urgente y grave, porque en las 4 aulas de Zumaburu hay 190 niños y otros 90 que tienen que pasar de párvulos y propone al Ayuntamiento la habilitación provisional de 3 bajos hasta que se haga la construcción de las nuevas escuelas.

Oriako eskolak ere egoera tamalgarrian zeudela azpimarratu ondoren, bi eskoletan 4. ikasturtera arteko gelak ixtea eta ikasleak Lasartera eramatea gomendatu zuen.

Azkenik, Lasarten lehen baino 180 haur gehiago zeudela kontuan hartuta, 8 ikasgelaz eta eskolaurreko 5 gelaz osatutako bi eskola eraikitzea premiazkotzat jo zuen: «siendo necesarios por consiguiente la creación de los colegios de 8 aulas cada uno y 5 parvularios».

Lasartera langileak iristeak eragindako igoera demografikoak behar nabarmenak sortu zituen, ondorioz, aipatutako Zumaburu eskolaz gain, Lasarte-Urnietan Kaskarro ikastetxea sortu zen, lehen aipatutako Oztaran ikastetxetik 400 metrora.

Oriako eskolak

1895ean ikastetxe partikularra ireki zuten auzoan, Brunet jaun-andreek, Oriako ehun fabrikaren jabeek, proposatu eta Lehen Hezkuntzako Udal Batzordeak ontzat eman ondoren. Fabrikako langileen seme-alabentzako eskola zen izatez, baina gerora lantegiarekin inolako loturarik gabeko haurrak ere hartu

Oria ikastetxeko ikasleak Ramon Brunet irakasleak eskainitako argazki batean, beraiekin (1885).

zituzten. Sei urterekin sartu eta, nahi izanez gero, hamalau urtera arte jarraitzen zuten bertan ikasten. Aukera izanagatik, ikasle guztiek ez zituzten ikasketak bukatzen, batzuk adin hori bete aurretik hasten baitziren fabrikan.

Dirudienez, ireki zutenetik 1907ra arte, eskola geldirik egon zen zenbait garaitan.

1917an, neskentzako eskola ireki zuten.

1928tik 1930era, mutilen eskola Etxeluzen (Talokale etxearen izen herrikoia) egon zen, eta Santiago Zulaica Urdampilleta, titulurik gabeko maisua, izan zen zuzendaria. Nesken eskola «Aurrecoecheac» eraikinean zegoen, eta tituludun maistra, María Astrain Monjelos, zeukaten. Mantentze gastuak lantegiak ordaintzen zituen; hileko kuotak, aldiz, ikasleen familiek.

Halako batean, Brunet y Cía. enpresako zuzendaritza ikastetxe partikularraz arduratzeari uzteko moduak bilatzen saiatu zen, Lasarte auzoan eskola nazionalak zeudela esanez. Orduan, Urnietako Udalak dirulaguntzak eman behar izan zituen, eta ikastetxe hura zama handia bihurtu zitzaion, kontuan hartu behar baita herriguneko, Lasarteko, Goiburuko eta Pagoagako eskolen gastuak ere ordaintzen zituela. Azkenik, bi gelak elkartzea eta bakarra sortzea erabaki zuten. 1930eko irailaren 30ean hasi zen ekinean eskola misto unitario berria, María Astrain maistra titula-

rra buru zuela: «Una escuela única y mixta en el local que hasta el presente se ha utilizado para los niños; funcionando esta escuela de ambos sexos (de 6 a 14 años) bajo la dirección de la maestra titular Dª María Astrain».

Espainiako II. Errepublika aldarrikatu ondoren, eskari eta iradokizun andana egin zizkioten gobernu berriari gizarteko alor eta talde anitzek. Oriako Ehungintza Sindikatuko langileek ere eskola berria sortzeko eskatu zuten, alkatearen bidez, 1931ko apirilaren 19an:

> Desean la creación de una nueva escuela moderna, servida por maestro nacional en sustitución de la maestra que actualmente se halla al frente de la escuela mixta particular a cargo del municipio, el cual tuvo que fusionar no ha mucho a este fin las dos que funcionaban con carácter particular a expensas de los Sres. Brunet y Compª y de los propios obreros, y haciéndolo así por haberse desentendido dicha razón social de su sostenimiento y causando la fusión de ambas escuelas en una mixta servida por la maestra que venía actuando y en razón a que quien venía figurando como maestro carecía de título oficial, aparte de la consideración económica y que el Municipio, por tratarse de un término municipal muy extendido y diseminado, se ve en el caso de sostener escuelas nacionales en su casco y barrio de Lasarte (estas mancomunadamente con el Ayuntamiento de Hernani) y una rural en el barrio de Goiburua.

Langilearen testuari honako eduki hau erantsi zion Urnietako alkateak:

> Estimando razonable la petición de los obreros, el Ayuntamiento ha formado rápidamente un expediente y solicitado ya con fecha 27 del actual de la Dirección General de 1ª Enseñanza la creación de escuela nacional servida por maestro en Oria, según el deseo de los obreros; pero por lo que respecta a la construcción de nueva escuela, entiende el Ayuntamiento que sin perjuicio de solicitar más tarde del Estado su ayuda al fin indicado y para lo que había de contar con una aportación del Municipio, el local que actualmente se utiliza ha de servir cuando menos provisionalmente dada su capacidad, con tanta más razón cuanto que existiendo el proyecto de que continúe como particular la actual maestra una vez conseguida la creación de la escuela en la forma solicitada, las niñas pudieran asistir a otro local, el ya anteriormente utilizado que reúne las mejores condiciones de luz y capacidad.

1931ko uztailaren 1eko aginduaren bidez, Oriako Eskola Nazional Mistoa, Talokalen kokatua, eratutzat jo zuten aldi baterako. Hasieran, 46 ikasleri eman zizkien eskolak Luis Aurelio Pérez Calvo maisuak. 1933an berrogei ikasle zeuden matrikulatuta, eta egunero 34 ikasle joaten ziren batez beste. Urte berean Cecilio Sáenz de Urturi hasi zen maisu, eta bertan jarraitu zuen (Gerra Zibilean, bederatzi hilabetez, Nieves Alonsok ordeztu zuen garaian izan ezik) jubilatu arte. Izan ere, 1959an hartu zuen erretiroa, hirurogeita hamar urte zituela. (*Dokumentuak* atalean eskolako gauzen inbentarioa azaltzen da, fundazio urtean eta handik bi urtera).

Tarte horretan Nesken Udal Eskolak ekinean jarraitu zuen, gastuak Urnietako Udalak ordaintzen zituela, Foru Aldundiaren laguntzaz. Lehenbiziko egoitza Aurrekoetxea izan zen, baina 1940an Zelaialde etxeko beheko solairuan ezarri zituzten gelak. Brunet fabrikaren jabetza zen Zelaialde etxea, eta ordura arte Kar-

mengo Amaren kapera zegoenez bertan, eliza zoragarri bat eraiki zuten haren ordez. Duela gutxi eraberritu dute, eta hain zuzen, Oriako antzinako herrigunetik zutik dirauen eraikin bakarra da. María Astrain Monjelosek, urte luzetako eskarmentua zuen tituludun maistrak, jarraitu zuen neskei irakasten. Aipatzea merezi duen bitxikeria bat ere bada gure maistraren inguruan: sei urtetik beherako haurrak onartzeko ala ez onartzeko eskubidea zuen.

José María Arrizubieta kaperaua astean bi aldiz joaten zen bi ikastetxeetara ordubeteko erlijio eskolak ematera. Arrizubieta oso apaiz ezaguna izan da Oria auzoan, 1944tik 1996ra Karmengo Ama Birjinaren elizako burua izan baitzen.

1941ean, nesken udal eskolaz gain beste bi sortzea komeni zen aztertu zuen: bata mutikoentzat eta bestea eskolaurreko haurrentzat. Baina ez dirudi azkenean asmoak benetan mamitu zituztenik.

María Astrain jubilatu zenean, 1945-1946 ikasturtearen bukaeran, nesken haur eskolaren ardura Estatuaren gain uzten saiatu zen Urnietako alkatea. Horretarako, eskaria idatziz bidali zuen uztailaren 30ean:

> Guiado del deseo de aligerar la carga que representan para el pueblo las atenciones de enseñanza escolar, para las cuales se ve precisado el municipio a sostener por su cuenta la escuela rural de Goiburua, la municipal de Oria, la de párvulos de Lasarte, abonando además al Ayuntamiento de Hernani sumas de importancia por prestación de enseñanza en dicho barrio a los niños de esta jurisdicción, aparte de un sobresueldo a dos maestros; sin contar con el abono a la Maestra rural de Pagoaga, de Hernani, por la asistencia de los niños de lejanos barrios de este pueblo tan diseminado, así como en los gastos que motiva el material necesario y por el alquiler de habitación de los cinco maestros nacionales del pueblo; el Ayuntamiento que presido se propone solicitar del Estado se haga cargo de las escuelas de Goiburu y de niñas de ese barrio de Oria, vacante esta última por haberse jubilado ya la maestra anciana.

Horra zer erantzun zion Brunetek handik bi egunera:

> Como la verdadera Escuela de Niñas es la situada en la terraza junto al edificio Aurreco echeac, nosotros con mucho gusto cederíamos al Estado el disfrute del actual local en el edificio Celayalde, pero siempre con la facultad de poderlo ocupar para necesidades de la Fábrica, en cuyo caso la Escuela de Niñas se tendría que trasladar al edificio que verdaderamente se hizo con este fin, esto es, al local adherido a la casa Aurreco echeac.

Alkateak ez zuen bere helburua lortu, eta denak berdin jarraitu zuen hainbat urtez. 1946ko irailaren 18an, Inés Arrillaga Loinaz izendatu zuten maistra, María Astrainen ordez, eta langile zintzoa zen arren, lanpostua betetzeko deialdia egin zuen Udalak. Horrela, abenduaren 1ean, María Ángeles Ugalde Baztarrica urnietarra hasi zen eskolak ematen. Tituludun maistra zen, eta bost urtetan eskola nazionaletako irakasle izandakoa.

1950ean, Zelaialde etxeko beheko solairuko gelak ez zirela egokiak eta neskentzako eskola berria eraikitzea komeni zela adierazi zuten udal aginta-

riek, baina asmoak bertan behera utzi zituzten nonbait, beste hamar urtez jarraitu baitzuten bertan ikasten. Handik hamar urtera, 1960an, Talokaleko (edo Etxeluzeko) lokal batera eraman zuten nesken eskola, mutilenaren ondora. Oriako Langileen Ermandadearen ekimenez, eskolaurreko gela ere eraikin berean ezarri eta María Angeles Ugalde hartu zuten irakasle. Nesken gelako maistra Ana Sáenz de Urturi zen, Cecilioren alaba, aitak hogeita sei urtez Oriako haurren irakasle izan ondoren utzitako lanpostua eskuratu baitzuen. Urte berean, 1960an, Antonio Blanes Mutilen Eskola Nazionaleko maisu izendatu zuten.

Dena den, eskolen kokaleku berriaren baldintzak ustez ez ziren oso egokiak, Lehen Hezkuntzako lurralde ikuskatzaileak 1965ean azpimarratu zuenez: «los locales son oscuros, están lindantes con la carretera, lo que entorpece la labor de los maestros». Testuan, ordea, enpresako zuzendariak eskola berriak eraikitzeko asmoa omen zuela gaineratu zuen: «parece que hay buenas disposiciones de parte del director de la empresa para la construcción de nuevas escuelas». Asmoak asmo, lau urte geroago ikuskatzaile berberak Oriako eskolen egoera tamalgarria salatu zuen berriz: «hay que suprimir una y la otra de hasta el 4º curso, siendo luego trasportados a Lasarte».

1973an, udal eskola eta nazionalak itxi, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko Eskola Nazional Misto berria eraiki eta bertara eraman zituzten ikasle guztiak. Otzaran auzoan («Cocheras» deitzen diote herrian) zegoen eskola berria. Handik bi urtera, eskolaurreko gela ere haraxe eraman zuten. 1974an, udalak eskatuta, eskolaren izena aldatzeko baimena eman zuen Ministerioak: «Francisco Eizaguirre», garai hartako alkatearen omenez (Lasarte auzoko biztanlea zen). Geroago, behin betiko izen ofiziala ezarri zioten: Otzaran. Mende berriaren atarira arte jarraitu zuen ekinean, baina azkenik, 2000-2001 ikasturtean ixtea erabaki zuten, 37 ikasle baizik ez zirelako matrikulatu.

Atal hau bukatzear gaudela, Oriako Nuestra Señora de la Esperanza auzoa, egungo Basaundi bailara, aipatu behar dugu, noski. Oria zaharreko oligarkia erregimenari aurre egiteko sortu zuten, kooperatiba erregimenean sortu ere, aipatutako herrigunea. Ikastetxea ere bazuen, hiru gelaz osatua: mutilena, neskena eta eskolarreko haurrena. Esteban Merino, Elvira Garciamartín eta Merche Sánchez ziren, hurrenez hurren, hiru geletako irakasleak. Eskola 1967tik 1973ra bitartean aritu zen jardunean, eta Oriako eskola zaharrekin batera itxi zuten. Bi eskoletako haurrak Otzaran ikastetxe berrira eraman zituzten.

Pagoagako ikastetxe partikularra

Hernanitik Goizuetara bidean dago Pagoaga auzoa. Hernanitik gertuago egon arren eta bertako gastuak Udal honen gain egon arren, Urnietako lurretan zegoen Paguako eskola. Lau herri (Arano, Hernani, Urnieta eta Errenteria) eta bi lurralde (Gipuzkoa eta Nafarroa) hartzen zituen. XX. mende hasieran Pagoaga auzoa oso lasaia zen hiru baserri eta bakoitzean zortzi haur inguru izaten zituzten. Auzo honek ez zuen elizarik ez eta eskolarik ere. Fagollagako eskola 6 kilo-

Pagoaga auzoa. Ezkerrean Pagua berri etxea, 1985ean.

metrora zegoen, ondorioz, haurrek hutsegite ugari egiten zituzten Eulali Aranburu bertako irakasle ohiak *Hernani 96* aldizkarian aditzera eman zuenez.

Dionisia Liceaga Aguerre, Pagua baserrian jaio zen. Bere aita, Dionisia alaba zaharrenetakoa izaki, honi eskola on bat ematen saiatu zen. Fagollagako eskolan ibilia zen Dionisia eta, ondoren, Donostiara eraman zuten, Artzain Onaren inguruan familia baitzuten eta haien etxean izan zen eskola gertuago izateko eta Paguatik aterata gaztelera ikas zezan.

Oso gazte zela hasi zen Dionisia Liceaga Pagua baserriko sukalde txokoan besteei erakusten, Donostiatik itzultzen zenean bere anaia-ahizpak hartzen zituen eta ondoren gainerakoak.

1913. urtean Dionisia ezkontzekotan zela, aitak etxe berria egin zion: Paguaberri edo Eskola etxe. Pagua baserriaren parean, Mikelete etxearen ondoan. 1914an sortu zen bertan Pagoagako Eskola partikular eta mistoa. Eskola elebiduna zen, alegia, bi hizkuntzak, euskara eta gaztelera, erabili behar zituzten.

Pagua-berri etxeak hiru solairu zituen eta bertan jarri zuen Dionisiak eskolak emateko gela. Bere senide eta ondoren izan zituen seme-alabekin sortu zuen eskola. Bertan, idazten eta irakurtzen, lau erregelak eta zekien gaztelera apurra erakusten zituen. 40 urtez aritu zen lan horretan.

1919an hasi zen Hernaniko Udala Dionisia Liceagari soldata ordaintzen, hiru hilabetetik behin 62,50 pezeta ematen zizkion, 250 pezeta urtean.

1923ko maiatzaren 1ean, Hernaniko Udalari neguan gau eskolak emateko baimena eskatu zion Dionisiak, bai eta soldata 450 pezetatik 1.000 pezetara igotzeko nahia luzatu ere. Aranoko haurrak ere bertaratzen zitzaizkionez, Hernaniko Udalak soldataren % 75 eta Aranokoak % 25 ordaintzeko proposamena egin zuen eta Hernanik onartu egin zuen, beti ere «Aranok ere ordaintzen bazuen». Jasotako diruarekin irakasleak erabilitako materialak ordaindu eta eraikinaren alokairua bere gain hartu behar zuen. Urte bereko urriaren 20an inspektoreak eskola pribatua edukitzeko dituen dokumentuak aurkezteko beharra adierazi zion. Joakin Orayenek, garaiko Hernaniko alkateak, erantzun zion inspektoreari bi egun beranduago.

Gau eskolak ere ematen zituen Doinisiak. Mutilak agertzen ziren bertara, Pagua, Igerola, Errekalde, Aparrain, Errota, Olazar, Naparralde, eta Igerola-berri baserrietakoak.

1928an Jenaro Bermejo idazkariari idatzi zion Dionisiak auzo eskariei erantzuteko jai egunetan neska helduei klaseak emateko baimena behar zuela. Izan ere, neskek ez zuten gau eskolara neguan joaterik izaten, beraz, igande eta jai egunetan eskolara joateko modurik izango ote zuten eskatu zioten irakasleari. Eskola partikularrak izanagatik udal lizentzia behar zuela eta Udalak atsegin osoz emango ziola erantzun zion. 1930ean eskolak partikularra izaten jarraitzen zuen.

Aranok 1929ko ekainaren 22an, ordaintzen zuen % 25eko subentzioa kendu egin zion, izan ere, Aranok bazuen bere eskola publikoa herrian eta Pagua eskolara baserriko haurrak bakarrik joaten zirenez, hauen esku utzi zuen gastuak ordaintzearen ardura. Urte bereko irailean Hernanik Aranoko haurrei Pagoagako eskolara joatea debekatzeko eskaera egin zuten Udaleko Plenoan. Hernanik proposamena onartu zuen, baina noizbait Pagoaga eskola txikiegi geratuz gero, Aranoko haurrek ez luketela bertara joateko aukerarik izango esanez.

Urnietako Olazar, Bezkita. Alzusta, Uzturre eta Eizmendi baserrietakoak Pagoagara joaten ziren. Zerbitzu horregatik Urnietako Udalak 5 pezeta ordaintzen zituen ikasle eta hileko 1935-36 ikasturtean. 1941-42ko ikasturteko zerrendan 18 haur kanpotar agertzen dira (*forasteros*): Aranokoak 6, Errenterikoak 3, Urnietakoak 8 eta Donostiako 1.

1948ko ekainaren 9an, Josefina Oloriz inspektore buruak, Pagua eskola legeztatzea eskatu zuen, eta halakorik ez egitekotan, hori ixteko agindua eman beharra izango zuela. Eskola hau mantentzeko legeak hain zorrotz jarri zirenean Hernaniko Udala pausoak ematen hasi zen.

Dionisiak 1953ko abenduan utzi zion eskolak emateari. Honen ondoren, 1954ko urtarrilaren 9an Eulali Aranburu Urkizu hasi zen bere aurrekoaren lana egiten, 36 haurrekin. Ondoren Juani Otxotorena Izagirre, Nere Mujika, Isabel Liceaga, Mª Nieves Martin, Ana Mª Torres, Ana Erice, eta, azkenik, Mª Eugenia Carlos Garalda. 1977-78an Pagua eskolak azken urtea egin zuen. Inspektore batek eman zuen hau ixteko agindua, oso haur gutxi zeudelako.

Elkarrizketa askoren ondoren, 1978-79 ikasturtean, haurrak autobusez Hernaniko eskoletara eramaten hasi ziren. Batzuk Urumea ikastolara joaten ziren, besteak Inmaculada eskolara eta besteak eskola publikora, eta Pagua eskola hutsik geratu zen.

Goiburuko Landa eskola

Pagoagako eskola partikularrean bezala, Euskal Herriko baserrialde ia guztietan auzo maisua zeukaten. Oro har, bizitzeko gela baten eta janari mantenuaren truke ematen zituzten eskolak: auzoko edozein baserritan nola edo hala egokitutako gela batean, irakurtzen eta idazten irakasten zieten haurrei[39].

Gipuzkoako landa eremu handi askotan isolamenduaren ondorioz hain hedatuta zegoen analfabetismoari aurre egiteko, 1927tik aurrera Landa Eskola Probintzialak irekitzen hasi ziren, Foru Aldundiaren ekimenez, baldintza hauek betetzen zituzten guneetan: tokian tokiko herria gutxienez kilometro batera egotea eta hamabi familia baino gehiago bizitzea “entendiéndose por tales todo núcleo o agrupación de caseríos que disten cuando menos un kilómetro del casco del respectivo pueblo y que reúnan en conjunto doce familias”. Hasierako asmoa ehun eskola sortzea zen arren, azkenean hogeita bat eraiki zituzten 1931tik 1936ra bitartean. Gerra bukatu zenean, eskola nazional bihurtu ziren gehienak.

Goiburuko ikasle talde Pepita Campos irakaslearekin 1952an.

39. Aguirre Elustondo, José Antonio. *Así está la enseñanza primaria: hablan los maestros.* Donostia. 1969.

XXI. mendearen hasieran gaudela, hainbat eraikin zutik daude oraindik: batzuek beste erabilera batzuk dituzte, eta beste batzuk bertan behera utzita daude.

Dena den, Urnietan ordurako bazegoen udalaren jabetzako landa eskola bat: Goiburukoa, hain zuzen. Hogeiko hamarkadan, 348 biztanle zituela, Urnietako auzorik handiena eta sakabanatuena zen Goiburu, eta analfabetismo tasarik handiena zuen auzoa ere bai. Eskolara joateko adina zuten haurrak berrogei baino gehiago ziren, baina ezin zituzten Viteriko eskoletara egunero joatera behartu: hurbilenak ziren arren, lau kilometroko bidea zuten bertaraino.

Urte batzuk lehenago, hutsik geratutako baserri batean, Kintalaenean, eskolak ematen hasiak ziren. Baldintzak kaskarrak ziren oso, eta batzuetan gorriak ikusten zituzten: zorua lurrezkoa zenez, euria egiten zuenean putzuak sortzen ziren barruan. Halako batean, jabeak lokala gehiago ez uztea erabaki zuen, eta Larburu baserrira eraman zuten gela.

Goiburun eskola irekitzea premiazkoa zen, beraz. Hasieran Kintalaenearen ondoan eraikitzea pentsatu zuten, baina azkenean Xoxoka («Txusaka», lanei buruzko txostenean hala azaltzen da) izeneko auzo lurrak aukeratu zituzten, Adarra mendiaren ia oinean kokatuak.

1925eko urtarrilaren 18an, Udalak bilera antolatu zuten auzoko biztanleekin, Goiburuko eskola unitarioari buruzko proiektuaren nondik norakoak azaltzeko. Bileran parte hartu zuten 39 familia buruek laneskua eta eraikuntza materialak eskaini zituzten. Auzokoen laguntzari esker, uste baino askoz ere merkeagoak izan ziren lanak: hasierako aurrekontua 20.694 pezetakoa zen, eta 13.000 ere ez zituzten gastatu. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak 4.000 pezetako dirulaguntza eman zuen. Antonio Setién arkitekto hernaniarrak diseinatu zuen eraikina: ikasgelak eta maistraren etxea[40].

Ángela Arrue Inchauspe maistra aukeratu zuten eskola berrirako. Ez zuen titulurik, baina irakasle trebea eta bikaina zen, eta haren lana biziki goraipatu zuten bai lehen hezkuntzako lurralde ikuskatzaileak bai hezkuntzako udal batzordeak. Udalak 250 pezetako soldata ordaintzen zion, eta familia bakoitzak pezeta bat hileko, ahal zutenean behintzat, beti ez baitzuten kopuru horri aurre egiterik izaten. Hori ikusita, 1928ko azaroaren 15ean, Urnietako alkateak gutuna idatzi zion Foru Aldundiari: irakaskuntzaren alderdi pedagogikoari lotutako arazoa konponduta zegoen arren “si bien por lo que tiene de aspecto pedagógico el problema de enseñanza en esta localidad se halla solucionado satisfactoriamente”, auzo maistrak soldata duinagoa merezi zuela “buscar una remuneración más justa de los servicios de la expresada maestra rural” eta probintziako fondoen bidez kopuru egokia ordaindu beharko litzaiokeela, lurraldeko antzeko beste eskola batzuetan egiten zen bezala “destinar a tal fin alguna suma prudencial con cargo a los fondos provinciales, en la forma que tratándose de otras escuelas similares de la provincia, lo viene practicando laudablemente”.

40. Amuategui, Teresa. *Op.cit.* 142. or.

Hizpide dugun eskolako irakaskuntza ontzat hartu zuten 1932ko txosten ofizial batean («satisfactorio»). Hurrengo urtean, Arrue maistraren eskolan 65 neska-mutil zeuden matrikulatuta, nahiz eta egunero batez beste 32 haur joaten ziren.

Urnietako Udalak izugarrizko gastuak zituenez irakaskuntzaren alorrean, 1935eko abenduan, Foru Aldundiari honako eskari hau egitea erabaki zuen udalbatzaren osoko bilkurak:

> (...) que se haga cargo la Provincia de la escuela rural del barrio de Goiburua de ésta villa que viene funcionando con el auxilio del Municipio reforzado con la subvención de esa Excma. Diputación a fin de que lleve el mismo carácter que otras similares de la provincia menos importantes.

Foru Aldundiak baietz erantzun eta zer lan egin behar ziren zehazteko agindu zion lurralde arkitektoari, gaia udalarekin batera aztertzeko eskatuz. Baina bat-batean, martxoaren 3an, Udalak honako hau jakinarazi zion Aldundiari: abenduaren 5eko akordioa ezeztatzea eta eskaria bertan behera uztea erabaki zuela.

Errepublikaren kontra altxatutakoek Urnieta hartu zutenean, Ángela Arrue Inchauspe kargutik kendu eta Matilde Aranzaolatroque Irastorza izendatu zuten maistra: «de intachable conducta moral y de filiación tradicionalista».

1936ko azaroan, argiteria ezarri zuten ikastetxean gauez eskolak eman ahal izateko. Gauez aritzeko ohitura oso hedatuta zegoen landa eskoletan, haur

Doña Pepita Xoxokan bere ikasleekin 1962an.

askok egun osoa lanean igarotzen zutelako, eta gainera, gauez helduentzako eskolak ematen zirelako.

1937ko maiatzean, 26 mutil eta 20 neska jarraikortasunez joaten ziren eskolara.

1938tik aurrera, Petronila Esnal izan zen Goiburuko eskolako maistra.

1943ko irailaren 16an, Irakaskuntzako Udal Batzordeak bilera egin zuen landa eskola horren egoera kaskarra aztertzeko: «del muy deficiente estado de enseñanza en la escuela rural del expresado barrio, donda la asistencia es en extremo reducida, observándose que los escolares del barrio, lejos de acudir a la suya, lo hacen a las del casco y hasta en otros pueblos».

Arazoa konpontzeko asmoz, Francisca Josefa Campos Martín bitarteko maistra izendatzea erabaki zuten, bere burua eskaini baitzuen horretan aritzeko. 40 urteko alarguna zen, bi alabaren ama, tituludun irakaslea eta 1922tik 1940ra arte Donostiako Nuestra Señora del Pilar ikastetxean lan egindakoa. Pepita Campos urriaren 5ean jabetu zen postuaz. Udalak 1.500 pezetako ordainsaria ezarri zion urteko, eta kopuru horri auzoko biztanleen ekarpena eta Foru Aldundiaren dirulaguntza gehitu behar zitzaizkionez, 3.000 pta-tik gorako soldata zegokion gutxienez. Baina auzoko biztanleek «borondatezko» kopurua ez zuten beti ordaintzen, eta zenbaitetan Udalak atentzioa eman eta ordaintzeko eskatu behar izaten zien.

Izaskun eta Maritxu Miner Goiburuko ikasle ohiek azaldu digutenez, oso baliabide urriak zituzten, eta hala-moduz moldatu behar izaten zuten eskolan. Gela bakarra zegoen, eta 6 eta 14 urte bitarteko 60 haur inguru egoten ziren bertan, maistra bakarrarekin: Pepitarekin. Izan ere, erretiroa hartu arte, lanpostu horretan aritu zen beti Goiburuko maistra. Bi arbel, mahai biribil bat eta zenbait idazmahai. Horiexek ziren gelako altzari bakarrak. Ikasleak mahai biribilaren inguruan esertzen ziren, edo bestela idazmahaietan, binaka zein hirunaka. Ikasleen gurasoek egurra eramaten zuten gela berotzeko. Hasieran sukalde txapa zeukaten, eta gero berogailua ezarri zuten. Gurasoek ikatzez ere hornitzen zuten eskola.

Ikasleek askotan egiten zuten huts, batik bat mutilek, neskak sarriago azaltzen baitziren eskolara. Maritxu Miner, adibidez, goizeko 06:30etan autobusa hartu eta Donostiara joaten zen esnea saltzera. Eguerdian itzultzen zen etxera. Horrelakoetan, ikasleak batzuetan gauez joaten ziren eskolara.

Astean behin, kristau ikasbidea irakasten zien On Jose Inaziok, euskaraz. Gero Pepitak galderak egiten zizkien, hark ere euskaraz, ez zekien arren.

1946tik, udal eskola hura nazionalizatzeko gogoa zuen Udalak “por no reunir las debidas condiciones pedagógicas”. Baina eskaria gerorako uztea erabaki zuen, garai egokiagoak iritsi arte. 1950ean, Egoien eta Goiburuako eskolak nazionalitzatzeko eskaria egin zuen berriz.

1962-1963 ikasturtearen bukaeran, Lurralde Ikuskaritzak Goiburuko eskolako materialen egoera zeharo kaskarraz ohartarazi zuen Udala. Horra zer zioen 1965eko maiatzaren 17ko txostenak:

> (...) en la escuela de Goiburu hay falta de encerados y percheros y que el material está deteriorado. El señor alcalde dice que la maestra compre los encerados y que se procurará mejorar el mobiliario e indica al mismo tiempo la poca colaboración que prestan los vecinos del barrio.

Hezkuntza ikuskatzailea, 1968ko azaroko bisitan, harrituta geratu zen altzari berri egokiak aurkitu zituelako "agradablemente sorprendida por el mobiliario actual". Halaber, ezarri berri zuten Eskola Telebistaren (Televisión Españolak hezkuntzako edukiei eskaintzen zien ordubeteko eguneroko programazioaren) garrantzia nabarmendu eta batik bat Goiburun sustatzeko beharra azpimarratu zuen: «donde los niños están más alejados de todo roce con el público».

1969an 32 haur zebiltzan eskolan, eta denak herriguneko eskola nazionalera eramatea eta joan-etorrietarako garraio zerbitzu berezia eskaintzea proposatu zuen Lurralde Ikuskaritzak.

Azkenean, 1973-74 ikasturtean betirako itxi zuten Goiburuko eskola, Francisca Camposen alabek gogorarazi digutenez. Izan ere, ama, 1903ko irailean jaioa, 70 urtekin jubilatu zen.

Hernanin ere, beste eskola bat bazen, Urnietako gaztetxoak hartzen zituena: Arriatsu Eskola. Loidi, Osinaga, Ezio eta Zinkuñaga bailaratako 60 gaztetxo hartzen zituen nekazal eskola mistoak, Loidi etxaldearen ezkerraldean zeuden udal lurretan. Urnietar zenbaiti gertuago geratzen zitzaien Hernaniko eskola Urnietakoa baino.

Lasarteko Landaberri ikastola

Urnietari zegozkion Lasarteko lurretan beste kimu bat hazi zen 1966an: Landaberri ikastola. Lasarte-Urnietako Aizpurua etxean, German Rekondok eskainitako pisuan eman zituen lehenengo urratsak, Goinkale auzoan, Arantxa Mendizabal irakasle zela.

Luzuriaga familiak elizaren atzean zuen Andre Joakina Enea etxea erosteko dirua lortu eta bertan jarraitu zuten eskolak ematen. 1969-70 ikasturterako eraikina txiki geratu zen eta herriko lokaletan zehar banatu zituzten haurrak: Uistin baserriaren kontra parrokiak zuen goi solairuan, Sasoeta auzoko Barbe etxean, libre geratutako farmazian eta Lasarteko mojek bere etxe ondoan zuten bi pisuko etxean.

1972-73 urtean urrats garrantzitsua eman zuen Landaberrik Usurbilgo Kalexarrera mugituz. Espazio arazoa konpondu zuen ikastolak haurrak bertara eramateko autobus bat jarrita.

Urnietaren lurretan zegoen Goinkale auzoko Aizpurua etxea, Landaberri ikastolaren hastapenetako egoitza.

Bi erabaki sendo hartu zituen Landaberrik 1977-78 ikasturtean: Usurbilgo Luberri ikastolarekin bat egin eta guraso elkarte bateratu berri bat sortzea (Landaberri Kooperatiba) eta ikastetxe berria egiteko eman beharreko pausoei ekin behar zaiela.

Zubietako hipodromo atzealdean sail ugari zituen gizon zahar bat zegoen ikastolari bere lurrak saltzeko prest. Lurren kalitatea ona dela ikusita eta arkitekto ezagunei kontsulta egin ondoren, lur hori erostea egokitzat jo eta aurrera egin zuten gurasoek diru jarri eta baimenak eskatzeko bidean. 1977ko urtarrilean sartu ziren haurrak ikastola berrian, Zubietan.

Bide luze eta malkartsuaren ondoren, egun, hezkuntza antolaketan derrigorrezkoak diren etapa guztiak hartzen ditu Landaberri Hezkuntza Proiektuak ikastola eta institutua elkartuz. Proiektu horren izaera bi oinarri nagusiren gainean ezartzen da: Euskara eta euskal kultura sustatzea, eta aniztasuna bermatzeko eta bultzatzeko apustua[41].

41. Aizpitarte, Pako. *Landaberri ikastola. 25. urteurrena. 1966-1991*. Donostia. 1991.

URNIETAKO ESKOLA BIZITZARI BURUZKO XEHETASUN BATZUK

Eskola errolda. Horniduren bilakaera

1880an, Gipuzkoan eskola bat zegoen 479 biztanleko. Batez besteko hori Espainiakoa (eskola bat 561 biztanleko) baino txikixeagoa zen.

Urnietan 1.700 bat lagun bizi ziren. Herrigunean bi eskola zituzten, mutilena bata eta neskena bestea, eta Lasarten hirugarrena, Hernanirekin erdibana. Oriako langile gunean ez zuten ikastetxerik izan 1895ra arte. Eta landa eremuetan askoz ere gehiago itxaron behar izan zuten.

1909an, Espainiako Gobernuak derrigorrezko hezkuntza finkatu zuen 6 eta 12 urte bitartekoentzat, haurren esplotazioari aurre egiteko asmoz. Adin horretako haurrak eskolara joaten ziren egiaztatzea alkateen ardura zen, eta gurasoei isunak (50 zentimo eta pezeta bat bitartekoak) ezartzeko eskubidea ere bazuten. Dena den, hogeiko hamarkadara arte alkateak ez ziren hasi egiaztapen lana benetan gauzatzen. Izan ere, 1924ko Errege Agindu baten ondorioz, analfabetismoaren kontrako Udal Batzordeak eratu ziren herri guztietan. Aipatutako batzordeek, ikasleak eskolara egunero azaltzen zirela egiaztatzeaz gain, fondoak bil-



Otaegi maisuaren eskola (1929).

tzen zituzten partikularren artean, ikasleei diru sariak emateko. Aurrezki Kutxako kartiletan sartzen zieten dirua ikaslerik saiatuenei, gutxien huts egiten zutenei, garbienei...

1932an, Urnietan guztira 317 haur zeuden matrikulatuta zazpi eskoletan: Viteriko Eskola Nazionaletan (bata mutilena eta bestea neskena), Lasarteko Eskola Nazionaletan (mutilak eta neskak bereizita zeuden horietan ere), Oriako Eskola Nazional Mistoan, Oriako Nesken Udal Eskolan eta Goiburuko Eskola Mistoan.

Hurrengo urtean, Viteriko Eskola Nazionaletan 72 mutil eta 91 neska zituzten, eta batez besteko asistentzia % 83,33koa eta % 78koa zen, hurrenez hurren. Oriako Eskola Mistoan 40 mutil eta 52 neska zeuden matrikulatuta, eta lehenengoen % 85 eta bigarrenen % 80,77 egunero joaten ziren. Huts egite kopururik handienak Goiburuko Eskolak zituen, ikasleen erdia ere ez baitzen azaltzen egunero (65etik 32). Lasarteko Eskola Nazionalei buruzko informaziorik ez dugun arren, gutxi gorabeherako kopuru orokorrak eman ditzakegu: 1933an, Urnietako ikasleen % 74,69 inguru egunero joaten zen eskolara.

1942an, Viteriko Eskoletako ikasleen asistentzia % 82,65koa (matrikulatutako 98 neska-mutiletatik 81) zen. Handik bi urtera, Urnietako mutilen % 77,78 eta nesken % 95,19 eskolatuta zeuden. Seme-alabak eskolara bidaltzen ez zituzten gurasoei bidaltzen hasteko eskatu zitzaien, Udalak huts egiteak Gobernu Zibilari jakinarazi behar zizkiolako. Horrela, egiaztagaririak aurkezten hasi ziren gurasoak, eta batzuetan ikasleak, eskolara ezin joan ahal izateko arrazoiak azaltzeko. Hona hemen adibide batzuk:

> No he podido ir por tener que recoger la alubia (horrelako hainbat daude).
>
> He faltado porque suelo estar cuidando al niño y los demás suelen ir a recoger aluvias y otros dias porque la madre suele ir a San Sebastián.
>
> La niña... a faltado a la escuela por aber estado en el caserio de la abuela.
>
> Mis ijos los dias an faltado para recoger las cosechas alubi y manzana.
>
> Preparando la tierra con las bacas y hacer maiz y alubias (hainbat).
>
> Bihar goisean es nais etorrico ama donostira joango data.

Urnietako Lehen Hezkuntzako Udal Batzordearen bileren hasieran asistentziaren gaia aztertzen zen beti. Horren adibidea dugu, besteak beste, 1957ko apirilaren 25eko akta: «Se trató de la asistencia escolar que ha mejorado algo; pero todavía hay casos de abandono, por lo que se acuerda llamar a los padres para que pueda remediarse». Gaiari buruzko aipamenak oso ugariak dira Udal Batzordearen erregistroan.

XX. mendearen hirurogeiko hamarkadaren erditik aurrera etorkin asko heldu ziren Urnietara, eta horrek ondorio larriak eragin zituen udaleko hezkuntzaren egoeran. Eskolako ikasle kopurua erruz handitu zenez, udala hornidura gehiago eskaintzen saiatu zen, baina hutsean geratu zen dena, Estatu frankistari ikastetxe publikoak bost axola zitzaizkiolako. Jakinekoa denez, ikastetxe erlijioso pribatuak buru-belarri sustatu zituen.

1962-1963 ikasturtea bukatu zenean, irakaskuntzako lurralde ikuskatzaileak mutilentzako eskola berria sortzea proposatu zuen, matrikulek eta biztanleriak izandako gorakadari erantzuteko. Baina denak bere horretan jarraitu zuenez, 1965eko martxoan premia askoz ere larriagoak zituzten, Hezkuntzako Udal Batzordeko kideek lurralde ikuskatzaileari gaiari buruzko bileran azaldu ziotenez:

> Se da cuenta de la matrícula actual en la Escuelas Nacionales que funcionan en esta Villa, de la que resulta que en el casco las de niños tienen exceso de matrícula y ello hace precisa la creación de una nueva escuela. El señor Inspector indica que también es necesaria la creación de otra Escuela para párvulos, dado el censo escolar que existe en esta parte de la Villa y propone que, para atender tales necesidades se habilite un local en el grupo escolar a fin de instalar la Escuela de párvulos y que se construya una nueva aula con una vivienda adosada al actual edificio para la Escuela de niños.

Handik egun batzuetara, apirilaren 14an, behin betiko erabakia hartu zuen Udalak:

> (...) la construcción de dos Escuelas, una de niños y otra de párvulos, si bien la de párvulos mediante habilitación en el actual Grupo Escolar, debiendo construir también una vivienda todo ello directamente por este Municipio con subvención del Estado y de la Excma. Diputación de Guipúzcoa.

Joaquín Irizar, Donostian bizi zen arkitektoa, aukeratu zuten lanetarako.

Baina dirulaguntzak ez zirenez iristen eta kinka larrian zeudenez, 1966ko abuztuan, Udal Batzordeak honako eskari hau egin zion Hezkuntza Ministerio Nazionalari: «la creación oficial de dichas Escuelas y comenzar su funcionamiento provisionalmente en locales que en forma temporal cede la Parroquia gratuitamente hasta que se logre la referida construcción». Eskola berria, artean eraikitzeke egonagatik, ofizialtzat hartzeko eskatu zioten, beraz. Hala eginez gero, maisuak eta beharrezko altzariak bidaliko zizkien gobernuak, eta 1966-1967 ikasturtean parrokiaren lokaletan eskolak ematen hasteko aukera izango zuten.

Ikasturte hartan, Lehen Hezkuntzan 504 ikasle zeuden guztira, eta zazpi ikastetxe: bi nazional unitario, beste bi nazional eta nazionalak ez ziren beste hiru. Maisu bakoitzeko ikasle kopuruak hauexek ziren: eskola nazionaletan 45 eta besteetan 46. Izan ere, ikasturte hartan, Gipuzkoan maisu bakoitzak 41 ikasle zituen batez beste[42].

1967ko azaroan, alkateak Urnietako eskola erroldaren datuak eman zizkion Gipuzkoako Lehen Hezkuntzako Lurralde Ikuskaritzari: herrigunean eta Goiburuako eskoletan 300 ikasle zituzten, eta Lasarte auzoan 310. Aurreikuspenen arabera ikastetxe horietan hurrengo bi urteetan 150 eta 250 haur gehiago izango zituztela gaineratu zuen alkateak, zenbat etxebizitza eraikitzen ari ziren kontuan hartuta.

---

42. Aguirre Elustondo, José Antonio. *Op. cit.*

Urtebetean berdin jarraitu zuen denak, eta aurrerabiderik ez zegoela ikusita, 1968ko azaroan Udalak txostena idatzi zien hezkuntza agintariei: gorriak ikusten ari zirela jakinarazi eta laguntzeko erregutu zieten. Besteak beste, behar adina gela ez zegoenez, eskola adineko haur batzuek ikasterik ez zutela zioen txostenak:

> La Villa de Urnieta hasta hace poco era un pueblo eminentemente agrícola, pero en estos últimos años en su demarcación se han instalado una serie de factorías que en sus recintos son más de 1.000 operarios que se dedican a la actividad industrial.
>
> Asimismo durante estos ultimos ocho años se han construido más de 800 viviendas, lo que representa que se haya duplicado el censo de población en cuestión de pocos años y naturalmente ello representa que se haya doblado el censo escolar, creando un verdadero problema escolar.
>
> La Junta Provincial de construcciones estima la necesidad de construcción de 4 aulas y 4 viviendas en el casco de Urnieta y 12 aulas y otras tantas viviendas en Lasarte, cuyos proyectos han sido redactados alcanzando el presupuesto la cantidad de 15.390.260,52 pesetas.

1969ko maiatzaren 16an, lurralde ikuskatzailea Lehen Hezkuntzako Udal Batzordearekin elkartu zen, egoera bideratzeko. Horra zer proposatu zien batzordeko kideei:

> La inspectora indica que la Inspección ha estudiado a fondo el problema y propone la formación de dos grupos: Lasarte y Urnieta casco.
>
> Señala la conveniencia de que los niños de Goiburu en número de 32 sean transportados a Urnieta.
>
> Aboga por la creación de un grupo de 9 aulas y dos parvularios, pero que con la existencia de 4 de niños y 1 parvulario, resultan 5 aulas y 1 parvulario, estando ya aprobadas 4 de las aulas.
>
> Si se establece el transporte de Goiburu esta escuela desaparece.
>
> A continuación expone que para septiembre próximo en Lasarte se presenta un problema urgente y grave, porque en las 4 aulas de Zumaburu hay 190 niños y otros 90 que tienen que pasar de párvulos y propone al Ayuntamiento la habilitación provisional de 3 bajos hasta que se haga la construcción de las nuevas escuelas.
>
> Indica también el lamentable estado de las escuelas de Oria y dice que hay que suprimir una y la otra de hasta el 4º curso, siendo luego trasportados a Lasarte.
>
> Asimismo señala que el aumento en Lasarte es de 180 niños, siendo necesarios por consiguiente la creación de los colegios de 8 aulas cada uno y 5 parvularios.
>
> También acuerdan que por la tarde la inspectora y el secretario del ayuntamiento irán a Oria para ver un bajo y habilitarlo como escuela de párvulos.

1970eko Hezkuntzaren Lege Orokorrak bi maila ezarri zituen: Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (OHO) eta Batxilergo Bateratu Balioaniztuna (BBB). Ondorioz, udaletako hezkuntza egiturak berrantolatu egin behar izan ziren. Urnietako hezkuntza mapa berria 1972an finkatu zuten:

> 1º) Escuela Graduada Mixta de Urnieta: se crea 1 unidad de niñas y 4 unidades de párvulos, con lo cual la escuela quedará constituida a base de 14 unidades (5 de párvulos y 9 de EGB, de las cuales 5 seran de niños y 4 de niñas).
>
> 2º) Colegio de EGB de 16 unidades en Lasarte (8 servidas por maestro y 8 por maestra).
>
> 3º) Colegio de EGB a base de cuatro unidades, a establecer en el centro en construcción en Lasarte.

1974an, eskolaurreko 580 ikasle zeuden Urnietan. Hurrengo urteetan adin horretako ikasleen kopurua izugarri handitu zen, eta 1979an 733 ziren guztira. Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko ikasle kopuruak ere gorakada ikaragarria izan zuten urtez urte: 1974an 1.280 ziren, eta 1979an 2.250.

Egoera horri erantzuteko, Azkorte kaleko Ikastetxe Nazional Mistoa (lehengo Eskola Nazionalak) handitzeko lanak egin zituzten 1976an: 15 eskola unitate ezarri zituzten guztira (OHOko 1. etapako 7 eskola unitate misto, OHOko 2. etapako 3 eskola unitate misto, eta eskolaurreko edo haur hezkuntzako 5 eskola unitate).

1979an, bi solairuko ikastetxe berria eraiki zuten herrigunean, 1907an Pedro Viteriri esker eraikitako eskolaren ondoan.

Bigarren hezkuntzan eta lanbide heziketan ere ikasle kopuruak erruz hazi ziren urtetik urtera. 1975ean 12 ikasle zeuden matrikulatuta Batxilergo Bateratu Balioaniztunean, eta handik lau urtera 141 ziren jadanik. Lanbide Heziketan, 1975ean 36 ikasle zituzten lehen zikloan eta 9 bigarren zikloan, eta 1979an, berriz, 244 lehen zikloan eta 42 bigarrenean.

1982an, Urnietan 288 mutil eta 252 neska zebiltzan eskolaurreko mailetan. OHOko lau ikastetxe publiko eta bi pribatu (929 mutil eta 810 neska), batxilergoa eta UBI ematen zituen ikastetxe pribatu bat (55 ikasle) eta LHko ikastetxe pribatu bat (215) zeuden aukeran. Ikastolan, 123 haur zituzten eskolaurrean, eta 175 OHOn[43].

1993-1994 ikasturtean, honako hauek ziren Urnietako ikastetxeen datuak (Euskal Urtekari Estatistikoa) kontutan izan Lasarte eta Oria 1986an banatu zirela:

---

43. Auñamendi Entziklopedia. Boza: “Urnieta”.

	Guztira	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak
Haur Hezkuntza	150	122	28
Oinarrizko Hezkuntza Orokorra	427	339	88
BBB eta UBI	44	-	44
Lanbide Heziketa	405	-	405
GUZTIRA	**1.026**	**461**	**565**

Ekonomia

1857an, Hezkuntza Legea onartu zuten, Claudio Moyano ministroaren abizenaz ezagutu izan dena beti. Moyanoren Legearen 97. artikuluak honako betebehar hau finkatu zuen: ikastetxe publikoak tokian tokiko udalaren ardura izango ziren aurrerantzean, eta eskolarako behar ziren kopuruak udal aurrekontuetan sartuko ziren, derrigorrezko gastuen artean "estarán a cargo de los respectivos pueblos, que incluirán en sus presupuestos municipales, como gasto obligatorio, la cantidad necesaria". Horrez gain, irakasleei etxebizitza ematea ere udalen eginkizuna zen.

Lehen Hezkuntzako eta eskolaurreko ikastetxeen eta helduak alfabetatzeko eskolen ardura udalei zegokien, beraz. 1900ean Hezkuntza Ministerioa eratu zuten, eta Estatua lehen hezkuntzako kostu batzuk bere gain hartzen hasi zen

Patxi Txapartegi Arrieta eta Maddi Garmendia Arrieta ganaduarentzat jatekoa duen gurdi gainean.

gutxinaka: maisuen soldatak eta eskolak mantentzeko edo eraikin berriak egiteko gastuak, betiere udalak orubeak eta azpiegiturak utziz gero[44].

Horrek guztiak eskola nazionaletan izan zuen eragina, noski, eta ez udal ikastetxeetan. Ondorioz, udalek eginahalak egin zituzten beraien jabetzako eskolak Estatuko sarean sartu zitezen.

Urnietan lehen adierazi ditugun eskola publikoak ireki ahala, gero eta dirutza handiagoak ordaindu behar zituen Udalak. Azkenerako, ikastetxeak zama astunegia ziren udalaren baliabide urrientzat. Udal Artxiboko hainbat dokumentutan argi ikusten da XX. mendearen lehen erdian estu eta larri ibili zirela eta erakunde publikoetara jo zutela laguntza eske.

Urnietako Udalak Goiburuko udal eskolen eta Oriakoen (hogeiko hamarkadaren bukaeratik) gastuak ordaintzen zituen. Gainera, Lasarteko eskola nazionaletan ekarpena egin behar izaten zuen, Hernaniko Udalarekin erdibana, eta Pagoagako landa eskolara (ondoko herrian zegoen) joaten ziren ikasle urnietarren mantentze kuota ordaindu. Beste horrenbeste egiten zuen Donostiako Lanbide Heziketako Ikastetxean, mantentze gastuak ordaintzen lagundu baitzuen, XX. mendeko hogeita hamarreko eta berrogeita hamarreko hamarkadetan behinik behin. Eta gerra ostetik, Urnietako eta Lasarteko “Escuelas de Formación y Hogar” zirelakoen aldeko dirulaguntzak eman zituen etengabe, “Sección Femenina”renak baitziren.

Horri guztiari beste betebehar bat gehitzen zitzaion: eskola nazionaletako maisuei udalean etxebizitza duina ematea. Betebehar hori eztabaida iturria izan zen ikuskaritzaren eta Udalaren artean, lan honen beste atal batean ikusiko dugun bezala. 1957an, Udaletxeko beheko solairuak erabiltzeko baimena eskatu zion alkateak Hezkuntza Ministerio Nazionalari, eta baiezko erantzuna eman zioten, baldintza bat ezarrita: «siempre que entregue al magisterio otra adecuada que reúna condiciones al juicio de la Corporación Provincial». Hurrengo urtean, Udaletxearen gainean irakasleentzako etxebizitzak egiteko asmoa zutela jakinarazi zien alkateak.

1937an Urnietako eskolak ikustera etorri ziren hezkuntzako ikuskatzaile guztien txostenetan behin eta berriz azpimarratzen da gelen baldintzak bikainak zirela baina materialak oso urriak.

Gerra osteko urte gogorretan, Urnietako Udalak gorriak ikusi zituen hezkuntza sareari eusteko, baliabideak oso murriztuta zeuden eta. 1946ko uztailaren 30ean, alkateak gutuna idatzi zion Brunet jaunari, Oriako ehun fabrikaren jabeari, egoera larri haren berri emateko:

---

44. Davila, Paulí. “Nacionalismos y politicas educativas durante el s XX: de la centralización a la descentralización”. Hainbat egile: *Las políticas educativas en el País Vasco durante el siglo XX*. Biblioteca Nueva. Madril, 2004.

> Guiado del deseo de aligerar la carga que representan para el pueblo las atenciones de enseñanza escolar, para las cuales se ve precisado el municipio a sostener por su cuenta la escuela rural de Goiburua, la municipal de Oria, la de párvulos de Lasarte, abonando además al Ayuntamiento de Hernani sumas de importancia por prestación de enseñanza en dicho barrio a los niños de esta jurisdicción, aparte de un sobresueldo a dos maestros; sin contar con el abono a la Maestra rural de Pagoaga, de Hernani, por la asistencia de los niños de lejanos barrios de este pueblo tan diseminado, así como en los gastos que motiva el material necesario y por el alquiler de habitación de los cinco maestros nacionales del pueblo; el Ayuntamiento que presido se propone solicitar del Estado se haga cargo de las escuelas de Goiburu y de niñas de ese barrio de Oria, vacante esta última por haberse jubilado ya la maestra anciana.

Baina ez zuen deus ere lortu, epe laburrean behintzat, hurrengo urtean irakaskuntzan are ekarpen handiagoa egiteko eskatu baitzioten Udalari. Erantzun argia eman zuen alkateak: hezkuntzara bideratutako urteko zenbatekoa handitzea ezinezkoa zen erabat.

Aurreko atal batean ikusi dugunez, 1946an Eskola Nazionaletan bi gela bateratzen ahalegindu zen alkatea, maisu lanpostu bat aurreratzeko. Kale egin zuen, ordea, baina 1952an bere helburua lortzen saiatu zen berriz, Lehen Mailako Hezkuntza Ordezkaritza Nazionaleko ikuskatzaileari gutuna idatziz: azkenaldian eskola nazionaletara haur gutxi joaten zirenez, bi maisuren ordez bakarra aritzeko baimena eskatu zion.

Adierazitako guztiak José Antonio Aguirre Elustondok hirurogeiko hamarkadan egiaztatutako datu bat frogatzen du: Gipuzkoako udalek, batez beste, estatukoek baino askoz ere diru gehiago ematen zutela eskola publikoak mantentzeko (Espainian, % 8,5 inguru ikasle bakoitzeko)[45].

Hizkuntza

XVIII. mendean, ilustrazioak eragindako kultur susperraldia Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak bideratu zuen gure herrian. Hezkuntzak garrantzi handia hartu zuen, baina klase agintariek gaztelerazko irakaskuntza indartu zuten, gure hizkuntza zokoratuz.

XIX. mendean, Estatu liberalak ezaugarri zuen uniformizaziorako joeraren ondorioz, gaztelania espainiar guztien komunikazio hizkuntza bihurtu zen, eskola garaitik hasita. Dena den, Euskal Herriko hezkuntzaren historialari Paulí Dávilak aipatzen duenez, elebitasunari sarbidea emateko zenbait planteamendu ere egin ziren, gaztelania edo frantsesa errazago ikasi ahal izateko:

---

45. Aguirre Elustondo, José Antonio. *Op. cit.*

> (...) a partir del siglo XIX y coincidiendo con las políticas de uniformización lingüística, el establecimiento de los sistemas educativos y la extensión de la escolarización, asistimos a ciertos planteamientos bilingüistas para facilitar el aprendizaje del castellano o del francés.

Moyanoren 1857ko Legeak Espainiako hezkuntza sistemarentzat finkatutako antolamenduak mende bat baino gehiago iraun zuen bere horretan, ia inolako aldaketarik izan gabe. Funtsezko lau oinarri zituen:

1. Zentraltasuna: Madrilen zuzentzen eta bideratzen zen hezkuntza.

2. Bateratasuna: ikasketa plan berberak Espainia osorako.

3. Estatalizazioa: zerbitzu publikoaren ardura eta kontrola Estatuaren gain. Hala ere, urte asko behar izan zituzten zerbitzu hori hiritar guztiei bermatzeko.

4. Irakaskuntza askotasuna: ikastetxe pribatuak irekitzeko gaitasuna.

1875ean, *El Reglamento provisional de las escuelas de instrucción primaria de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa* onartu zuen Hezkuntza Batzordeak. Honako zeregin nagusi hau finkatu zuen: «el estudio y enseñanza de nuestra rica y armoniosa lengua, el aprecio de las gloriosas tradiciones de las Provincias bascongadas, y más que todo la conservación y permanencia de nuestros usos y costumbres, tan sencillas como cristianas». Ondorioz, probintziako eskola guztietan irakurketak lehenbizi euskaraz eta gero gaztelaniaz egiteko agindu zuen: «primero en lengua bascongada y después en las castellana».

Gerora, ordea, Karlistaldia bukatu eta 1876an foruak indargabetu ondoren, euskara geletatik kanpo geratu zen. Euskaraz ematen ziren eskola bakarrak dotrinakoak ziren. Hurrengo mendeko hirurogeiko hamarkadara arte, euskara zokoratuta egon zen hezkuntzaren arloan.

Tarte horretan, euskarari hezkuntza sisteman sarbidea ematen saiatu ziren bakarrak hogeiko hamarkadako auzo eta landa eskolak izan ziren. Lehenago aipatu dugunez, gune baztertuetan analfabetismoari aurre egiteko sortu zituzten horrelako ikastetxeak, eta tokian tokiko biztanleen artean nagusi zen hizkuntzan, euskaran edo gazteleran, oinarritutako ereduak sortzen saiatu ziren. Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak 1927an argitaratutako *Bases para mejorar la Instrucción Primaria en las Escuelas rurales de la Provincia* testuan, eskolak euskaraz ematea komeni dela azpimarratzen da: «por ser la que mejor y en la mayoría de los casos única que conocen los niños de los pueblos rurales de nuestra provincia». Eta ondorioz, landa eskoletako irakaslee izateko, ezinbesteko baldintza bat eskatzen hasi ziren: euskaraz oso ongi jakitea.

1931n Errepublika gailendu zenean, itxaropena piztu zen Euskal Herriko eskoletan elebitasuna finkatuko omen zelakoan. Kantaluniari Elebitasunerako Lege Dekretua onartu ziotenez, hemengo Foru Aldundiek legearen edukia Euskal Herrira ere hedatzeko eskatu zuen, baina alderdi politikoak ez ziren ados jarri,

eta gaia ez aurrera ez atzera geratu zen, gerra hasi eta Autonomia Estatutua onartu zuten arte. Arazoak arazo, eskoletan elebitasuna ezartzearen aldeko aldarrikapena egin zuen Urnietako Udalak, 1931ko abuztuaren 9an. Era berean, Eusko Ikaskuntzak sustatutako asmoarekin bat egin zuen: Hezkuntza Elebidunari buruzko Biltzarra antolatzeko nahiarekin, alegia. Izan ere, gure Udalak zionez: «en la actualidad los maestros de este término carecen de la conveniente idoneidad para prestar al efecto su colaboración».

Eusko Jaurlaritzaren agintaldi laburrean, aurreko hamarkadetan Bizkaiko auzo ikastetxeetan eta Gipuzkoako landan erabilitako hezkuntza eredu berbera finkatu zuten: eremu euskaldunetan, eskolak euskaraz eman eta gaztelania irakasten zuten; eremu erdaldunetan, berriz, eskolak gaztelaniaz eman eta euskara irakasten zuten. Urnietan ez zuten halakorik egin behar izan, noski.

Asmo guztiak bertan behera geratu ziren Gerra Zibila piztu eta gero. 1936ko abuztuaren 31n, artean Donostia altxatuen mende erortzeke zegoela, Gipuzkoako Gerra Batzorde Kalistak zirkularra kaleratu zuen agindu hau emateko:

> A los niños que solo sepan el vascuence, se les dará la enseñanza en vascuence, pero se les enseñará además con especial empeño el castellano. A los niños que puedan entender la enseñanza en castellano se les dará aquella en esta lengua.

Frankismoak ateak itxi zizkion euskarazko alfabetatze ahalegin orori. Euskaraz irakurtzen eta idazten ikasteko, hezkuntza ofizialetik kanpoko bideak aukeratu behar ziren: parrokiako katekesiak edo ikastetxeetako ordutegietatik kanpo antolatu ohi ziren banakako nahiz taldeko eskolak. Elvira Zipitriak berrogeiko hamarkadan abian jarritako esperientzian oinarrituta, etxeko eskolak sortu zituzten Donostian, gerora ikastolen mugimenduari bidea eman ziotenak[46]. Euskarazko eskola horietako ikasleei hezkuntza programa ofizialetako edukiak irakasten zizkieten, eta ikasturtearen bukaeran azterketa libreetan hartzen zuten parte. Emaitza akademikoek eta ikuskaritza txostenek argi erakusten zuten heziketa bikaina ematen zutela benetan, baina diktadura ez zegon eroso fenomeno berriarekin. Horregatik, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak etxe eskolak legeztatzeko agindu eta gehiago irekitzea debekatu zuen, 1968ko uztailaren 19an kaleratutako zirkularraren bidez. Hona hemen testua hitzez hitz:

> Varios son los miles de niños que asisten a centros que escapan a todo control. Centros instalados, muchos de ellos en locales cuyas condiciones higiénico pedagógicas y cuya solidez y seguridad dejan mucho que desear, que se hallan regentados por personal carente no ya del correspondiente título académico, sino de la más mínima preparación pedagógica y de la indispensable garantía sanitaria; centros que, por hallarse incapacitados para expedir el Libro de Escolaridad, cierran a sus alumnos la via de acceso a la enseñanza y a la obtención del Certificado de Estudios Primarios; centros, en una pala-

46. Dávila Balsera, Paulí; Eizaguirre Sagardia, Ana; Fernández Fernández, Idoia. “Los procesos de alfabetización y escolarización en Euskal Herria, 1860-1990”. Non: Cuadernos de Sección. Educación, 7. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1994; 63. or.

> bra, que, por no ofrecer garantía ni solvencia alguna, no tienen razón de existir en estos tiempos en que las exigencias de tipo médico, sanitario y pedagógico son cada vez mayores.

Honako agindu hauek eman zituen:

> 1. Queda terminantemente prohibida la apertura de nuevos centros de enseñanza primaria sin la correspondiente autorización (...).
>
> 2. Los directores o responsables de los centros que funcionan actualmente sin la oportuna autorización, solicitarán con la máxima urgencia, la legalización de los mismos.

Gauzak horrela, euskal eskolak nola edo hala legeztatzeko modu bakarra elizaren babesa izan zen[47].

* * *

1966-1967 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako 504 ikasle zeuden Urnietan. Beheko taulan, hizkuntza ezaugarriak eta Gipuzkoako ikasleen batez besteko datuak daude zehaztuta:

Ikasleen hizkuntza	Urnietan	Gipuzkoan
Gaztelaniaz bakarrik	% 55,2	% 54,2
Gaztelaniaz ongi, euskaraz gaizki	% 7,5	% 12,1
Gaztelaniaz ongi, euskaraz ongi	% 29,4	% 17,1
Gaztelaniaz gaizki, euskaraz ongi	% 5,3	% 13,9
Euskaraz bakarrik	% 2,6	% 2,7

Iturria: *Así está la enseñanza primaria: hablan los maestros,* 1969.

Urte horretan, Gipuzkoako lehen hezkuntzako maisuen % 12k hala moduz zekiten euskaraz, eta % 18k ongi.

1970eko Hezkuntza Lege Orokorraren testuan «lenguas nativas» edo ama hizkuntzak lantzea komeni zela adierazten zen, eta horrela, 1975etik aurrera eskolaurreko eta oinarrizko hezkuntza orokorreko programetan neurri txiki batean behintzat jaiotizkuntzak sartu zituzten, arian-arian.

Azkenik, Espainiako Konstituzioak (1978an) Estatuko hizkuntza guztien ofizialtasuna aitortu zuen, eta Gernikako Estatutuak irakaskuntzako hizkuntzatzat hartu zuen euskara maila guztietako ikasleentzat.

---

47. Aranburu Puente, Xabier. "Historia de la educación en el País Vasco: la ikastola. Datos para la biografía de Elbira Zipitria: La ikastola en San Sebastián (1942-1969)". Non: Cuadernos de Sección. Educación, 4. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1991; 27. or.

Errepublika eta gerraostea

Espainiako Bigarren Errepublikak, 1931ko apirilaren 14an ezarriak, hezkuntza hartu zuten oinarrizko helburutzat. Herriaren hezkuntza errealitatea eraldatzea eta kultur eta hiritartasun maila handitzea nahi zuten, guztien artean nazio aurrerabidea sustatzeko eta benetako demokrazia finkatzeko.

Urte hartan bertan, 1931n, onartutako Konstituzioak hezkuntza bateratu laikoa ezarri zuen, eta autonomiadun eskualdeei tokian tokiko hizkuntzan irakasteko ahalmena eman zien. Hezkidetza ere sustatu zuten, neska-mutilak elkarrekin ikasi zezaten.

Berehala ekin zioten lehen hezkuntzako eskolak eraikitzeari, beharrezkoa zen tokietan, udalen laguntzaz. Gipuzkoan, 1931tik 1936ra bitartean, 39 eskola unitario berri eta eskolaurreko bi ireki zituzten. Oriako Eskola Nazional Mistoari buruzko atalean aipatu dugun bezala, Urnieta ere horrelako ekimenen lekuko izan zen. Ildo horretan, Itziar Rekalde ikertzaileak dioenez, Errepublikaren hezkuntza izpiritua lehen hezkuntzako eskola nazionalen eskutik heldu zen Euskal Herrira.

Egile beraren iritziz, Errepublikari kostatu egin zitzaion bere proiektua Euskal Herrian mamitzea eta hedatzea, bi oztopo nagusi gainditu behar izan zituelako: batetik, hizkuntzaren tratamendua, eta bestetik, erlijioaren gaia. Izan ere, Euskal nazionalismoari lotutako gizarte taldeek eta hiritarrek ikasleen ama hizkuntzan oinarritutako eskola konfesionala aldarrikatzen zuten[48].

1936ko uztailaren 18an, Espainiako Errepublikako gobernu demokratikoaren kontrako altxamendu armatuari eman zitzaion hasiera. Iruñea izan zen altxatuen mende eroritako lehen euskal hiriburua. Handik, Mola jeneralaren tropak Gipuzkoarantz abiatu ziren. Irailaren 6an, Urnieta hartzen saiatu ziren, eta ez zuten lortu, baina handik egun batzuetara udala mendean hartu zuten. Azkenean, hilaren 13an, Donostia setiatu eta okupatu zuten.

1936-1937 ikasturtea ohi baino beranduago hasi zen, gerra eta mendeku giroan. Abuztuaren 19an, frankisten kuartel nagusiak honako agindu hau helarazi zion Urnietako alkateari: aurrerantzean, irakasleen zereginak behatu, garbiketa prozesuari ekin eta maisu-maistren jokabideen berri eman beharko zuela. Gipuzkoako Gerra Batzorde Kalistak ere zirkularra bidali zion alkateari:

> Los maestros instructores han de incorporarse resueltamente a esta obra o serán apartados de sus cargos inmediatamente. Una persistente y rigurosa inspección se estable (sic) sobre los centros de enseñanza y ella aquilatará hasta que punto se cumplen estas instrucciones y el grado de celo y de buena voluntad que cada maestro pone en esta labor nacional.

48. Rekalde Rodríguez, Itziar. “La educacion durante la Segunda República en el País Vasco”. Hainbat egile: *Las políticas educativas en el País Vasco durante el siglo XX. Op. cit.*

Garbiketa prozesua arlo eta lanbide guztietan gauzatu zuten, salaketa moralak eta ideologikoak oinarri hartuta. Urnietako irakasleei buruzko txostenetan argi eta garbi ikusten da hori guztia.

José Barbe Yarza, Lasarteko eskola nazionaleko maisua, Avilara bidali zuten, Eusko Alderdi Jeltzalearen jarraitzailea omen zelako eta etxeko balkoietan horrelako banderak zintzilikatu omen zituelako "inclinación hacia el Partido Nacionalista Vasco y por haber puesto colgaduras de ese carácter en los balcones de su domicilio". Txostenean, ordea, maisuaren jokabide profesionala, erlijiosoa eta pertsonala paregabeak direla adierazten da[49].

Guardia Zibilak Ángela Arrue Inchausperi, Goiburuko eskolako maistrari, buruzko txosten konfidentziala egin zuen 1936ko azaroaren 26an. Doktrina nazionalisten jarratzailea zela zioten bertan:

> (...) es de filiación Nacionalista; desde la llegada del Ejército Salvador de España se ausentó de su residencia y tiene abandonado su cargo ignorándose su actual paradero. En el orden moral nada se conoce de su conducta, mas en el político desarrolló una labor funesta.

Beste irakasle bat hartu zuten haren ordez.

Urnietako Erreketeen buruak ere María Astrain Monjelosi, Oriako Nesken Udal Eskolako maistrari, buruzko txosten konfidentziala egin zuen 1937ko urtarrilaren 5ean. Laudorio hitzak idatzi zituen, zentzu guztietan:

> Conducta Profesional: (...) ha tenido que sufrir en su profesión muchas humillaciones y constantemente ha sido injuriada por las hordas marxistas, distinguiéndose siempre por su actividad para con sus alumnas puedan sacar el mejor provecho posible.
>
> Conducta Social: Es de mucha amabilidad y trato excelente en la conversación.
>
> Actuación Política: Me consta es de filiación Tradicionalista y abiertamente contraria al marxismo y separatismo.

Lanpostu horretan jarraitu zuen jubilatu arte (1946).

Maite Ostolaza ikertzailearen kalkuluen arabera, Gipuzkoan 51 irakasle kargugabetu zituzten, hau da, % 11,3 ordeztu zuten.

Gobernu berriak izugarri areagotu zuen Estatuaren kontrola eskoletan, irakasleei oso jarraipen zorrotza eginez. Maisu-maistren zereginak eta portaerak zaintzeko eta behatzeko zerbitzu sareak eratu zituzten. Hasieran, Lehen Hez-

---

49. Ostolaza Esnal, Maitane. *El garrote de la depuración: maestros vascos en la guerra civil y el primer franquismo (1936-1945)*. Ibaeta Pedagogía. Donostia-San Sebastián, 1996. Ostolaza Esnal, Maitane. *El garrote de la depuración: maestros vascos en la guerra civil y el primer franquismo (1936-1945)*. Ibaeta Pedagogía. Donostia-San Sebastián, 1996.

kuntzako Udal Batzordeak sortu zituzten udalerri guztietan, mugimenduaz bestelako pentsaerak zituztenak ordezkatzeko: «sustituyendo las personas de significación política afecta al Frente Popular por otras adheridas al movimiento salvador de España y se dará entrada en la misma obligatoriamente al Sr. Cura Párroco de la localidad», Gipuzkoako Gerra Batzorde karlistak agindu zuen bezala.

Gerra bukatutakoan, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak eratu zituzten probintzia guztietan, Lehen Hezkuntza kontrolatzeko. Lurralde Ordezkaritzek aholkularitza organoak zituzten: Irakaskuntzako Lurralde Batzordeak. Eta erabakiak tokian tokiko herriaren edo hirian betearazteko ardura Udal Batzordeei zegokien. Urnietan, 1940ko uztailaren 6an eratu zuten Lehen Hezkuntzako Udal Batzordea, alkatea buru zela. Parrokoa (idazkari lanak egiten zituen), kontzejal bat, eskola nazionaletako maisu bat, medikua eta aita edo ama bat “de reconocida honorabilidad y adhesión al Movimiento Nacional” ziren batzordeko kideak.

Erregimen berriak bere gain hartu zituen Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiek aurreko urteetan sortutako landa edo auzo eskolak. 1938an, Gipuzkoako Foru Aldundiak 44 landa eskola itxi zituen probintzia osoan. Erlijio ordenen ikastetxe pribatuak gogotik sustatu zituen hezkuntza elitista diskriminatzailea nagusitu zen. Euskal Herrian ere 1951-1952 ikasturterako ikasleen laurdena ikastetxe erlijiosoetan zebilen[50].

Hezkuntza frankistak laikotasuna, hezkidetza (nesken eskolen helburu bakarra ikasleak etxeko lanetan trebatzea zen, emakume peto-petoak heztea) eta elebitasuna errotik baztertu eta eredu nazionalistarik gogorrena ezarri zuen, Espainiako Historiaren irakurketa berrian oinarrituta. Izan ere, eskola curriculumeko ikasgairik garrantzitsuenak Espainiako Historia eta Historia Sakratua ziren. 1936ko udatik, Gipuzkoako Gerra Batzorde Karlistak zirkularra bidali zuen probintziako udal guztietara, eskoletako irakaskuntzaren ezaugarriak zehatz-mehatz azaltzeko (ikusi testu osoa *Dokumentuak* atalean). Horra zer dioen 4. puntuak:

> La enseñanza, tanto en las escuelas públicas como en las privadas, ha de ser eminentemente católica y españolista.- Será obligatoria la instrucción del Catecismo, de la Historia Sagrada y de la Historia de España.- Los trabajos escolares empezarán y terminarán rezando colectivamente un Padrenuestro bajo la dirección del Maestro.- Este instruirá a los niños de la doctrina católica con especial empeño.- Les instruirá también de la Historia Sagrada y de la Historia de España, explicando a los niños con predilección las aportaciones de los vascos –y en especial de los guipuzcoanos y, más concretamente, de los hijos ilustres de cada pueblo– a la formación y a las gloriosas gestas de la nación española, así como los beneficios que las Provincias Vascongadas y especialmente Guipúzcoa han recibido de la unidad de España.

Patriotismorik sutsuena (testuetan: «exaltación del patriotismo sano y entusiasta») laudatzeko nahiak eraginda, derrigorrezko gorespen-errito nazionalistak finkatu zituzten (ondorengo aipamenak Lehen Hezkuntzako Zerbitzu Nazionale-

50. Idem.

ko Buruzagitzak 1938ko martxoaren 5ean kaleratutako zirkularretik hartu ditugu. Testu osoa *Dokumentuak* atalean dago):

> El acto de izar y arriar los días lectivos la enseña de la Patria, en todas las Escuelas nacionales, municipales y privadas mientras se canta por los niños el Himno Nacional ha de ser obligatorio, dándosele toda la emoción necesaria. La bandera ondeará también en la Escuela los días festivos y domingos. Y como símbolo supremo de nuestra España, el retrato de nuestro invicto Caudillo presidirá en todas las Escuelas la educación de los futuros ciudadanos.

1924ko uztailaren 24an, Primo de Riveraren diktadura militarra ezarri eta hamar hilabetera, Urnietako ikastetxeen aurre aldean eskola orduetan bandera nazionala ezartzeko agindu zuten, eta halaber, bandera berehala erosteko.

1938ko abenduaren 13an, Gipuzkoako ikuskatzaileen burua herriz herri ibili zen sinbologia nazional katolikoa ikusgai zegoela egiaztatzen. Eta hala egin zuen Urnietako eskoletan ere:

> Habiendo llegado a conocimiento de esta Inspección por información oficiosa que en algunas escuelas nacionales y privadas de la provincia no se cumple con lo mandado por la Superioridad de solemnizar el acto de izar y arriar la bandera entonando el himno nacional con el brazo en alto el maestro o la maestra y los niños y niñas, a la entrada y salida de las clases (Circular de la Jefatura del Servicio Nacional de la 1ª Enseñanza de 5 de marzo de 1938) se solicita de esa Alcaldía la declaración expresa de si se cumple o no con esta patrótica obligación en las escuelas nacionales y privadas de ese pueblo, rogándole esta Jefatura se sirva comunicarle en el término de ocho días a partir de la fecha.

1946ko hasieran, gela guztietan Pio XII.a Aita Santuaren argazkia jartzeko agindu zuen Lehen Hezkuntzako Ikuskaritzak, eta nahi izanez gero, 3 pezetatan Ikuskaritzari erosteko aukera ere eskaini zitzaien. Urnietan berehala erosi zituzten.

Aurrerantzean, neska-mutilak bereizi eta neskei etxeko lanak egiten irakatsi zitzaien funtsean:

> En las Escuelas de niñas brillará la feminidad más rotunda, procurando las Maestras, con labores y enseñanzas apropiadas al hogar, dar carácter a sus Escuelas, tendiendo a una contribución práctica en favor de nuestro Glorioso Ejército.

Gorputz hezkuntzan ere zehatz-mehatz adierazi zuten zer egin:

> La educación física no es el deporte que, sin empleo científico apropiado, hasta después de la pubertad, resulta casi siempre pernicioso, ni es tampoco el desarrollo del músculo con aparatos. Tómese como base, constantemente, los juegos infantiles de la localidad, ennobleciéndolos y restaurándolos. En vez del exotismo en los juegos, busquemos en ellos las puras corrientes nacionales: los juegos de pelota, los bolos, la comba, el marro, etc., etc., tan españoles, deben utilizarse, lo mismo que los de imitación, corros, marchas cantadas,

> carreras, saltos, etc. Que jueguen los niños en los recreos; pero siempre bajo la cuidadosa dirección del Maestro».

1944ko ekainaren 30ean, Ricardo Bayetek, mutilen 2. gelako irakasleak, ikasturte bukaeran ikasle guztiekin Donostiara txangoa egiteko baimena eskatu zion Udalari. Handik bi urtera, Viteriko irakasleek ere dirulaguntza eskatu zioten ikasleekin Zarautzera joateko, baina Udalak ezetz erantzun zien, diru arazoak zirela eta.

Dena den, Udal Batzordeei zeregin bat agindu zitzaien bereziki: eskola liburutegiak garbitzea.

1947ko otsailaren 18an, Hezkuntza Ordezkaritzak liburutegia sortzea proposatu zion Udalari, eta bertako eskola nazionaletako maisu bat, Ordezkaritzak egoki trebatua, izatea zuzendaria. Lehen Hezkuntzako Udal Batzordearen akta liburuan gai horri buruzko testua dago, 1959ko apirilaren 23koa: «se da cuenta del llamamiento hecho al Ayuntamiento por el Consejo Provincial de Educación Nacional de Guipúzcoa para que los señores maestros colaboren con el Servicio de la biblioteca de iniciación Cultural y en vista de los beneficios que para la cultura pública presta esa institución se acuerda solicitar ese servicio».

Haurrek liburu bakarra erabiltzen zuten eskolan: *Enciclopedia*. Gai guztiak zeuden bertan, hasi erlijiotik eta aritmetikaraino, eta gerraren ondoren, Formación del Espíritu Nacional zelakoa, erregimenak ezarritako irakasgai ideologikoa, erantsi zioten. Denboraren poderioz, ikasgai bakoitzak bere materiala izan zuen.

Lehen Hezkuntzako Udal Batzordearen 1957ko maiatzaren 11ko bilera aktan jasotzen denez, herriko eskoletan liburu gutxi eta zaharrak zituztela esan eta udalak edo familiek zerbait egiteko asmorik zuten galdetu zien ikuskatzaileak. Geletan zenbait konponketa lan egin berri zituztela eta gerora materialetarako laguntza emateko asmoa zutela erantzun zuen Udalak. Hona hemen aktako testua:

> El señor inspector, después de saludar a la junta manifiesta que en su visita a las escuelas del pueblo ha observado respecto a los libros, que son escasos y antiguos siendo muy necesaria su renovación y pregunta si el ayuntamiento o las familias podrían remediar esa deficiencia a lo que contesta el señor presidente que el ayuntamiento ha hecho varios arreglos en los locales escolares y tiene en proyecto otros y que más adelante se podrá ayudar en el material.

Urtea bukatu aurretik, aurrekontuetan eskola liburuak erosteko kopuru bat sartuko zuela agindu zuen alkateak.

Gela barruko baldintzen arazoa ere materialena bezain larria zen. Negua ia bertan zegoela, berogailuak konpontzeko eskatu zuten irakasleek: «exponen la necesidad de arreglar las estufas ante la inminente llegada de los fríos, tomándose nota de ello para que pronto se hallen en condiciones». Berogailuen eta erretzeko ikatzaren gaia behin eta berriz azaltzen da udaleko aktetan.

1963ko ekaineko ikuskapen ofiziala burutu ondoren, eskoletako berogailuak mantentzea Udalaren erantzukizuna zela gogorarazi zuen ikuskatzaileak, eta alkateak oporretan denak konpontzeko hitza eman zion.

Gelak ikasleek garbitzen zituzten, 1965eko maiatzaren 17ko ikuskaritzari buruzko txostenean ikusten denez:

> Finalmente se habla de la limpieza, calefacción y conservación de las clases, señalando son cosas de la incumbencia del Ayuntamiento.
>
> En cuanto a la limpieza, hace hincapié que los niños no vienen a clase a barrer y que a muchos padres les podría molestar que sus hijos se dedicaran a la limpieza y otros menesteres análogos.
>
> El señor alcalde promete encontrar alguna mujer soltera para que no le puedan privar de los juntos y al mismo tiempo solicita a los maestros se le de nota de las faltas de asistencias.

1963ko ikasturtearen bukaeran jangela publikoa ezartzeko aukera aztertu zuten, hezkuntza ikuskatzaileak hala proposatuta, baina 1959an, baztertu egin zuten aukera hori, ez zitzaielako beharrezkoa iruditu: «por tenerlo implantado la Parroquia entre las familias necesitadas, no se ve la necesidad de establecerlo en las escuelas».

OROITUZ

Antonio Izagirre (1920an jaioa), Ramon Etxaniz (1928), Maritxu Rekondo (1928), Juanito Arruarte (1941), Kontxi Zaldua (1924), Izaskun Miner (1947), Maritxu Miner (1935), Mikel Izagirre (1949), Maripi Sarasola (1949) eta Joseba Lizeaga (1959) Urnietako eskola publikoetan ikasi zutenetako zenbait dira. Gehienek Viteri eskolan ikasi zuten, baina Izaskun eta Maritxu Miner Goiburun ibilitakoak dira. Garai haiek gogora ekarri eta beraien oroitzapenak, ohiturak eta eskolako bizimodua biltzeko informazio iturri izan dira urnietar hauek.

Urnietako baserrietan lan ugari zegoen egiteko XX. mende hasieran eta seme-alaben ikasketak ez ziren lehentasun familia askotan. Ramon Etxanizek 13 urte ingururekin utzi zuen Urnietako eskola, 1937 inguruan, eta Artes y Oficios ikastera Donostiara joan zen. Maritxu Rekondo eskolara joan zenerako 5 urte inguru izango zituen eta bazekien irakurtzen, etxean erakutsi baitzioten. 14 urte bete arte jarraitu zuen Maritxuk eta ondoren Andoainen jarraitu zituen ikasketak. Antonio Izagirre 8 urte bete zituenetik 13 urteak bete arte izan zen Urnietako

Eskola umeak Trankatxen jolasean.

eskola publikoetan ikasten eta, ondoren, gau eskolatan aritu zen, baina ez zuen eskolaz "ezer jakin nahi", ez du bertako oroitzapen onik eta.

Juanito Arruarte 1945. urtean, lau urte ingururekin Presentación de María ikastetxean, «monjetan», hasi zen. Kurtso bat «edo agian bi» egin eta Viterin jarraitu zituen ikasketak. «Ez dakit zergatik hasiko nintzen lehenago monjetan, moda izango zen. Monjetan lehenago hasten ziren, gazteago, eta anaiak elkarrekin joaten ginen bertara. 2 maisu zeuden, 7 urte bitartekoentzat bat eta 7 urtetik gorakoentzat bestea», gogoratu du.

Joseba Lizeagak ondo gogoan du sei urte bete ahala joaten zirela denak eskolara. Ondoren, Salestarren ikastetxean jarraitu zuen, anaiek bertan ikasten zutenez berak ere bertara joatea erabaki baitzuen. Kontxik 12 urteak bete arte ikasi zuen Urnietan; ondoren, San Bartolomeko monjetan jarraitu zituen ikasketak.

Mikel Izagirrek Andoaingo La Salle ikastetxean jarraitu zituen ikasketak. Maripi Sarasola ikastolan lanean hasi zen ikasketak bukatu eta berehala. Eskolak ematen ari zela Magisteritzako titulua atera zuen bera ere irakaskuntza munduan murgilduz.

Irakasleak

Maistra zein irakasleak ondo gogoan dituzte gaztaroan eskola publikoko bizitza gogoratzen duten protagonistek. Oroitzapen on eta txarrak. Lezioa ez jakiteagatik edo bihurrikeriaren ondoren etortzen ziren zigorrak dira azken hauen parte. Urnietako XX. mende hasierako gazteei irakurtzen, idazten eta oinarrizko eragiketak egiten erakutsi zietenak izan ziren eskola publikoko irakasleak.

Ramon Etxaniz 8 urte inguru zituela hasi zen Urnietako eskola publikora joaten. Albaro Otaegi Mimendia bere irakasle izan zen Viteri eskolan, Errepublikaren garaian. Ondo gogoratzen du Etxanizek Otaegik zuen musikarekiko zaletasuna: «Maestro ona izan zen, errepublikanoa eta *anticlerical*». Musika heziketan interes berezia jartzen zuen, bera ere Koroan ibilitakoa baitzen. Antonio Izagirrek (1920an jaioa) Mimendiaren oroitzapena oso gogoan du: «Gaiztoa zen». Hain egoera txarrean iritsi zen behin etxera Antonio bere aitona irakaslearengana joan zela haurrari gehiago ez jotzeko eskatzera.

Miguel Frago Frago 1935-1036 ikasturtean aritu zen Urnietako eskolan lanean. «Irakasle bokazionala zen, andrea euskalduna zuen. Villabonara joan zen bizitzera. Interes handia jartzen zion». Heraldo de Aragón irakurtzen ikusten zuen egunero. Gerra Zibila hastearekin batera irakaslea desagertu egin zen, eta 1937ko urtarrilaren 19an María Navarro Caba gironarrak hartu zuen bere kargua eta Zaldundegin hartu zuen ostatu.

Francisca Pérez eta Lolita Soroa (Dolores Soro, deitzen zioten) irakasle onak ziren, «patxara eta pazientzia handia izaten zuten ikasleekin», gogoratu du Mari-

txu Rekondok. Hori bai, komunera joateko ere baimena eskatu behar zitzaien. Behin zigortu zuen Francisca Perez maistrak Maritxu, Catecismo galdera baten ondoren barregura sartu zitzaiolako. Belauniko bere mahai ondoan geratu behar izan zuen orduan, *La Enciclopedia* liburu mardula besoetan hartuta.

Igandeko mezek hitz egiteko eta herritarrak agurtzeko tarte aproposa eskaintzen zuten. Francisca Perez ere mezetan izaten zen, eta gurasoek semealabak zer moduz ari ziren jakiteko erabiltzen zuten momentua. «Gehien berarekin izan nintzen», gogoratu du Maritxuk, eta «meza ondoren galdetzen zioten gurasoek zer moduz nenbilen». Garrantzitsua izaten zen maistraren iritzia.

Federico maisua gaixo egoten zen askotan eta eskolako zaharrenak gazteak zaintzera joaten ziren halakoetan. Joseba Lizeaga zintzo ibiltzen omen zen eskolan eta askotan tokatzen zitzaion lan horretan aritzea: «Maisuen falta zegoenean haurrek nahi zutena egiten zuten eta gero erru guztia zaintzaileona izaten zen». Juan Mari Jakuek eztarria gaizki izaten zuen. «Errieta handia botatzen zuenean irakasle gabe egoten ziren txikienak hurrengo egunetan eta zainketa lanak guk egin behar izaten genituen».

Juan Maria Jakueren zigorrik ohikoena, pizarra ondoko erregelekin ematen zituen kolpeak izaten ziren. «Paper bat kanpoan ikusten zuenean ateratzen zuen erregela. Gainera, lekzioa bukatu ondoren galderak egiten zituen eta gaizki erantzunez gero, zigor gisa belauniko geratu behar zenuen bere mahai ondoan beso bakoitzean liburu mardul bat hartuta. *La Enciclopedia* hartzen genuen normalean», kontatu du Josebak.

Zerbait gaizki egitekotan, zigor bezala, esaldi bat kopiatzeko betebeharra izaten zuten ikasleek. Irakaskuntzak ez zuen egungoarekin zerikusirik eta etxean eskolan jasotako zigorra kontatuz gero, bertan ere haserrea eta beste zigor bat jasotzeko arriskua izaten zuten gaztetxoek. Juanitok ondo gogoan du etxean zigorraren berri ez izateko nola ibili behar izaten zuten: «Elizako zimitiyuan geratzen ginen kopiak egiten etxean azalpenik ez emateko. Iñaki Unanue etortzen zen halakoetan jateko zerbait ekartzera».

Félix Rosas izan zen Juanito Arruarteren irakasleetako bat: «Irakurtzeari garantzia handia ematen zion Felixek, eta altu irakurri behar izaten genuen Greziako historia. Buruz dakit ia!». Jakue maisuak ikasleak jotzeko ohitura zuela ere gogoratzen du Juanitok eta noizbait berak ere jasan behar izan zuen halakorik.

Joseba Lizeagaren garaian maisuek bata iluna eramaten zuten, grisa, belaunetarainokoa. «Elegante etortzen ziren», gogoratu du Josebak. Bera goiz iritsi ohi zen eskolara eta maisuak trenetik nola igotzen ziren ondo gogoratzen du: «Don Jacinto berandu etortzen zen askotan». Teodoro Odria, esaterako, Donostian bizi zen eta egunero etortzen zen Urnietara eskolak ematera, baina Urnietako bizitzan ere parte hartzen zuen: 1964ko urriko gizen eta argalen arteko futbol partidan parte hartu zuen.

Txikien eskolan Dionisio zen irakasle Mikel Izagirre herriko eskola publikoetara joaten zen garaian: «*Eh, pero* deitzen genion, beti gauza bera esaten zuela-

ko: *¡Eh, pero que pasa aquí*!». Nahiko zorrotza zela gogoratzen du Mikelek, baina haurrak beti haur eta ez zuen gustatuko litzaiokeen bezalako diziplinarik lortzen: «Nahi genuena egiten genuen».

Juanito Iturrioz irakaslea Zaldundegin neskame zenarekin ezkondu zen, bertan zeuden bi logelatako batean ostatu hartu zuenean ezagutu zuen.

Kontxi 6 urterekin eskolan hasi zenean Francisca Pérez izan zuen maistra. «Ona zen, errespetu handia genion», gogoratu du. Maripi Sarasolak ere Doña Pakita (Francisca Pérez) izan zuen irakasle, izan ere hogeita hamar urte luzez eman zituen eskolak Urnietan. Julia Barro eta bera ziren irakasle Maripiren garaian, bata gaztetxoenekin aritzen zen eta bestea helduagoekin. «Biak ez ziren oso ondo moldatzen. Julia Barrok handien taldera pasa ninduen eta Doña Pakitak ez zuen oso ondo hartu. Doña Julia oso zorrotza zen, baina erakusle ona, eta afizio handia zuen josten».

Ikasketak

Irakurri, idatzi, aritmetika eragiketa sinpleak egiten jakin eta, nesken kasuan, *sexuak propioak dituen betebeharrak,* alegia, josten irakastea zuten helburu XX. mende hasierako eskolek. Erlijioak garrantzia berezia izaten zuen irakaskuntzan. «Dotrina ez zen erakusten guztiz, erlijioa ematen zen arren, baina nahi zuena sakristiara joaten zen eskolak hartzera. Lau apaiz zeuden garai hartan Urnietan eta han ikasten zituzten elizakoak», azaldu du Ramonek.

Matematika ikasteko metodorik ohikoena problemak egitea zen. «Si un tren sale de Alicante y otro de Madrid... beti berdin. Albaceten aurkitzen ziren, hori seguru», esan du Joseba Lizeagak barrez.

Kaligrafia ona edukitzeari, pertsona irakurri eta ilustratua izatearen erakusgarri zenez, izugarrizko garrantzia ematen zitzaion, ortografiaren erabilera zuzenarekin batera. Baina idazten zuten guztia gazteleraz idazten zuten Urnietako mende erdialdeko gaztetxo euskaldun peto-petoek.

Eskola

Astelehenetik larunbatera ematen zituzten klaseak Urnietako eskola publikoetan, hori baitzen arruntena. Larunbata lan egun arrunta izan zen duela urte berrogei urtera arte. Goizez, 9etatik 12etara eta, arratsaldez, 2etatik 5etara joaten ziren eskolara, egunero, ostegun arratsalde eta igandetan izan ezik. Zigortuta geratzekotan ordu bete beranduago, 13etan, ateratzen ziren eskolatik. Baserrira joan eta itzultzeko denborarik gabe geratzen ziren halakoetan ikasle gazteak.

Teodoro eta Juanita klase partikularrak ematen hasi zirenekoak ere ondo gogoratzen dituzte. Juanitori udako oporretan Felixek «goizetan-edo» klaseak ematen zizkion.

Kontxik ondo gogoan du Urbanizazio eskolan ikasitakoa: «Jendeari nola pasatzen utzi behar zaion...» Geografia, garaiko Aritmetika, Historia de España eta Catecismoa zituzten ikasgai. *La Enciclopedia* eta *Abecedario* liburuak gelan izaten ziren, eta bertan biltzen zen gaztetxoenek jakin beharreko guztia. Eskolako mahaietan binaka eserita egoten ziren eta mahai gainean tinteroa izaten zuten.

Nesken irakaskuntzan *sexuarenak berezkoak diren lanak* egiteko ardura hartzen zuten irakasleek. Kontxi arratsaldero joaten zen eta bertan laboreak egin eta arrosarioa errezatzen zuen. Asko dira oraindik eskolan egindako tapete eta lanak gordeta dituzten ikasleak.

Gelak

Viteri eskolen eraikinak solairu bakarra zuen hastapenetan, eta bertan, bi gela: bat neskentzat eta beste bat mutilentzat. Berehala egin zuten beste solairu bat haur guztiak hartu ahal izateko eta orduan neskak solairu batean eta bestean mutilak izaten ziren. «Hasieran neskak behean eta mutilak goian izaten ginen, baina aldatu egin gintuzten mutilak neskei begira egoten zirelako», esan du Maritxuk. Gelak zaharrak zirela gogoratzen dute bertan ibilitakoek. Bertan egiten zituzten eskolako guztiak, «gimnasia, *arriba Franco* eta guztiak», esan du Mikelek.

Pizarra, munduko bola, Espainiako mapa eta gurutzea izaten zituzten gelek eta liburu asko ez zituzten arren, *La Enciclopedia* bertan izaten zen.

Hori bai, egoera politikoak baldintzatutako dekorazioa izaten zuten eskolako gelek. Errepublika baino lehenagoko dekorazioa Ramon Etxanizek gogoratzen du: «Sagrado Corazón eta Santo Cristo» izaten ziren gelan, baina Errepublika garaian halako guztiak kendu egin zituztela ere oroitzen du.



Joseba Lizeaga prestatutako eskola argazkian.

«Tabladutxo bat zegoen eta gainean irakasleak bere mahaia izaten zuen. Don Felixek karkasak botatzen zituen tabladuaren alde batera», gogoratu du Josebak. Kable batetik zintzilik bonbilla izaten zuten gela argitzeko.

Egunero, eskolak hasi baino lehen, Espainiako bandera jaso beharra izaten zuten Maripiren gelakoek: «Estufa ondoan bandera egoten zen. Egunero desberdinak jartzen zuen, baina ikasleek jartzen genuen beti, txandaka».

Noizean behin argazkilaria joaten zen eskolara, ikasleei gelan erretratua ateratzeko. Baina argazki horiek ez dute ondo islatzen gelak garaian zuen itxura, fotografoak berak eramaten baitzuen argazkietan agertzen den dekorazio guztia. «Gortina txuri bat jartzen zuen maisuaren mahaiaren atzealdean, eta bertan eseri eta argazkilariak ematen ziguna hartzen genuen. Dena berak eramaten zuen, janzten zigun txalekoa elegantea zen», dio Juanitok berari ateratako irudiari begiratzerakoan, irribarrea ahoan.

Eskola materiala

Mende hasierako eskola materialak ez zuen egungoarekin zerikusirik, koadernoa eta borragoma erosita kontentu egoten baitziren ikasleak, ez zuten gauza gehiagorik erabiltzen. «Pinturak herriko aberatsek zituzten eta inbidiak sortzen ziren», zehaztu du Josebak. Urnietarrek estankoan erosten zuten materiala eta Goiburuko maistrak ere salgai izaten zituen koadernoa eta borragoma. Beste zenbaitzuk zorte handiagoa zuten. Maritxu eta Izaskuni izebek oparitzen zieten Donostian erositako materiala eta Erregetako opari izaten zen beraientzat.

Gelan zituzten liburuak erabiltzen zituzten ikasleek: liburu berak belaunaldiz belaunaldi. «Behin eskolako liburuak eraman egin zituen norbaitek, lapurtu egin zituzten. Denak susmagarri ginen orduan eta zigortuta geratu behar izan genuen», adierazi du Juanitok. «Teodororen azken urteetan *La Encilopedia* horretatik liburura pasa ginen, estankoan zeuden salgai, bigarren eskukoak uste dut. Kaligrafia-eta lantzeko izango ziren», gogoratu du Josebak. Mikelek gogoan du liburuak erosten Andoaingo La Salle ikastetxean ikasi zuela, Urnietako eskolatik pasa eta urte batzuk beranduago.

Astelehenetan tinta banatzen zuen maistrak, «lumarekin idazten baikenuen», zehaztu du Maritxuk. «Koadernoak bi marratakoak izaten ziren hobeto idazteko» gaineratu du. Maripik ondo gogoan ditu marra bateko koadernoak: «Estankoan erosten genituen, sekanteak Doña Pakitak Frantziatik ekartzen zituen, eta berari erosi behar izaten genizkion».

Kalefakzioa

Eskola publikoetako berogailu sistema ondo gogoratzen dute ikasleek, batez ere beraiek izaten zutelako hau piztu eta bertarako egurra lortzeko ardura: borobila zen, tapa bat zuen, behean tiroa zuen eta tubo bat ateratzen zen estufatik

leihorantz. Gela bakoitzak bere estufa propioa zuen. Juanitok ondo gogoratzen du nola joaten ziren mendira egur bila, baina Josebari ez zitzaion halako lanik egokitu. Denon artean pizten zuten. Maripik egur bila «koartotxora» joaten zirenekoa du gogoan eta noizbait Igerategi zerrategira egur bila joan zirenekoa ere bai. «Gelan jertsea jarrita egoten ginen. Eskolan kalefakzioa urtean bi edo hirutan bakarrik pizten genuen. Estufa txarra zen, eskasa 100 metro baino gehiagoko gela batentzako», esan du Mikelek. Kontxi ere iritzi berekoa da: «Hotza egiten zuen eskolan, baina etxean ere bai».

Estufak txikiak ziren eta, gainera, beti ez zuten funtzionatzen. Urnietako udal eskoletako juntak 1957ko azaroaren 7ko bilerako aktan jaso zuen hauek konpontzeko ardura: «Los señores maestros exponen la necesidad de arreglar las estufas ante la inminente llegada de los fríos, tomándose nota de ello para que pronto se hallen en condiciones».

Ikasi eta jolastu

Sokasaltoa, kanikak, pote-pote, ezkutaketak, txapak, laukiak, *brillea*, txingak eta futbolak hartzen zuten tokia jolas garaian. «Denak lagunak ginen, elkarrekin jolasten ginen, orain gertatzen denarekin desberdintasun handia dago», adierazi du Maritxuk. Eskola aurreko patio horretan ibiltzen zirela ondo gogoratzen du Josebak. Juanito plazan aritzen zen futbolean gelako mutilekin batera. «Neskak sokasaltoan aritzen ziren eskolan, baina mutilak plazara joaten ginen futbolean aritzera. Kaniketan ere aritzen ginen. Antonio *zesteroa* ateratzen zen kanikak neurtzera, nork irabazi zuen jakiteko», zehaztu du Mikelek.

Gaztetxoek jolasean egiten dituzten zauriak ez ditu denborak aldatu, hauek sendatzeko moduak, ordea, bai. «Zauria ararekin garbitu eta *pañolua* jartzen genuen. Medikuarengana edo Teresa Amuategirengana oso grabea zenean bakarrik joaten ginen», kontatu du Mikelek.

Eskola bukatuta Langardara joaten ziren jolastera Josebaren garaian, Sanjuaniturri zuten jolastoki nagusi Mikelen gazte denboretan.

Kantuak eta errezoak

Errepublika garaian errezoa desagertu eta irudi erlijiosoak kendu egin zituzten geletatik. «Errepublikan maistra negarrez hasi zen, oso erlijiosoa zen», gaineratu du Kontxik. Gerra ondoren, ordea, errezatzeko ohitura berriro ezarri eta egunero *Cara al sol* abesten hasi ziren. ¡*Viva Franco!* oihukatzen zuten klaseak hasi baino lehen. Irakasleek ere desberdin jokatzen zuten: Teodoro Odriak ez zuen inoiz kantatzen, Dionisiok eta Francisca Perezek, ordea, bai.

Garai hartan, arraroena mezetara ez joatea izaten zen, herri guztiak baitzekien nor ez zen elizara joaten. Hala ere ikastetxean ere erlijio ohituren jarraipena egiten zutela dio Josebak: «Juan Maria Jakuek mezetara joan ote ginen galdetzen

Haurrak mendian jolasean.

zigun eta kalekoei gazteleraz ez zekitenei erantzuten laguntzeko esaten zien». *Primer Viernes*etan ere mezetara joaten ziren denak. Juanitok Felix maisuak Corpus Cristo egunean, hileko lehen ostiraletan, santua prozesioan nola hartu zuen gogoratzen du.

Mikelek berarentzat berria zen gazta mota bat ezagutu zuen elizari esker: «56an norteamerikanoen gazta bola parrokiaren bitartez iristen zen, elizaren berritze lanetan parte hartu genuenean gazta hori atera ziguten. Errazionamenduko azken garaian iritsi zen».

Janzkera

Kalerako galtza luzeak 14 urte ingururekin jarri zituen Ramon Etxanizek. Elurra egin arren, eskolara joaten zen egunero Urkaindik Maritxu Rekondo: «Eta elurteak ez ziren oraingoak bezalakoak, askoz handiagoak ziren. Baina ahal bezala joaten ginen eskolara, ez zegoen beste erremediorik. Oinez joaten ginen, elurretarako abarkak jantzita».

Joseba ere galtza motzetan joaten zen eskolara, abarketak, botak edo zapatilak jantzita. Inspektorea ikastetxera joaten zenean denak dotore eta ondo jantzita joaten ziren. Gainera, honek egiten zituen galderei ondo erantzun behar zitzaien: «Maisuak beldurtuta egoten ziren, dena ondo antolatzen, urduri. Beldur handia izaten zuten irakasleek batez ere».

Izaskun ahizpak positakoarekin joaten zen, dotore-dotore beraz, eta oinetan zapatilak eramaten zituen: «Zapataren forma zuten baina gomazkoak ziren, 0,95 pezeta balio zuten». Kontxik apretak eramaten zituen, euria egiten zuenean, ordea, oinetakoak zikindu baino nahiago izaten zuten oinutsik joan. Maripik eskolarako bidean zegoen lokatza gogoratzen du: «Eskolara jaisteko bideak txarrak ziren, bidezidorra hartzen genuen eta ondo gogoratzen dut bidean zenbatetan egiten nuen irrist. Eskolarako zapatila garbiak eskutan eramaten genituen eta abarkak jantzita. Iristear ginenean aldatu egiten genituen. Txoko batean uzten genituen eta bueltakoan berriro abarkak jartzen genituen».

Mikelek sokarik gabeko abarkak eramaten zituen: «Behin Aldanondori ostikoa ematen saiatu eta abarka maisuaren gainera erori zen. Izugarri haserretu zen». Abarkez gain, galtza motzak, artilezko galtzerdiak eta jertsea erabiltzen zituzten.

Asistentzia

Eskolara joatea ez zen Urnietako familien lehentasuna XX. mende hasieran. Antoniok tarte handia pasa zuen eskolara joan gabe, gaixorik egon zelako eta gau eskoletara ere joan zen. Egunero norbaitek kale egiten zuen eskolan. Baserri giroa zen Urnietako biztanleen sostengu ekonomikoa eta lanean aritu behar izaten zuten baserrian familia aurrera ateratzeko.

Urnietako udal eskoletako 1954ko martxoaren 14ko bileran irakasleek asistentziarekiko kezka adierazi zuten: «Se trata el problema de la asistencia escolar, se recuerda su obligatoriedad. Comentan los casos más destacados y se acuerdan sanciones para ellos». 1957an ere, kezkak bere horretan jarraitzen zuen asistentziak hobera egin zuen arren: «Se trató de la asistencia escolar que ha mejorado algo; pero todavía hay casos de abandono, por lo que se acuerda llamar a los padres para que pueda remediarse».

«Asko faltatzen zen jendea eskolara, baserriko lanagatik. Ekaina da baserrian lan gehien egoten den hilabetea eta eskola bukatu egiten zuten askok orduan», azaldu du Josebak. 1959ko urriko batzarrean, asistentzia arazoa planteatzeaz gain, baserriko lanak ere aipatzen dituzte haurrek eskolara ez joateko arrazoi gisa: «Se reconoce que la asistencia ha sido algo escasa a causa de enfermedades y labores de recolección». Baina, Antoniori gertatu bezala, gaixotasunengatik eskolara ez joatea ere normala izaten zela gogoratu dute Juanito eta Josebak. 1957ko azaroan gripeak ere eraginik izan zuen eskola publikoetan izandako asistentzian: «Se trata de la asistencia escolar que ha sido muy escasa durante el mes anterior debido a la gripe, por lo que no se han presentado relaciones de faltas, habiéndose normalizado últimamente dicha asistencia».

Maritxuk ere arratsaldetan eskolara gaztetxo gutxi joaten zela oroitzen du. «Eskolara faltatzea ohikoa izaten zen», berretsi du Juanitok, baina Josebak zehaztu du: «Piperra egin kalekumeek egiten zuten, baserrikoak eskolara joaten ez baziren lanean geratzen ziren normalean. Denontzat inguruko etxeak petril bat

zuen eta horretan eserita egoten ziren piper egiten zutenak, mozkortuta 12tarako. Hori arrunta izaten zen, oso gazterik ikasten zen edaten. Baserrian ikasten zen, sagardoa, anisa eta koñaka haurrek edatea ohikoa izaten baitzen. *Monagillo* aritzen zirenek ere ardoa edaten zuten».

Euskara

Esan bezala, baserri giroa nagusi zen XX. mende hasierako Urnietan, eta erabiltzen zen hizkuntza, bakarra: euskara. Urnietarrek eskolan euskaraz egin dute beti, ez zuten beste erremediorik ez baitzekiten gazteleraz hitz egiten. Baina irakasleari gazteleraz egin behar izaten zioten, ahal zuten bezala: «Espainiako mapa buruz ikasten genuen», gogoratu du Etxanizek.

«Hasiera txarra izan nuen eskolan. Baserrian bizi nintzen, euskal giroan ehuneko ehunean, eskolara joan eta dena erderaz egiten zela ikusi nuenean *aluzinatuta* geratu nintzen, ez nuen ezer ulertzen», gogoratu du Josebak. Ikasle gehienak baserrikoak izaki, antzerako egoera ugari bizi izan zituzten gaztetxo zirela. Errekreo garaia izaten zuten arnasa hartu eta beren gisa ibiltzeko. Gaztelera eskola hizkuntza besterik ez zen, irakasleek ez baitzekiten euskararik, gehienek ulertu ere ez zuten egiten eta horrek komunikazioa zaildu egiten zuten. «Ikastetxerako bidea egiteko 2 ordu inguru behar izaten genituen eta euskaraz egiten genuen orduan, noski», esan du Josebak.

Baina bazeuden gaztelera maila hobea zuten ikasleak ere eta Juanito zen horietako bat, eskola publikoetara joan baino lehen Presentación de María ikastetxean ibilitakoa zelako. Halakoetan elkar babesten zuten gaztetxoek, gazteleraz hobeto moldatzen zirenek besteei laguntzen zieten maisuari erantzuterakoan. Maritxuk ondo gogoan du euskaraz hitz egiteagatik zigorra jasotzen zutela eskolan.

Maripik ere ondo gogoratzen du gazteleraz hitz egiteko beharra: «Hasieran negar batean joaten nintzen, erderaz hitz egiten zidaten, handien gelan egon nahi nuen lagunekin egoteko».

Josebak gogoan du Teodoro irakasleak, euskaraz «zerbait behintzat» ulertzen zuenak, gaztelera proba nola egin zion. Astearen egunak galdetu eta Josebak esfortzu handia egin behar izan zuen nola-hala erantzuteko. Juanitok, ordea, ez zuen arazorik izan horretan. «Batez ere erdara ikasten genuen eskolan», esan du Mikelek, eta gaineratu du: «Urnietan lehenengo erdaldunak komunioa egin nuenean ezagutu nituen».

50. hamarkada bukaeran hasi ziren kanpotarrak Urnietara etortzen eta, beraiekin, gaztelera. «Emigrazio zaharrekoek euskara ikasi zuten, Urnietan bizitzeko ez zuten beste erremediorik. 10 familia inguru izango ziren: Berrasoetakoak, Renfeko *paso a nivel* kontrolatzen zuenaren alaba, Gaunatarrak...».

«Kanpotik etortzen zen jendea edozein garaitan sartzen zen eskolan. Atzean gelditzen ginen gu, haiek gazteleraz oso ondo baitzekiten. Erdaraz ez zekien jen-

dea ginen gu», esan du Josebak. Eskolan oso ondo aritzen ziren, baina ikaskideekin ez zuten harreman ona izaten «erdaldunek». «Integratzea kostatu egiten zitzaien. Maisuek dezente kasu egiten zieten, eta errekreoan herrikoekin jolastea kosta egiten zitzaien dena euskaraz egiten genuelako», azaldu du Josebak. Gainera, kanpotik etorritakoei ama joaten zitzaien eskolara bila eta hori ere arraroa izaten zen: «Urnietako haurrak etxera bere kasa joaten ziren. Taldetxo bat elkartu eta elkarrekin joaten ginen etxera inor gure bila etorri gabe».

IKASTETXE PRIBATUAK

Maria Sortzez Garbiaren Misiolari Oblatuak

Urnietako Micaela eta Tomasa Galardi ahizpek herriko neskatilek oinarrizko heziketako eskola bat izatea nahi zuten eta, 1896an, testamentuan, beren Torrea oinetxea, aldameneko lurrak eta Bursinzoro baserria laga zituzten, han doako irakaskuntzan arituko zen komunitate bat sortzeko, gutxienez bost mojakoa.

Galardi ahizpen testamentu betearazleak, Agustin Jauregi Azpeitiko apaizak, Loechesko (Madril) moja domingotarren komunitateak interesa zuela jakin zuen, eta lanei ekin zieten. 1897ko urtarrilaren 1ean, eliza berriaren lehen harria bedeinkatzeko ekitaldi ospetsua egin zuten «Torrea zelai atsegin eta pintoreskoan, Jainkoaren loriarako eta arimen onerako planta berriko komentu bat eta Andre Mariaren ohorezko eliza bat eraikiko den lekuan, neskatilek ikas dezaten».

Auzokoek ekarpen handia egin zuten, eskulanetan eta materialetan, eta pixkanaka, komentua eta eliza eraikiz joan ziren. Baina obraren kostua izugarri han-

Oblatoen komentua plazatik ikusita (1914).

ditu zen, aurreikusitakoaren gainetik. Hori dela eta, diru gehiago eskatu behar zieten Loechesko mojei, eraikinak egiten jarraitu ahal izateko, baina mojek ezetza eman zuten.

Konponbide baten bila, Jauregi apaizak Santanderra bidaiatu zuen, Sotora, hain zuzen. Han, Maria Sortzez Garbiaren Oblatuen ordenako erlijioso frantsesen komunitate bat zegoen, eta Azpeitiko apaizak baldintza hobeen beste leku batera joan nahi zutela zekien. 1898ko azaroaren 15ean[51], erlijiosoak Urnietara iritsi eta, abenduaren 5ean, akordio bat sinatu zuten, komentuagatik 75.000 pezeta ordaintzeko eta Galardi ahizpen arimengatik ehun bat meza emateko konpromisoa berresteko.

Maria Sortzez Garbiaren Oblatuek hezkuntzako esperientziarik ez zutenez, Urnietan juniorren ikastetxe bat irekiko zutela hitzeman zuten; alegia, 11 eta 17 urte bitarteko barneko ikasleentzako seminario txiki bat egingo zutela. Horrek fundatzaileen eta auzotar askoren itxaropenak zapuztu zituen. Teresa Amuategik adierazi bezala, «neskatila guztiek herrian bertan ikastetxe on batean doako irakaskuntza jasotzeko aukera galdu zen»[52].

Hasierako komunitatean, sei aita, bi anaia lego, bi nobizio eta 22 junior zeuden. Eraikin handia zen eta 365 leiho omen zituen. Ramon Etxanizek (1928an jaioa) ezin hobe gogoratzen du Oblatuen komentua: «Frontoi ederra zuen, baita izugarri gustuko genuen futbol-zelai bat ere, baina herrikoek ez genuen sartzerik, esparru pribatua zelako».

Pasa den mendeko hogeita hamarreko hamarkadan, 91 junior hezten zituzten komentuan. Sei irakasle eta ordenako sei anaia arduratzen ziren horretaz, aita Matias Mediavillaren zuzendaritzapean.

1936ko irailean, eraikina erre zen, bertsio ofizialaren arabera «gorriek» piztutako sutean. Urnietari buruzko monografian Luis Murugarrenek adierazten duenez, eraikinak «bonbardaketa baten eragin kaltegarriak izan zituen, eta utzi behar izan zuten». Auzokoen ahozko testigantzek ere eraikina Santa Barbarako lineatik jaurtitako bonbek suntsitu zutela adierazten dute.

Une hartan, 70 junior zeuden komentuan; haien artean, aita Pablo Fernandez ordenako historialaria. Hernanira aldatu eta, han, ia berrogei urte egon ziren.

Geroago, eraikina zegoen orubean, Koruko Andre Mariaren etxea eraiki zuten. Eta hondatutako eraikinaren hainbat harri 1950 aldera Donostiako Iztuetako bidezubia egiteko erabili ziren (Frantziako pasealekuaren eta Mandasko Dukearen hiribidearen artean).

---

51. Data hori ematen digu aita Pablo Fernandezek, Espainiako ordenako historialariak. Data hori bat dator egunarekin (azaroaren 15a), baina ez urtearekin; izan ere, Teresa Amuategik 1899a aipatzen du, eta Luis Murugarrenek, berriz, 1903. urtea.

52. Amuategui, Teresa, *Op. cit*, 125-129. or.

Probidentziako Ahizpak

1903an, Micaela eta Tomasa Galardi ahizpek beren testamentuan agindutakoa betetzeko, Urnietako Maria Sortzez Garbiaren Oblatuek pabiloi bat eman zieten Probidentziako Ahizpei, bertan bizi zitezen. Pabiloia komentuaren barruan zegoen baina erabat bereizita zegoen. Baina hori Espainiako legeen aurkakoa zen; izan ere, legeek ez zuten halakorik onartzen. Horiek horrela, Oblatuen ordenako nagusiak etxebizitza bat eskatu zuen hiribilduko apaiz batek oinordetzan hartutako etxean, eta doan lortu zuen. Han, Probidentziako Ahizpak kokatu ziren.

Etxebizitzako areto batek sarrera independentea zuela aprobetxatuz, neskatila nagusien ikasgela jarri zuten. Eta auzotar batek borondate onez emandako gela batean, haurren ikasgela jarri zuten. Ehun ikasle inguruk ikasten zuten bertan.

«Urnieta kongregazio askoren hainbat bokazioren jaioterria izan zen», jartzen du Espainiako Probidentziako Ahizpei buruzko liburu batean. Hain zuzen, Urnietan jaio zen ama Mayela, 1947an Espainiako Eskualdeko Nagusia izan zena.

Liburu haren beraren bidez, hau jakin dugu: «10 urtez zoriontsu bizi ondoren, etxea kendu zieten eta, baldintza egokiak betetzen ez zituen beste bat aurkitu ez zutenez, postua itxi behar izan zuten»[53]. Horrek esan nahi du Probidentziako Ahizpak 1903 eta 1913 bitartean egon zirela Urnietan. Hala ere, 1915ean, Serapio Mugikak agerian utzi zuen zer egoeratan zegoen Urnietako hezkuntza, honako hitz hauen bidez[54]:

> Mutilentzako bi eskolatan eta neskentzako beste bitan, lehen hezkuntzako ezagutzak irakasten dira; eraikinak onak dira. Haiez gain, Probidentziako Ahizpen erlijio institutu bat dago, eta han, hiribilduko neskatilak hezten dituzte, haien izaerari dagozkien eginkizunetan.

Presentación de María ikastetxea

1929an, Mariaren Aurkezpenaren ordenako erlijiosoen komunitateak Amuedo jauregian eskola apostoliko bat irekitzeko baimena eskatu zion Urnietako Udalari. Jauregia hura 1900ean eraiki zuten, San Joan kaleko bosgarren zenbakian. Geroago, Villa Presentación izena jarri zioten.

Urnietara joan aurretik, mojak Donostian zeuden, baina hango instalazioak ez ziren haien lana egiteko nahikoak. Urnietako lehen nagusia sor Maria de la Presentación Lozano izan zen, eta ikasketako zuzendaria sor Maria de los Querubines Villasella izan zen.

---

53. *Hermanas de la Providencia de GAP. España (1904-1979)*, Idiazabal, 1979.

54. Mugika, Serapio. *Geografía General del País Vasco-Navarro: Provincia de Guipúzcoa*, Alberto Martin, Bartzelona, d.g. (1915-1918), 806. or.

Presentación de María ikastetxeko ikasle taldea (1940).

Eskola apostolikoa neskatilen barnetegia zen. Erlijio joera garbiko prestakuntza orokorra ematen zuten mojek. Behin ikasketak amaituta, ikasleak nobiziotzan sartu ote zitezkeen aztertzen zuten. Nobiziotzak bi urte eta sei hilabete irauten zuen, eta hura egindakoan, nobizioak ordenatzen ziren. 1950 eta 1965 bitartean, eskola apostolikoaz gain, Mariaren Aurkezpenak nobiziotza izan zuen, eta azken urte hartan, Gasteiza eraman zuten. Eskola apostolikoa 1975ean desagertu eta neskatilen ikastetxea eta eskolaurre mistoa geratu ziren.

1931n, hiru irakasle zeuden, hogei neskatila musu-truk hezten. 1935ean, berriz, hogeita hamar ikasle zeuden.

Eskolaurrea Gipuzkoan gerra bukatutakoan sortu zen, mojek agintaritza berriari zuzendutako idazki honetatik ondoriozta daitekeenez:

> Doako ikastetxe apostolikoa, etorkizunean erlijiosoak izango diren neskatilak hezteko helburukoa. Matrikula: 20 neskatila, 13 eta 18 urte bitartekoak. Pasatzen ari garen egoerak direla eta, baliabide ekonomikorik gabe eta zenbait familiak behin eta berriz eskatu ondoren, herriko zenbait neskatila onartu ditugu; hain zuzen, ordainpeko 14 ikasle, 4 eta 8 urte bitartekoak. Horrez gain, eskola partikularrak ematen ditugu.

Geroago, eskolaurrea mistoa izan zen.

Urnietan ikasgela gehiago behar zituztela ikusita, neskatilentzako ikasgela bat irekitzea erabaki zuten. 1941eko abuztuaren 11n, lehen hezkuntzako ikas-

tetxe pribatu gisa erregistratzeko baimen ofiziala eman zioten komunitateari, eta hamar egun geroago, Udalak eraikina handitzeko obrak egiteko baimena eman zien mojei.

Mariaren Aurkezpenaren Ikastetxean, Oinarrizko Batxilergoa ematen zen, laugarren mailara arte, alegia. Eta geroago, Goi Mailako Batxilergoa ere ematen hasi ziren. Ikastetxea ofizialki aitortu gabe zegoenez, han ikasten zuten neskatilek Donostian egin behar izaten zituzten azterketak.

Irakaskuntza eskaintza handituz joan zen, ikastetxeko matrikula kopurua handitu ahala. Lokalak txiki geratu ziren, eta komunitateak beste eraikin bat egin behar izan zuen, kongregazioaren jabetzako lursail batean. Eraikin berrian, pasa den mendeko hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetako immigrazioaren ondorioz Urnietan sortutako eskola biztanleria hartuko zuten ikasgelak egin zituzten.

1973-1974 ikasturtean, eskolaurreko hiru gela zeuden, 120 ikaslerekin. Oinarrizko Hezkuntza Orokorrari dagokionez, zortzi ikasgela zeuden, eta haietan, guztira, 320 ikasle. 1974an, ikastetxeak OHOko zortzi mailetan baterako hezkuntza emateko baimena lortu zuen.

San Jose Langilea Salestar Eskola

1957an, Juan Manuel Beobide salestarrak, Zaragueta-Aristizabal familiaren laguntzarekin eta beste ongilerekin eta erakunderekin batera, Elketako lursaila erosi zuen, han lanbide heziketako ikastetxe bat kokatzeko. Zenbait urte lan egin ondoren, tarteka baliabiderik ezaren ondorioz gelditu beharra eta guzti, 1964ko urriaren 15ean, azkenean, lehen ikasturteari eman zioten hasiera San Jose Langilea Salestar Eskolan. Sei anaia salestar arduratzen ziren, Maria Laguntzailearen Alaben komunitatearen laguntzarekin. Lehen ikasturte hartan, 64 apaizgai matrikulatu ziren. Lehen zuzendaria Enrique Maria Arrieta izan zen.

1967ko abenduan, Lanbide Heziketako Ikastetxe Baimenduaren titulua lortu zuen, eta urteak igaro ahala, mekanikako lantegia, granja, eliza, antzokia, futbolzelaia eta frontoia gehitu zizkioten, eta 1970ean, Pake Leku ariketa-etxea eta igerileku estalia ireki ziren.

Hasieran, apaizgai salestarrek eta lanbide heziketako zikloko kanpoko ikasleek ikasten zuten eskola hartan. Geroago, hezkuntza eskaintza handitu eta lanbide heziketako bigarren maila eta batxilergoa ere ematen hasi ziren. Horrez gain, San Frantzisko Xabierkoaren inspektoretzako nobiziotza ere hartu zuen, bai eta geroago, Industri Maisutza edo Filosofia ikasi nahi zuten nobiziotza ondoko ikasleak ere.

Gaur egun, San Jose Langilea eskola itunpeko ikastetxea da eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), Batxilergoa eta Prestakuntza Zikloak ikasteko aukera ematen du. Hona hemen haren eskaintza:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 12-16 urte.
- Batxilergoak: 16-18 urte. Humanistikoa, Zientifikoa eta Teknologikoa.
- Erdi eta Goi Mailako Prestakuntza Zikloak: 16-20 urte. Elektrizitatea, Elektronika, Mantentze Lana eta Arte Grafikoak.
- Lanerako Prestakuntza
- Etengabeko Prestakuntza

Urnietako Salestar ikastetxearen eraikina.

BIBLIOGRAFIA

AGUIRRE ELUSTUNDO, José Antonio: *Así está la enseñanza primaria: hablan los maestros,* Donostia, 1969.

AGUIRRE SORONDO, Antxon: *Lasarte-Oria: veinte años y varios siglos,* Lasarte-Oriako Udala, Lasarte-Oria, 2003.

AGUIRRE SORONDO, Antxon*: Oria. Una comunidad de vida, un espacio de trabajo*, Lasarte-Oriako Udala, 2007.

AIZPITARTE, Pako*. Landaberri ikastola. 25. urteurrena. 1966-1991*, Donostia. 1991

AMUATEGI, Teresa: *Urnieta*, CAM, 1976.

AMUATEGI, Teresa: *Urnieta. Etxe eta baserriak*, Udala, 1998.

ARANBURU URKIZU, Eulali: "María Dionisia Liceaga y Aguerre", *in Hernani 96*, Hernaniko Udala, 1996, 39-46 or.

——. "Arriatsu Eskolaren Historia". *Hernani 2002*. Hernaniko Udala, 2002, pp. 27-35.

ATXAGA, Mikel: *Gure Urnieta,* Udala, 2000.

BARDAJÍ OLLOQUIEGUI, José Mari: *Oriako nire oroipenak. Oria y mis recuerdos,* Urnietako udala, Urnieta, 2005.

BARRUSO, Pedro: *Violencia política y represión en Guipúzcoa durante la Guerra Civil y el primer franquismo*, Donostia, 2006.

DÁVILA, Paulí: *La política educativa y la enseñanza pública en el País Vasco (1860-1930)*, Ibaeta Pedagogía, Donostia, 1995.

—— (coord.). *Las políticas educativas en el País Vasco durante el siglo XX*, Biblioteca Nueva, Madril, 2004.

EGAÑA, Juxto et al. *Egape Ikastola: 25. urteurrena, 1966-1991*, Egape, 1991.

FERRAZ Y TURMO, Vicente: *Biografía del merítisimo patricio bascongado Excmo. Sr. Don Pedro de Viteri y Arana, protector de la enseñanza*, Donostia, 1908.

GARMENDIA, Joxe: *La enseñanza rural en Gipuzkoa. La labor de la Diputación y los Ayuntamientos (1900-1950)*, EHU, Leioa, 2004.

HAINBAT EGILE. *Hermanas de la Providencia de GAP. España (1904-1979),* Idiazabal, 1979.

HAINBAT EGILE. *Urnietako erretratu zaharrak*. Zizurkil, 2006.

MURUGARREN ZAMORA, Luis: *Urnieta*, CAM, Donostia, 1974.

OSTOLAZA ESNAL, Maitane: *Entre religión y modernidad: los colegios de las Congregaciones Religiosas en la construcción de la sociedad guipuzcoana contemporánea, 1876-1931*, EHU, 2000.

——. *El garrote de la depuración: maestros vascos en la guerra civil y el primer franquismo (1936-1945)*, Ibaeta Pedagogía, Donostia, 1996.

Breve historia de la enseñanza en Urnieta:

En el centenario de Pedro Viteri Arana

Aitziber **S**alinas **E**losegi
Juan **A**guirre

Breve historia de la enseñanza en Urnieta:
en el centenario de Pedro Viteri Arana

Saluda: Mertxe Zapiain Intxausti 109
Prólogo: Paulí Dávila 111
Presentación 113
Urnieta 115
Primeras noticias sobre la educación en Urnieta 117

De Viteri a Azkorte 125
- Pedro Viteri y su obra educativa 125
- Maestros y maestras de las Escuelas Nacionales 127
- Azkorte-Egape Ikastola 130
- El futuro del edificio de las Escuelas Azkorte. Posibles usos culturales 141

Otras escuelas de Urnieta 143
- Escuelas en Lasarte 143
- Escuelas en Oria 145
- Escuela Particular de Pagoaga 150
- Escuela Rural de Goiburu 152
- Landaberri Ikastola de Lasarte 157

Aspectos de la vida escolar en Urnieta 159
- Censo escolar. Evolución de las dotaciones 159
- Economía 164
- Lengua 166
- República y posguerra 170

Recuerdos 177
- Maestros y maestras 178
- Estudios 180
- Escuela 180
  - Aulas 181
  - Material escolar 182
  - Calefacción 182
  - Aprender y jugar 183
  - Cantos y rezos 184
- Vestimenta 184
- Asistencia 185
- Euskera 186

Centros privados de enseñanza 189
- Misioneros Oblatos de María Inmaculada 189
- Hermanas de la Providencia 191
- Colegio de la Presentación de María 191
- Escuela Salesiana de San José Obrero 193

Bibliografía 195

SALUDA

El trabajo que lleva por título *Breve historia de la enseñanza en Urnieta (En el centenario de Pedro Viteri Arana)* es fruto de una investigación histórica propuesta conjuntamente por el Ayuntamiento y Eusko Ikaskuntza. Esta investigación ha sido realizada dentro del convenio de colaboración suscrito por el Ayuntamiento con dicha entidad.

El objetivo del proyecto era dar a conocer a los urnietarras el origen y desarrollo de la escuela pública de Urnieta y de la propia actividad educativa. Al comienzo de la investigación y en el transcurso de las entrevistas a los testigos, se pudo comprobar que muchos de ellos desconocían el hecho de que Pedro Viteri Arana había aportado dinero a la construcción de la escuela; de esta forma, hemos tenido conocimiento de un dato significativo sobre Urnieta.

Por otra parte, el presente libro nos brinda una oportunidad excepcional de conocer algunos de los pormenores que durante generaciones han jalonado los 100 años de historia de este edificio de la calle Azkorte.

Para finalizar, quiero agradecer a los autores del libro, Aitziber Salinas y Juan Aguirre, su participación en este proyecto y, cómo no, a todos aquellos que han prestado su testimonio, por la autenticidad que proporcionan al trabajo.

Mertxe Zapiain Intxausti
Concejala de Cultura
Ayuntamiento de Urnieta

PRÓLOGO

Para un lector atento a la producción bibliográfica en historia de la educación en Euskal Herria de las últimas tres décadas, no pasa desapercibido el cambio producido en este periodo de tiempo. Hace treinta años casi podíamos contar con los dedos de una mano los libros existentes sobre este tema, en la actualidad, en cambio, ya existe todo un conjunto de libros, artículos científicos, actas de congresos, cursos de doctorado, tesis doctorales e incluso diversas asignaturas en la universidad que abordan esta temática con importantes recursos documentales y bibliográficos. Y no sólo es relevante esta nueva situación en el ámbito académico desde el punto de vista cuantitativo, sino que también podemos apreciar que se han trabajado temas de lo más innovadores desde la perspectiva cualitativa. Ahora ya tenemos herramientas y conocimientos suficientes para poder construir una historia de la educación en Euskal Herria donde poder situar diferentes procesos educativos, como la alfabetización o la escolarización, u otros fenómenos no menos importantes como la presencia del euskera en el sistema educativo, la formación del magisterio, los textos escolares, la situación de la infancia, la formación profesional, las ikastolas, el papel de las órdenes y congregaciones religiosas dedicadas a la educación, etc.

También hay que reconocer que existen lagunas en algunos ámbitos educativos o en determinados territorios históricos, o en una determinada época, pero en general, pueden trazarse los ejes mayores de esta historia. Estamos en camino de conseguir una buena síntesis de lo que ha sido la educación en Euskal Herria y construir de alguna manera los fundamentos que nos ayuden a dar cuenta de fenómenos más particulares y locales. Recientemente Eusko Ikaskuntza organizó unas Jornadas sobre Historia de la Educación en Euskal Herria, en la que se recogió una buena muestra de las diferentes perspectivas de estudio sobre este tema, y puede ser un buen punto de partida para visualizar esa situación y dar a conocer al público en general esa memoria histórica, todavía escasamente extendida.

El trabajo que tenemos entre manos es una buena contribución a esta historia que estamos comentando, pues conjuga el interés por acercarse al tema con unas herramientas científicas y además pretende dar a conocer los avatares históricos de la enseñanza en un pueblo de Gipuzkoa. Y el interés es mayor cuando comprobamos que son escasas las monografías que abordan el estudio de la educación desde la perspectiva local. En general, los historiadores de la educación parecen no sentirse a gusto trabajando desde lo local, existe cierta incomodidad ante una realidad tan próxima desde la cual, a veces es difícil abordar los grandes temas de la historia general. Desde luego se trata de un reto que pone a prueba a muchos historiadores.

